

Sortze prozesuak euskal literaturan*

(Creative processes in Basque literature)

Gerrikagoitia Sagarna, Ahinitz
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.
20007 Donostia
ahini@euskalerrria.org

BIBLID [1137-4454 (2009), 24; 135-200]

Jaso: 2005.04.04
Onartu: 2008.07.16

Lan honen bidez, idazle baten barrualdean literatur lan bat sortzeko erabakia agertzen deneko unea aztertzen saiatu gara. Honez gain, idazleak bere idazketa prozesuari buruz egiten duen hausnarketa logikara ekartzen eta idazle desberdinen joera desberdinei buruzko arrazoiak argitzen saiatu gara. Edonola ere, proiektu honen oinarrian bilketa-lana da nagusi, nahiz eta, gero beronen azterketa eta mamitzea ahalbidetu nahi izan diren.

Giltza-Hitzak: Idazleak. Literatur-lan. Sortzeko erabakia. Idazketa prozesua. Hausnarketa. Bilketa-lana. Inspirazioa. Elkarrizketak.

En este artículo hemos tratado de analizar el momento exacto en el que los escritores toman la decisión de crear una obra literaria, así como de explicar desde la lógica la reflexión que los autores realizan sobre su proceso de escritura y de revelar las causas que se encuentran tras las distintas tendencias de los escritores. El proyecto en sí parte de un trabajo de recopilación, si bien hemos procedido a su posterior examen y desarrollo.

Palabras Clave: Escritores. Obra literaria. Decisión de crear. Proceso de escritura. Reflexión. Trabajo de recopilación. Inspiración. Entrevistas.

Nous tâchons dans cet article d'analyser le moment exact où les écrivains décident de créer une oeuvre littéraire, ainsi que d'expliquer, en nous basant sur la logique, la réflexion que les auteurs font sur leur processus d'écriture et de révéler les raisons qui sont à l'origine des différentes tendances des écrivains. Le projet repose d'abord sur un travail de compilation de documents qui sont ensuite analysés et développés.

Mots Clé : Écrivains. Oeuvre littéraire. Décision de créer. Processus d'écriture. Réflexion. Travail de compilation. Inspiration. Entretien.

* Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 2004. urteko ikerketa laguntza jaso du.

Lehenengo soka: mundu honen poetikotasuna antzeman behar dela. Bigarren soka: mundua ez bada berez nahiko poetikoa, mundua azaltzeko modu poetikoak asmatu behar direla. Eta hirugarren soka: literatura mundu argitaragabeak ere asmatzeko gauza dela, munduaren territorio estu hau zabaltzeko. Idazterakoan, sokeak akordatzea eta hiruretatik tiratzea.

Joseba Sarrionandia

HITZAURREA

Proiektu honen bidez euskal idazleengan sortze-prozesuak nola ematen diren aztertu nahi da. Izan ere, jakin badakigu, idazleei ez zaizkiela euren lanak ezerezetik sortzen eta hori da, hain zuzen ere, lan honetan definitzen ahaleginduko garena.

Beste hizkuntza batzuetan honen inguruko lan gutxi batzuk topa baditzakegu ere, oraindik sakondu gabeko gaia dela esan dezakegu. Euskaraz ere, betetzeke dagoen hutsuneetako bat da.

Lan hau egin ahal izateko, literaturaz gain psikoanalisian ere barneratu behar dugu, biak uztartuz ondorio zenbait ateratzeko asmoz. Edonola ere den, proiektu honen oinarrian bilketa-lana da nagusi, nahiz eta, gero beronen azterketa eta mamitzea ahalbidetu nahi izan diren.

Hori dela eta, lan honen helburu nagusia literatur lan bat sortzeko erabakia, gogoia, asmoa agertzen denean idazle baten barrualdean, momentu hori nola gauzatzen den aztertzean datza. Honez gain, literatur sorkuntzaren momentua hausnartzeaz batera, idazleak bere idazketa prozesuari buruz egiten duen hausnarketa logikara ekartzen eta idazle desberdinen joera desberdinei buruzko arrazoiak argitzen saiatuko gara.

Lan hau egiteko, psikoanalisian Anzieu-k proposatu 5 faseak¹ izan ditugu kontuan eta hauek benetan gertatzen diren ikusten saiatu gara.

Las cinco fases del trabajo creador que nos propone Anzieu son las siguientes:

- 1.- El estado de "saisissement" (que traduciré como "atrapamiento").
- 2.- La toma de conciencia de un representante psíquico inconsciente.
- 3.- La elección del código organizador de la obra y de los materiales más aptos para darle forma.
- 4.- La composición de ésta en sus detalles.
- 5.- Su producción hacia fuera.

1. LORÉN CAMARERO, J.A. *Creaciones de la mente*, Valencia: Promolibro, 1995; 215 or.

Laburki azaltzearen:

Lehenengo fasea esentziala eta era berean esan ezina den zerbaitekin harremanetan jartzearekin lotua egongo litzateke. Despertsonalizazio egoeratik hurbil legoke prozesuari dagokionez, baina ez efektuari dagokionez: saminez bizitua izango balitz, despertsonalizatoria gerturatuko ginateke, eta, bestalde, euforikoki bizitua izango balitz, inspirazio artistikoaren lehen egoera izan liteke.

“Saisissement” terminoa Anzieu-k aukeratua da. Jarrera pasiboaren konnota-zioak ditu; subjektua sentsazio, emozio, pentsamendu batek harrapatzen du. Aldi berean, baina, garunean, jarrera aktiboa dugu; izan ere, gutaz jabetzen baita.

Asmatzailea harrapatze-egoeraren paradoxa da. “Ni”-aren bi poloek bat egiten dute: kontzientziak darraien bitartean gainerako “Ni” guztia pasibo mantentzen da. “Ni”-aren egoera erregresibo eta aldaketa sortzaileaz datza. Erregresio hau, era berean, topiko, kronologiko eta formala da.

Bigarren fasean Anzieu-k 3 mota bereizi zituen asmatzailearen arabera, eta hauek, noski, hartzaileari desberdin eragingo diote: 1. Sortzaileak gaueko amets baten moduan lan egiten du. 2. Gatazka afektuaren inguruan kokatzen da bigarren sortzaile-mota honetan eta 3. Anzieu-k berak zioen bezala, azken sortzaile-mota:

(...) es aquel en el que el representante psíquico captado en esta fase constituye una forma particular de representación de cosa; se trata de la captación del momento mismo del nacimiento (o reconocimiento) de ese representante como realidad psíquica motora, rítmica, postural, de diálogo tónico con el cuerpo propio y de los otros, animados o inanimados.

Hirugarren faseari dagokionez, bigarrenean jasotakoak garrantzi handia hartzen du asmatzailearen zentru bilakatzen delarik.

Fase honetan erresistentziek kode berriak suposatzen duen haustearekiko indar handiagoa egingo dute aurrekoarekin alderatuz, bame munduan nahiz kanpokoan.

Psikoanaliaren aldetik gutxien aztertu dena da laugarren fasea. Hau sor-kuntza lanean “Ni”-ari garrantzi gehien ematen dion fasea da. Obraren estiloa zehazten du fase honek.

Bostgarren eta azken fasean obra amaitutzat ematen da. Honekin batera, sortzaileak bere obra kaleratzen dueneko beldurra agertzen da. Besteek lana errekonozitzea, momentuan eta denboran aurrera egin ahala, ezinbestekoa da sorketa lantzat hartuko badugu.

Lehenago “inspirazio” deitzen zen horri buruzko lana da, beraz. Beste era batera esanda, idazleek nola hartzen duten idazteko erabakia eta nola egiten duten bururatutako ideia hori argumentu bihurtzeko. Garrantzia zeri ematen dioten idazterako garaian eta horretarako zein prozesu material erabiltzen duten.

Aukeratutako idazleen artean daude Ramon Saizarbitoria, Rikardo Arregi, M. A. Meabe, Iban Zaldua, Kirmen Uribe eta Harkaitz Cano. Hortaz, adin guztietako eta genero ezberdinetako idazleak daudela ikus dezakegu, euren erantzunen arteko konparaketa egitea ahalbidetzen digularik. Zaharrena eta gazteenaren artean 31 urteko aldea dago. Bi hauek, gainera, hiri berean bizi dira, Donostian, alegia. Hirugarren bat izatez donostiarra bada ere, Gasteizen bizi da elkarrizketatutako beste biren antzera eta azkenik, hauen artean emakume bakarra, bizkaitarra dugu.

Elkarrizketok kalean nahiz bulegoetan egin dira 2004ko otsaila eta martxo bitartean, idazleak galdera guztiak erantzuteko denbora zelarik muga bakar. Bate-na izan ezik. Bizkaitarrarekin, geratzeko zailtasunak medio, garaiotan modan dagoen posta zerbitzua erabili dugu elkarrizketa burutu ahal izateko.

Beharbada idazle hauek literatur lanak zergatik eta nola egiten dituzten jakin nahian sentituko dira. Edo beharbada, hausnarketa eta autoerreflexio horiek egunkari baten idatziko dituzte, kuaderno batean, eskutizetan edo baita liburuetan ere. Edo beharbada, zergatik ez, haien bizitza eta lanari buruz ikasle batek egiten dizkien galderei erantzungo diete.

Azken aukera hori gabe, noski, lan hau ez zatekeen posible izango; elkarrizketatutako idazle hauen parte hartzerik gabe lan hau ez zen idatziko. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten guztiei; izan ere, haiek baitira lan honen benetako egileak.

1. SORKUNTZAZ ZENBAIT OHAR

Lanaren muinean barneratu aurretik, komenigarria iruditu zaigu sortze-prozesuen inguruan historian jazo den bilakaera nolabait laburbiltzea eta, aldi berean, egun duen esanahia argitzea.

Horretarako Anthony Percival-en *Escritores ante el espejo* liburuko hasierako atala oso baliagarria iruditu zaigu.

Izan ere, kreatibitatea edo sorkuntza misterio bat, enigma bat da? Zentzu linguistiko batean hala dirudi; izan ere, egunero erabiltzen dugun hitza bada ere, oraindik errekonozitzeke baitago. Gainera, sorkuntza hainbat alorretan koka dezakegu, hala nola, filosofia, historia, pedagogia, antropologia, psikologia eta ikasketa literario zein artistikoetan. Azken urteotan, psikologiarekin harreman estua duen azpialor bilaka daitekeela dirudi.

Sorkuntza nola sortzen den, pertsona batek sortzen duenean zer gertatzen den... gizartearen historian etengabeko gaia izan da. Hasierako garaietan sorkuntza jatorri jainkozko mitologikoekin lotzen zen eta gizakiaren adierazteko modua egoera hipnotiko, zentzu-galtze mistiko eta besterenganaketa erritualekin. Gizaki sortzaileak Jainkoen bitartekari giza egiten zuen, Sokratesek zioen bezala: "Poema eder hauek ez dira gizatiarrak, gizonak eginak, baizik eta jainkotiarrek eta Jainkoak eginak, eta poetak ez dira Jainkoen bitartekari baino."

Honez gain, greziar sortzaileek musen laguntza eskatzen zuten Homerok *Iliada*-ren hasieran erakusten duen moduan. Musaren ospakizunak XX. mendera arte iraun zuen.

Historian zehar beti lotu izan da sorkuntza indar ilun eta inkontzienteeekin. Inspirazio unearen garrantzia azpimarratzen zuten eta bat-batean sortzen zen ager-kari edo pizgarri modukoa zela zioten lekukotasun ugari dago. Erromantizismoan, norberaren sorkuntzarekin identifikatuta, inspirazioak garrantzi handia hartu zuen. Exigentzia ideologikoei erantzuten zien, baina inspirazio-unea mistifikatzeko joera zegoen. Erromantizismoaren aurreko garaietan sortzailea artisau modura ikusten zen, enkargu bidezko lanak egiten dituen bezala.

Argi dago giza-zailtasun handia duen prozesu honetan makina bat experien-tzia daudela. Testigantza ugari dago, zeintzuetan kontzientziaren kontrola galdu dela esaten den, gizakiaz gairik indar baten gidari bezala sentituz. Nietzschek honela idatzi zuen:

Bi bide hauetatik bururatu zitzaidan Zaratrusta osoa... beharbada inbaditu egin ninduela esan beharko nuke... Ezin da erabat baztertu enkarnazio huts, edo bozeramaile, edo indar boteredunen baten medium garenaren ideia.

XX. mendearen lehen erdia baino lehenago, sorkuntza jenio modura aztertu zen eta askotan desoreka psikiko eta eromenarekin lotu izan zen. Antzinaroan “tristura” eta deabruaren jabe izatea bezalako kontzeptuak nahasten ziren.

Errenazimenduan jakintsuari tristura eta *pazzia* egoerak aplikatzen zitzaizkion. Ilustrazioan, berriz, jakintsuaren kontzeptuak aldaketa jasan zuen, arrazionaltzat hartu baitzuten. Ez zen umoreen oreka bilatzea; imajinazioa, sena eta gustu este-tikoarena baizik. XIX. mendean jakintsua bi modutan ulertzen zen: alde batetik, gizaki erabat zentzuzko bezala eta, bestetik, psikikoki aldakor modura. XIX. mendearen erdialdera beste muturrean kokatu behar dugu: jakintsua endekapenare-kin erlazionatzen zuen teoria agertu zen, endekapen hau genetikoki heredatuta-ko gutxiagotasun biologiko bezala ulertzen zutelarik. Teoria honen alde garai hartako ospetsu asko agertu ziren.

XX. mendean sortzaile eta gaisotasun mentalaren arteko harremanari buruzko interesa mantendu zen. Mende hasieratik jarrera modernoago bat garatzen hasi zen. William James eta Émile Kraepelin-ek eromenaren (egoera maniako edo malenkoniatsuak) zenbait formarekin lotutako alderdi positibo batzuk azpimarratu zituzten eta alderdiok talentu artistikoarekin batuz gero pertsona izugarri kreatiboa nola sortzen zen aztertu zuten. Psikosia eta mutu-rreko depresioa bezalako gaitz mentalen efektu suntsitzaileak ere azpimarratu zituzten. Ikerlari hauentzat ezinbestekoak ziren gizaki sortzailearentzat sakrifi-zioa, disziplina eta oreka. Artista eta eromenaren arteko harreman hau azken hamarkadetan egindako lan gehienetan topa dezakegu. Ondorengo lanetan, Kay Redfield Jamison-enean esaterako, medikuntza eta psikiatria arloetan egindako ikerketetan ateratako emaitzak sartu zituen, lan artistikoetako balore konplexuak kontuan hartzeaz gain. Jamisonek bere lanean bi ondorio azpima-ratu zituen sorkuntza hobeto ulertzeko: Lehenengo sorkuntza eta eskizofrenia-

ren arteko loturak oinarri sendorik ez duela esan zuen, eta, bigarrenik, gaisotasun maniako-depresiboak sorkuntzarekin zerikusi zuzena duela zioen, horren arabera, sortzaileek desoreka maniako-depresiboak jasateko erraztasun handiagoa dutelarik.

Sorkuntzari dagokionez, ikerketa psikoanalitiko ugari daude, hauen hasiera Freud eta beste zenbaiten lanek finkatu zutelarik. Edonola ere, berarentzat imaginazio sortzailea eta lana lotuta zihoazen eta hau zorientasunaren errezeta zen, ondoko pentsamenduagatik ez balitz:

Eso sería una prescripción para la felicidad si no fuera por el terrible pensamiento de que su productividad dependía de humores sensibles. ¿Qué se ha de hacer el día en que los pensamientos cesen de fluír y no salgan las palabras adecuadas? No se puede menos que temblar ante la posibilidad.

Freud-ek giza portaeretan gertatzen diren prozesu inkontzienteen garrantzia aipatu zuen; sorkuntza artistikoa alde aurretiko asmoen itxuraketa soila ez dela, baizik eta lanaren esanahia sortzaileari berari eta hartzzaileari ilun gertzen zitzaizkiola azpimarratuz. Motibazio inkontzientearen kontzeptu hau oinarritzkoa da.

Jung-ek, bestalde, sortzaileak bere burua adierazi baino inkontziente kolektiboko materialak denok banatzen ditugun forma arketipikoak adierazteko erabiltzen zituela zioen. Sortzailea pertsona kolektiboa da nolobait esateko; bitartekari bezala ideia unibertsalak adierazten baititu. Eta sorkuntza eta neurosiaren arteko harremanari dagokionez, Jung-ek badaudela zioen, baina erabat gaitzesen zuen Freud-ek esan bezala, lan handiak neurosi pertsonaletik sortuak direneko ustea. Hala ere, Jung-en teoriak badu akats bat: denok inkontziente kolektibora sar bagaitezke ametsen bitartez, zergatik egin ditzakete sorketa lanak hautatutako zenbaitzuk soilik? Jung-en arabera, batzuek talentu berezia dute, baina ez zuen ez nola ez zergatiaren azalpenik ematen.

Azken 50 urteetan sorketa teoriaren inguruko hainbat teoria atera da psikoanalisian eta sakoneko psikologian oinarrituta. Izan ere, lehen esan bezala, sorketa lana piskanaka psikologiari lotuago agertzen ari baitzaigu.

Hau da, laburki azalduta, orain arte inspirazioari buruz esan izan dena. Askotariko iritzi eta teoriak daudela ikusi dugu (nahiz eta, kontziente garen beste asko aipatu ere egin gabe utzi ditugula), baina zer da gaur egungo idazleek gai honen inguruan pentsatzen dutena? Hori da lan honen bitartez ikusi nahi izan duguna, eta, hortaz, ondoko orriotan ikusi ahal izango duguna.

2. ZER DIOTE GURE IDAZLEEK?

2.1. Inspirazio kontzeptuaren inguruan

Zer da benetan inspirazioa? Existitzen al da? Zergatik inspiratzen dira gutxi batzuk bakarrik? Hori da, lehenik eta behin, argitzen saiatu behar duguna. Aurre-

ko atalarekin nolabait honen inguruan historian zehar esan direnak laburbildu baditugu ere, zer da benetan gure idazleek diotena?

Idazle gutxi joko lukete inspirazioaren kontzeptura. Modu batera edo bestera, azkenean elkarrizketaturiko idazleen artean ez du inork “inspirazioan” sinisten. Ramon Saizarbitoriak, esaterako, honela dio:

inspirazioa dena dela esaten dute, baina lanean jartzen ez bazara ez dago inspiraziorik. Egia da batzuetan txispatxoak etortzen dela, bada goela momentu magiko bat edo, baina ez. Berez, onartuko nuke badaudela egun batzuk beste batzuk baino inspiratuagoak, beharbada laguntzak ere inspiratzeko, baina berez iruditzen zait daukazuna hor dagoela, ez dela kanpotik etortzen eta lanean jartzen zarenean etortzen zaizkizula ideiak.

Antzera dio Iban Zalduak ere:

Ez dut uste kanpoan dagoen zerbait denik, etortzen zaizuna eta... Musaren kontu horietan ez dudala sinisten, alegia. Ez dut sinisten ezta ere halako dohai partikular edo berezi bat denik. Hau da, badaude gauzak inspiratzen zaituztenak, mundu guztiari inspiratzen dioten bezala, zerbait burura ekartzen dioten bezala.

Rikardo Arregik ere “garai zaharretik datorren zerbait da; zutaz jabetzen zen egoera azaltzeko erabiltzen zuten. Ez, ez dut uste horrelakorik dagoenik” dio.

Edonola ere, denek dakite “inspirazioa” ez dela lanean jarri gabe etortzen. Kirmen Uriberen ustez

inspirazioa *klitxe* bat da, ez da besterik. Alde horretatik ez dut uste irudi horretan, poeta “Jainko txiki” baten modukoa dela edo poeta, nolabait esan, Jainkoarekin lotura daukan pertsona bat denik. (...) Nik gehiago sinisten dut formazioan, alde batetik, tradizioan, beste alde batetik, eta, azkenik, norbere ikuspegiari. Pertsona bakoitzak ikuspegi bat dauka eta egiten duena da, besterik gabe, aurreko tradizioa kontuan hartu, aurreko idazleek egin duten ona kontuan hartu eta hortik abiatuz berea eraiki. Nik uste dut hori dela idazle batek egiten duena.

Miren Agur Meabe-k “beti esan izan dut ideiei deitu egin behar zaiela, eta horretarako, prestu egon behar duzu, paper zuriaren aurrean pentsatzen, edota ingurura begira jendeari, gauzei, elkarrizketei adi”. Miren Agur Meabe-k esan bezala, ideiak ez dira bakarrik eta ezerezetik etortzen eta Harkaitz Cano ere uste berekoa da:

Zerbait badago, baina beharbada *ratxa* hori motibazio asuntoa da; ez dakit zenbateraino den zerbait hain erromantikoa edo kasualitatearen fruitu. Nik, adibidez, erabiltzen ditut mekanismoak inspirazioa deitu diezaiokegun hori aktibatzeko.

Inspirazio kontzeptuan pixka bat sakondu nahi izan dugu eta inspirazioan zein neurritan sinisten duten galdetu diegu. Izan ere, kontuan hartzekoa da batzuenzat lana, sakrifizioa, disziplina eta orekaren ondorio dela, eta ez inspirazioarena. Edonola ere, norbaitek *inspirazioa* bukatu daitekeela esango luke? Hori da galdera honekin lotu nahi duguna eta hona hemen erantzunak:

Rikardo Arregik begirada kontua dela dio:

Gauzak begiratzeko prest egon behar duzu eta zure aldetik predisposizio bat behar duzu. “Noan gauzak begiratzera”, “edo burua irekita izango dut ia zer gertatzen zaidan eta...”.

Ez da egia bakarrik paisaje polit bat ikusten bururatzen zaizkizula gauzak; nik uste dut erosketak egiten ere bururatzen zaizkizula gauzak. (...) Lehengo egunean lagun batekin hitz egiten, esan zidan: “ideia bat izan diat poema bat egiteko” eta nik erantzun nion: “Ideia batekin ezin da poema bat egin”. Ezin da esan “honi buruz poema bat idatziko dut”. (...) Inspirazioa baino gehiago dira inpresioak; zentzumenarekin lotua dago. Begirada berezi horri inspirazioa deitzen bazaio ados egongo nintzateke, baina nik hitza *bururatu* dela uste dut. (...) Ez dut uste sakrifizio eta disziplinaren ondorio denik, ez“.

Kirmen Uriberentzat

inspirazio hitzaren esanahia (klitxeak albo batera utzita) *izpiak* izango litzateke. Pertsona bakoitzak izpi batzuk ditu ikusten edota irakurtzen duenetik sortutakoak; baina atzean formazio bat egon behar da, gogoeta bat, gero izpi hori zerbait izan dadin; bestela, polena bezala ez da ezti bihurtzen. Lan bat egin behar da polena ezti bihurtzeko. Erleak lana egiten du, ez da polena bakarrik.

Miren Agur Meabek, bestalde, “dudarik gabe, lanak ekinaren eta autoexijentziaren fruitua” izaten direla dio. Honez gain, uste du

ideiak ez dira bukatzen. Buka edo agortzen dena ideiak ganoraz gauzatzeko idazlearen erregistroa edo ahotsa da. Idazlearen meritua, teoriarik, hauxe da: zerbait esatea inoiz inork esan gabeko modua baliatuz. Idazle bakoitzak bere bilakaera dauka, bere erritmoa, eta bere inguruabarrak batzuetan mesedegarri ez direnak idazlangintzarako (estresa, egoera sozial eta politikoa, nekea...).

Iban Zaldua Miren Agur Meaberekin bar dator; izan ere,

nere ikuspegia gehiago joango litzateke disziplina modura ulertuta. (...) Jon Alonsok literaturari buruzko saiakera batean defendatzen du pixka bat ideia hori: nolabait idazleak ez garelako artistak, ez garelako jende espeziala. Hau da, idaztea igeltseritza bezala edo filologia bezala ikas daitekeen zerbait da. Filologia ikasten duten guztiak ez dira filologo onak, batzuk ere ez dute sekula filologia arloan lan egiten, baina denek ikasten dute. Gero dohaiak... Ni, adibidez, oso igeltsero txarra izango nintzatekeen, edo agian oso ona eta probatu ez dudalako ez dakit. Orduan, alternatiboki ados nago lan kontinuoarenarekin etab; profesionala baldin bazara, segur aski, bai sinistuko nuke horretan eta hortik aterako lirateke gauzak (...). Baina horretan baino gehiagotan sinisten dut, batez ere, irakurtzearen kontuan. Hori galdu ezin den disziplina bat da.

Harkaitz Canok ere antzeko azalpen bat eman digu:

Mesiasen era horretako inspirazioan ez dut sinisten. Beti esan den topikoa da inspirazioak ez zaituela sofan harrapatu behar, baizik eta lan-mahaian. Egotekotan inspirazioa hori da; azkenean zure ofizioaren ikasketaren zorrozte hori, zure armak, hitzak... (...). Niretzako hori da idazteko ofizioa, azkenean, noizbait izatekotan,

hobeto idaztera eramaten zaituena. Idazlearen eginbeharra da burutik eskura gero eta distantzia gutxiago egotea. Askotan oso ideia brillantea daukazula iruditzen zaizu baina gero idazten duzunean, zuk oraindik pentsatzen duzu buruan zenuena idatziz jarri duzula, baina ez; burutik eskura gauzak galdu dira. Gero, beharbada, konturatzen zara testu hori berrirakurtzen duzunean “nik esan nahi nuena ez nuen ondo idatzi”. Askotan ere, idazle batek uste du kristorena idatzi duela, baina, beharbada, kristorena zena bere buruan zegoena zen eta gero ez zuen ondo kristalizatu. Denborarekin sentsazio polita da idazten dugunontzat konturatzea eskuak eta burua gertuago daudela, bide hori txikiagoa dela. Hori oso sentsazio polita da, baina ofizioa menperatzearen sintoma da, ez da besterik.

Ramon Saizarbitoriak argi du, bestalde,

inspirazioa existitzen dela, baina bila dagoenarentzat. Inspirazioa, irudiak hor daude, historiak hor daude, mundua hor dago, munduaren alderdi triste eta pozgarriak hor daude... eta hor zaude. Zu bila bazabiltza, begira bazaude, esna bazaude eta gainera zure burua aztertzeo beharra baduzu, gauzak ikusiko dituzu; noizbehinka tristeak, adierazgarriak... txispa hori, txinparta hori saltaraziko duena edo argituko duena. Ez dut uste magikoa denik, nik uste dut ofizio guztietan gertatzen dela.

Argi utzi digute, beraz, ekinaren ekinez lortzen direla emaitzak eta ez direla bat-batean sortzen, aurretik inolaz landu ez bada.

Interresgarria deritzogu, baita ere, noizbait honen inguruan hausnartu duten jakiteari. Hau da, irakurleok askotan pentsatu izan dugu euren lanen bat gustatu zaigunean, ea nola bururatzen zaizkien ideia horiek; baina haiek horretan pentsatzen al dute?

Esaten denez, gutxi idatzi ohi dute haien liburuen lanketari buruz, hots, idazle gutxi hausnartzen dute zerk eramaten dituen idaztera eta nola idazteak haien umorean eragiten duen aztertzerara. Lan honekin, baina, idazleak norbere burua aztertzen jarri ditugu.

Harkaitz Cano eta Kirmen Uribe dira gai honekiko interesatuen agertu direnak, gainerakoek ez diote inolako arreta berezirik eskaini. Edonola ere den, Harkaitz Cano luze mintzatu zaigu honen inguruan eta ahalik eta hobekien laburbiltzen saiatuko gara:

Asko interesatzen zaidan zerbait da. Konturatzen naiz izan daitezkeela kanpotiko estimulo horiek, bada kantu bat izan daiteke. Nik idazten dudanean egiten dudan beste tranpa bat da, idazteko, musika erabiltzea. (...) Segun eta zein musika-mota entzuten dudan, nire animoa eta nire idazteko grina era batera edo bestera dago sentsibilizatu. Nik badakit jazz musika entzuten ari banaiz esaldi luzeagoak ateratzen zaizkidala (...). Atmosfera hori sortzeak bai laguntzen du eta niri ere gauak laguntzen dit. (...) Hizkuntzen asuntua azkenaldi honetan asko interesatzen zait. Sortzeko mekanismo polita da ondo menderatzen ez duzun hizkuntza batean irakurtzea. Zuk hartzen duzu ipuin bat ingelesez eta, nahiz eta, gutxi gorabehera ulertzen duzun, beti dago zerbait eskapatzen zaizuna. Orduan, hor ipuin paralelo bat sortzen ari zara zure buruan. (...) Askotan ezagutzen ez dugun hitz horrek edo zera horrek irekitzen du leiho bat; hau da, testu hori estankoa izan beharrean maleable bihurtzen du, mugitu daitekeena, zuk nahi duzun eran aldatu dezakezuna. Orduan konturatzen naiz gustatzen zaidala horrelako gauzak irakurtzea horretarako baita ere“.

Kirmen Uribek ere honen inguruan askotan pentsatu izan duela esan digu:

Gainera poema batek ez dauka zertan eduki behar jatorri bakarra, jatorri asko ere eduki ditzake. Orduan, ez dakit, agian *Bisita* poemaren barruan dago “ez dut lehen bezala bizitza osoa aurretik ikusten” esaldia “esaten zigan arrebak”. Esaldi hau P.P. Passoliniren poema batekoa da. Honek, beraz, egoera baten dauka lehendabiziko jatorria baina gero, idazteko orduan, bestelako gauzak sartzen dira. Azkenean norbera bere esperientzietatik bizi da, baina baita beste idazleen esperientzietatik ere, beste idazleek munduari buruz egin duten gogoetatik eta idatzietatik. Ni neu naiz, baina nik neuk ere badut nire esperientzia propioetatik aparte, beste autoreen esperientzietatik jasotako herentzia bat. Orduan, bietatik sortzen da.

Iban Zalduak honen inguruan seriooki inoiz pentsatu ez duela aitortu digu, baina bere lan bat egiteko ideia nola bururatu zitzaion azaldu digu:

Niri flashak bezala etortzen zaizkit ideiak burura eta normalean, paseatzen ari zarela edo pixka bat abstraituta zaudenean etortzen zaizu burura. Orduan, historialaria naizenez, nahiko enpirikoa naiz eta kasuak gogoratzen saiatzen naiz. Adibidez, duela urtebete inguru argitaratu nuen gazteentzako gauzatxo bat *Kea urgainean* deiturikoa eta nik oso garbi daukat non eta nola bururatu zitzaidan: Patxi Zubizarretak pasatu zidan ipuin bat (kasu honetan umeentzat, ez hainbeste gazteentzat) eta gaia zen kantinera izan nahi zuen mutil batena; alardearen kontu horren inguruan... Niri hor asko gustatu zitzaidan kontu bat: transgresioarena. Azken batean, mutilari ez zioten kantinera izaten uzten. (...) Ideia polita iruditu zitzaidan eta prozesu kontziente baten bidez, gazteei interesgarria iruditu zekiekeen eta pertsonaia batek errebeldia bat erakutsi zezakeen gai bat aukeratzeari ekin nion. (...) Niretzako kreaio prozesuan oso inportantea da istorioa, nolabait, lehenengo ideia hori, baina hori bezain inportantea da zer egiten duzun horrekin, nola ematen diozun horri buelta.

Miren Agur Meaberen ustez, “ideiak bristadak dira, toki askotatik heltzen dira, izpi-sorta baten moduan, espero ez dituzunean ere: leitu duzun liburu batetik, lagun bati entzundakotik...” Aurreko galdera baten esan bezala, “ideiak neure izatetik zein ingurutik hartzen ditut”, beraz.

Rikardo Arregik ere lehenago aipatu predisposizio horretan bilatzen du erantzuna:

Predisposizio bat duzulako momentu batean. Nik uste dut hori etortzen dela normalean adosleszentzietatik edo. Nik adosleszentzian deskubritu nuen hori eta orduan, hori lantzen saiatu naiz. Begiak irekita izatea, burua irekia izatea... eta “dejarne impresionar” esaten dena.

Ramon Saizarbitoriak ere ez du asko pentsatu gai honi buruz, “denborarik ere ez”. Berarentzat “literatura ez da hobby bat, zerbait serioagoa da. Esango nuke nire bizitzan gauzarik serioena literatura dela. (...) Uste dut bizitzen, burua orde-natzen, hobeto ezagutzen laguntzen didala”.

2.2. Ideien inguruan

Beraz, kontuan izanik inork ez duela inspirazioan sinisten, ideia horiek zerk sortarazten dituen jakin nahi izan dugu. Rikardo Arregik esaldi batean laburbiltzen

du: “gauza asko izan daitezke ideia bat burura ekartzen didatenak” eta gainerakoek berdin diote, oro har.

Miren Agur Meabek, esaterako,

ideiak neure izatetik zein ingurutik hartzen ditut: neuri gertatutako gorabehera bat, lagunei entzundako pasadizo bat, hedabideetatik iritsitako albiste bat... denak izan daitezke idazki baterako oinarri. Ez dago *a priori* poetikoak diren edo ez diren sentimenduak, objektuak edo egoerak. Dena den, funtsezko baldintza erne egotea da, zerk sortzen dizun zirrara edo ondoeza, hari kasu egiteko.

Ramon Saizarbitoriak pentsatzen du

izango dela mekanismo mental bat ikusten duzun zerbaitek edo norbere egoerak –sentibera egotea, malenkoniatsu egotea, edo alai egotea, edo pozik egotea...– errazago hurbiltzen zaituen ideia batzuetara beste batzuetara baino. (...) Egia da egoera guztietan ikusten dituzun gauza guztiek ez dutela adierazgarritasun bera, sentibera gozadela batzuetan beste batzuetan baino. Orduan, ikusten duzun irudi batek batzuetan inspiratzen zaitu, edo arrakasta du, edo zuk duzun zerbait azalarazten du edo kanporatzen du.

Hau guztiok unerren batean sentitu dugun sentsazioa da, baina berak jarraitu egiten du:

gauza da irekita, zabalik egotea, antena jarrita egotea... eta uste dut idazlearen alderdi onena hori dela. Idazlea idazle baldin bada antena jarrita dago; munduan adi egoteko modu bat da, esna egoteko modu bat da.

Rikardo Arregik ere hau bera azpimarratzen du: “Gauzak begiratzeko prest egon behar duzu eta zure aldetik predisposizio bat behar duzu, burua irekita izan behar da ia zer gertatzen den...”.

Kirmen Uribe antzera mintzo zaigu:

Idazteko ideiak sortzen dira momentu batean, baina idazteko, alde batetik, gogoeta egon behar da. Uste dut hori dela gauzarik inportanteena. Irakurketa bai munduarena eta bai tradizioarena, eta gero gogoeta bat. Gogoeta bat egiteko ikaragarritzeko denbora behar da, ez da momentuko gauza bat. Gogoeta egiteak denbora eskatzen du, hausnartze hitzak dituen bi esanahi horiek kontuan hartuta. Gero, poema bat sor daiteke irudi batetik, edo liburu batetik, edo egoera konkretu batetik... hori jada gogoeta horren islatze formala egiterakoan izango da. (...) Eta irudiak sortzeko jatorria toki askotan eduki dezake.

Harkaitz Canorentzat irakurtzea eta estimulo artistikoak dira, oro har, inspirazio iturri.

Inspirazioa izan daiteke pelikula bat ikustea eta esatea: “pelikula hori nola bukatuko nuke?” Eta gero iristen zara pelikularen bukaerara eta esaten duzu: “bada nik beste bukaera bat emango nioke; beraz, nik idatziko dut bukaera hori”. Orduan hartzen duzu pelikula horretako istorioa eta zuk bihurtzen duzu zure historia bat, (...) edo bestela, kanpotik jasotako gauza horiek jartzen didate martxan inspirazioa dei dakioken zera hori.

Honez gain, Canok berak aitortzen du orrialde asko dituela idatzita miopiari buruz: “Nik baditut folio asko idatzita miopiari buruz. Miopioaren gorazarre. Miopia estimulo sortzaile gisa”.

Beraz, ikus dezakegu norberak bere estimuloak dituela eta gauza ezberdinek pentsarazten digutela. Hori da, nolabait, Iban Zalduak esan diguna:

Nire kasuan askotan da irakurtzen duzun zer edo zer, ikusten duzun zerbait, zinean edo telebistan, edo kontatzen dizuten istorio bat eguneroko bizitzarena, edo oroitzapen bat ere izan daiteke inspirazio iturri. Dena dela, ez dut uste hor erregela finkorik degoenik.

Hau izango litzake idazle batek bete beharreko lehen urratsa, ideiak eduki-zea. Baina nola gauzaten dute ideia hori? Zerk bultzatzen die bide bat hartzera edo bestera? Hori izan da egin diegun hurrengo galdera:

Miren Agur Meabek

paperaren aurrean jarri eta tanteo bat egiten dut, ea zer ematen didan. Gerta daiteke hutsean geratzea. Beste batzuetan, idazteko mementuan, hariak harrapatzen zaitu eta badirudi bidea aurkitu duzula, baina agian biharamunean, bezperako beroaldia epeldu denean, ez diozu xarmarik aurkitzen idatzitakoari. Orduan, baztertu egiten dut. Sistema modura, ideiarekin zerikusia daukaten oharrak apuntatzen ditut (berba iradokiorrak, sentsazio pertsonalak...) zerrenda batean. Agian ez ditut denak erabiliko, baina ideiarentzako bidea aurkitzen laguntzen didate.

Rikardo Arregik

bururatzen zaizkidan ideiak apuntatu egiten ditut kuaderno batean. Gero behin eta berriro irakurtzen ditut, hortik zer atera dezakedan pentsatzen dut... Batzuetan hortik ezer atera dezakedala iruditzen zaidanean aparte uzten dut; bestela, hasi eta puntu batean jarraitu ezinik aurkitzen banaiz utzi egiten dut.

Iban Zalduak, bestalde, bi bide daudela esaten du:

Prozesua ezberdina izaten da: kasu batzuetan berehala jartzen naiz idazten, ideia etorri eta berehala ordenagailura joaten naiz eta beste batzuetan, askotan, ideiak buruan beratzen uzten ditut. Hau da, bueltak eta bueltak ematen edukitzen ditut buruan forma nahiko zehatz bar hartzen duten arte. Normalean, eseritzen naizenerako nahiko argi daukat zein izan behar den hasiera eta zein izan behar den bukaera; batez ere, ipunei dagokienean. Beste batzuetan eskema bat idazten dut. Hau da, pentsatzen badut zerbaitegatik ahaztu egingo zaidala edo ez dudala hor nabaritu dudan historiaren nabardunaren bat gogoratuko, apuntatu egiten dut. (...) Hala ere, inoiz gertatu izan zait itzuli esaldira eta pentsatzea: zergatik egin zidan honek grazia bere momentuan?.

Azken sentsazio honekin guztiak, edo gehienak, behintzat, bat badatoz ere, Harkaitz Canok ez du Iban Zalduak bezala egiten:

Bada gero eta gehiago itxoin egiten dut. Itxoiten dut ideia buruan nahiko elaboratuta eduki arte. Hau da, hor segur aski ipuin batekin edo historia batekin

asmatzeko gauza inportanteena hasteko momentua aukeratzea da. Zuk ez baduzu momentu egokia aukeratzen, hau da, zuk ideia buruan nahiko elaboratua daukazu, baina ez gehiegi. Gehiegi edukitzea, buruan oso argi edukitzea ere ez da ona, niretzako, hor dagoelako motibazioaren kontua. Zuk baldin badakizu oso garbi zein den hasiera, korapiloa eta bukaera ez daukazu tentsio hori, motibazio hori historia idazten hasteko.

Era berean, Ramon Saizarbitoriak ere aipatzen du historia idazten hasteko momentuaren garrantzia:

Mundu landu bat eduki behar duzu zure baitan, *background* bat, historia bat, esperimentzia bat; ia gauza bera da eremu zikoitz batean hazia erortzen baldin bada ez duela ezer sortzen. Askok ikusten dugu gauza bera eta jende bati gauza bat esaten dio, beste bati beste bat eta askori, gehienei, ezer ere ez. Hor sentiberatasun bat behar da. Horregatik neurri berean faltsua da inspirazioarena, zeren ideiak sortzen zaizkio bila dabilenari, edo adi dagoenari, edo erne dagoenari.

Azkenik, Kirmen Uribek adibide baten bidez azaltzen digu. *Bisita* poema

azkar idatzitako poema bat izan zen, egun batean idatzi nuen, momentuan. Baneukan barruan min bat eta hortik atera zen. Hasiera da Ondarruko toxikomano batek esaten zuena beti; nola askotan sexua baztertu egiten zuen, heroina hartzea zela hobe... Orduan, larrua jotzea da gorputzaren indarrik handiena, edo momentu alai bat; heroina larrua jotzea bezain gozoa zen, orduan pozik zegoen bera heroinarekin eta gorputza ere indar betean dago. Gero hortik pasatzen da gaur egungo egoerara, bigarren egoera horretara: nola gaisorik dagoen eta nola hilzorian dagoen. Nola idazten den hori? Bada badituzu irudi batzuk eta literatura beti da irudi horiekin jokatzea eta zer esaten duzun eta zer ez duzun esaten, batez ere, zer ez duzun esaten, ongi lantzea.

Berak esan duen bezala, *min* batek bultzatu zuen poema hau idaztera. Egun batean idatzi omen zuen. Errepikatu egiten dut; izan ere, konturatzea nahi baitut poema hau sortzeko Kirmenen barrenean oso errotua zegoen zerbaitek kanporarazi zuela. Alegia, poema egun baten idatzi arren, ordurako hamaika buelta emanak izango zizkiola seguruenik, agian baita inkontzienteki ere.

Orain arte ideiak zerk sortzen dituen eta ideia horiek nola gauzatzen ziren azaldu digute; baina jakin badakigu, beti ez direla ideia guztiak aurrera ateratzen. Hori zeren arabera den jakitea ere interesgarria deritzogu eta hona hemen jasotako erantzunak.

Harkaitz Canok ofizio kontua dela uste du:

Hori berehala ikusten duzu, zu konturatzen zara. Idazten bazaude sukar batean edo ikusten baduzu historia berez erortzen dela, edo plano geratzen dela... nik uste ofizio kontua dela; konturatzen zara, ez dakit. Ez dakit zeren arabera zehazki. Hori Zumetak esaten zuen; berak koadro bat egiten duela bi ordu segidan, hasi eta bukatu. Gustatzen bazaio galeriara saltzera eta ez bazaio gustatu txikitu eta beste bat egitera. (...) Ni horretan Zumetarekin bat nator: ez baldin badauka indarra sortzen den momentu horretan, hobe da utzi eta beste bat egitea.

Hau onartzen badu ere, bigarren zati bat eransten dio:

beharbada denboraren asuntua dago. Gauza bat da idazketa prozesua eta gero denbora hori ere beste faktore bat da ekuazioan idazten duzun hori salbatzen duena edo hondoratzen duena. (...) Orduan kajoian sartzen duzu eta uzten duzu, ahaztu denboraldi batez, eta gero ateratzean, denbora bat pasa da eta era objektiboago batean irakur dezakezu. (...) Baina azkenean gauza objektibo bat da. Zergatik erabakitzen du idazle batek balio duela ipuin batek eta beste batek ez? Non jartzen duzu kalitatearen unbrala? Azkenean gauza intuitiboa da.

Ramon Saizarbitoriak ere denboraren kontzeptua aipatzen du, nahiz eta, ez Harkaitz Canok ematen dion zentzu berarekin:

nik uste denbora dela; nire kasuan denbora da. (...) Nik uste inspirazioa, imaginazioa –norbaitek esan zuen– memoria fermentatua dela eta nik egia dela uste dut. Zuk jasotzen dituzu gauzak eta ideiak, irudiak (batez ere, nire kasuan irudiak), eta batzuek ez naute abandonatzen eta uste dut obsesibo bilakatzen direla eta orduan kanporatu behar dituzula. (...) Hori argi ikusten da hartzen dituzun notekin, hartzen duzu ideien nota bat eta handik hiru egunetara irakurtzen dituzu eta gehienak ez zaizkizu interesgarriak iruditzen. Baina generalean ez daukazu apuntatu beharrik, hori gelditzen da; batez ere, konfidantza dudalako merezi duena gelditzen dela; hain zuzen ere, filtroa dela memoriaren beste forma hori, ahaztea... Badago selektibitate bat, aukera bat eta bizi dituzun gauza batzuk joaten dira eta beste batzuk gelditzen dira. Denbora da aukera egiten duena.

Miren Agur Meabek gutxi gorabehera aurreko bien sintesi bat aipatzen digu:

Idea batek, batzuetan, bueltak ematen dizkizu buruan, baina beste batzuetan alde egiten digu. Hoberena da ideia horri bor-borka dagoenean eustea eta jorratzea, egarria kentzeko premia duzenean iturrira zoazen presa berberaz. Virginia Woolf-en esaldi batez baliatuz: Ezer ez da gertatzen oroimenean bilduta geratzen ez den bitartean. Paralelismo bat eginez, papera da idazlearen oroimena: ideia bat ez da ezer paperera isuri arte.

Kirmen Uribek, bestalde, erantzun zeharo desberdina eman digu:

Noiz jarraitu aukeratzen dut nire kezka bati, kezka estetiko bati, irtenbidea ematen dionean. Estetika da bizitzari buruz gogoeta egitea artistikoki. Nik kezka bat daukadanean eta ideia batek edo irudi batek balio didanean kezka horri irtenbide estetiko emateko, orduan egiten dut. Irudi bat, edo gertaera bat, edo anekdota bat... egon daiteke urteetan zure barruan, baina anekdotak eta irudiak irudi huts dira, edo anekdota huts dira. Gero gauzatzean, hori landu egin behar da zuk daukazun kezka batekin.

Azkenik Rikardo Arregik eta Iban Zalduek ez dute batere argi zerk bultzatzen dituen ideia horrekin jarraitu edo baztertzera, eta honela diote, hurrenez hurren:

Ez dakit zergatik aurrera jarraitu... oso arbitrarioa da. Nahi horretan zerbait egon behar da, baina ez dakit zer“ eta “Ez dakit nola erabakitzen dudan. Batzuetan da behartuta; hau da, zutabe edo testu bat idatzi behar duzulako. Daukazunari eusten diozu eta aurrera egiten duzu. Beste batzuetan ezin duzulako barruan gehiago eduki, hau da, buelta gehiegiz eman dituelako etab. Beste batzuetan hain brillantea iruditzen

zait, hain polita... bada eseri egin behar dut berehala ideia edo dena delako hori orde-nagailuratzeko.

Denen erantzunak kontuan izanda ere, aipagarria deritzot Ernesto Sábato-k bere haunarketa liburuan² idatzitakoari. Nolabait, gainera, Saizarbitoriak eman-dako erantzunarekin lotu dezakegu (nahiz eta, aurrerago, Kirmen Uribek ados ez dagoela esango duen):

Las obsesiones tienen sus raíces en zonas profundas menos numerosas. La más profunda pienso que es única y todopoderosa: es la que reaparece a lo largo de las obras de un creador verdadero, que siempre escribe sobre *un solo tema*. (...) Porque el tema no se puede elegir: hay que dejar que el tema lo elija a uno. No se debe escribir si ese tema (esa obsesión) no acosa, persigue y presiona desde las más misteriosas regiones del ser. A veces, durante años.

Bati baino gehiagori gogorregiak egingo zaizkio, seguruenik, Ernesto Sábato-ren hitzok, baina egia esan behar badut, erabat ados nago berarekin. Idazle baten obra guztia hartuz gero, beti dago euren lan guztietan komunean agertzen den elementuren bat. Hain zuzen ere, hori izan liteke idazle bat gustukoago (ala ez) izatean eragiten digun elementua. Esan nahi da, beharbada, idazlearen obsesio horrek edota obsesio hori azaltzeko moduak zenbat eta gehiago hunkitzen eta ukitzen gaituen, orduan eta gustukoago izango dugula idazlea.

Edonola ere den, iritzi bat baino ez da eta gaia interesatzen zaion edonorekin eztabaidatzeko modukoa, gainera.

2.3. Prozesuaren iraupena

Hariari tiraka jarrituz gero, ideiak gauzatzeko orduan, prozesuak ez du beti berdin irauten: batzuetan luzeagoa eta beste batzuetan laburragoa izaten da. Honen inguruan hausnarrarazi diegu:

Harkaitz Canok literaturan denbora neurtzea oso zaila dela esaten du eta Baskiat izeneko pintore beltzaren adibide polit batekin azaltzen digu horrekin esan nahi duena:

Berak, Baskiatek, esaten zuen bere inspirazio iturri zirela Picasso eta 5 urteko ume-en pinturak. Orduan, bere ajentearekin beti eztabaidak edukitzen zituen koadro batzuk oso elaboratuak zituelako eta beste batzuk hamabost segundutan pintatutakoak. Eta orduan galeristak esaten zion: "Baina koadro hori 6 ordutan pintatu duzu eta beste hori 11 segundutan; ezin dute prezio bera izan". Eta orduan, bere esplikazioa izaten zen: "bai, baina koadro hau egiteko beste horretatik pasa naiz; hau da, nere eskuko jestoak ikasi egin behar izan du beste koadro hau pintatzeko. Hau sinpleagoa da eta azkarrago egin dut, baina beste koadroko jakinduria hemen dago sinplifikatuta. Orduan hori da: askotan deskartatzen dituzun gauzetatik edo lehengo gauzetatik, hor inbertitutako den-bora hori gero ikusten da eta, beharbada, hurrengo testua askoz gutxiago kostatu zaizu egitea. Horregatik, denboraren kuantifikazioa konplikatu da.

2. Sábato, Ernesto. *El escritor y sus fantasmas*. Buenos Aires: Emecé, 1976; 268 or.

Miren Agur Meabek ere badu hemen nolabaiteko jakinmina:

Ez dago epe jakinik. Bestalde, misterioa da, niretzat ere, zergatik batzuetan berbak bere kabuz behar den tokian jartzen diren (alegia, esanahia eta edertasuna orekan) eta beste batzuetan, ordea, zergatik ateratzen diren bortxatuta bezala eta desgustura uzten zaituzten.

Kirmen Uriberen ustez

arrazoa da, nik uste, literatur gaiak haien momentua daukatela (...). Gauza bakoitzak bere momentua dauka, naturako denbora haiek bezala. Nire lagun batek esaten zuen loreak eta umeak bere sasoiari egin behar direla. Orduan, nik uste, literaturan ere sasoiak daudela bai liburuekin eta bai poemekin.

Rikardo Arregik, Kirmen Uribek esaten duenari pixka bat atxikiz, honela dio:

Bada batzuetan tirada batean idazten duzu poema osoa eta beste batzuetan gehiago kostatzen zaizu. Gainera, ez du zerikusirik poema neurtua ala neurtugabea izateak; gerta daiteke poema aske bat idatzi nahi izatea eta honek neurri zehatz batez idatzi beharrekoa baino buruhauste gehiago ematea.

Iban Zalduak ez daki zergatik izan daitekeen:

Ez nuke jakingo esaten. Nire kasuan, behintzat, kostatzen zaidanaren arabera. Batzuetan, dena delakoagatik ez duzu argi ikusten zein bide hartu... eta idazten jartzen zarenean gerta daiteke nolabait norabidez aldatzea, zuk zeneukan koadroa nolabait aldatzen duen zerbait gertatzea. Inoiz gertatu izan zait ipuin batean oso argi izatea hasiera eta bukaera eta gero bidean ipuinaren norantza aldatzea.

Azkenik, Ramon Saizarbitoriaren iritzia dugu, zeina besteengatik pixka bat aldatzen den:

Hori izan daiteke gauza pragmatiko bat. Zuk daukazu denboraren arabera egitasmoa zabalagoa edo laburragoa egiten zaizu. Nik uste dut hor norberaren egoerak zerikusia duela. Beste batzuetan, segun teknika nola menderatzen duzun, zerorrek zer baliabide dituzun ideia horietaz baliatzeko... Ez dakit zergatik ideia batzuk nobela bihurtzen diren eta beste batzuk ipuin. Nik joera gehiago dut luzera jotzeko, dibertigarria iruditzen zaidalako zerikusirik ez duten ideiak hartu eta horiekin jolas egin eta zerbait eraikitzea. Niri estrukturak eraikitzea gustatzen zait, batez ere, literaturan. Ez dakit zergatik gauza batzuek ematen duten artikulatu bat egiteko eta beste batzuek ematen duten nobela bat egiteko. Nik uste dut, neurri handi batean, izango dela –nik uste nire kasuan hori dela– zenbat daukazu gordea.

2.4. Idazleen helburuak

Oro har, Ernesto Sábato-k dioten bezala, 2 helburu nagusigatik idazten omen du idazle batek: alde batetik, idaztea joko modura har dezake (bera entretenitzeko, eta, era berean, irakurleak ere entretenitzeko; une bat pasatzeko eta pasarazteko; distraitzeko edo une atseginak igarotzeko) eta, bestetik, gizakiaren existentzian barrera aritzeko (norberaren burua hobeto ezagutze-

ko...). Noski, badira, Harkaitz Cano bezala, bi helburuak kontuan izaten dituenik:

Nik idazten dut, alde batetik, oso ondo pasatzen dudalako idatziz; hau da, ez ditut gauza asko ezagutzen idaztea adina plazer ematen didatenak. (...) Niretzako idaztea beti da gozada bat, beti izan da, gainera, 9–10 urte nituenetik. Bestetik, zerbait kreatiboa egiteagatik. Nik oso belarri txarra daukat, beraz, musika utzi egin nuen; oso txarra naiz pintatzen, pultso txarra daukat, beraz, pintura ezin egin... Beraz, gauza gutxi geratzen zait eta errezena idaztea da. (...) Ni dedikatzen naiz historiak sortzera eta nire despentsan fikzioa pilatzera; hori da nire lana. Baina baita plazerra ere. Biak dira eta, azkenean, zure burua ulertzera iristea. (...) Nolabait gauzak ulertzen saiatzea edo bestearen postura ulertzen saiatzea.

Edonola ere, makina bat izan daitezke idazleen artean topa ditzakegun helburuak: emakumeen esperientzia kreatiboa frogatzea, autobiografia egitea, ondorengoekin komunikatu nahia, irakurleekiko harremana sendotzea, “idazlea” izateko gogoia, gizartearekiko desadostasuna erakustea... Denak ere, zilegi diren helburu literarioak dira eta hauetako batzuk elkarrizketatutako idazleen artean topatzeko parada izan dugu.

Miren Agur Meaberen ustez

edertasuna sortuz komunikatzea da helburua, hartzaileari begiratzuz gero. Neure buruari begiratzuz gero, sentipenak, bulkadak eta gogoetak kanalizatzea. Sormenari etekina ateratzea premia bat da, kirolarientzat korrika egitea bezala.

Kasu honetan, elkarrizketatuen artean dugun emakume bakarria delarik, bizitzako beste arloetan bezala literaturan ere haien tartetxoa betetzen ari diren honetan, emakumeek izan ditzaketen helburuez galdetu diogu. Hona hemen zer erantzun digun:

Emakume idazle batzuek arreta eman diegu, erreparo gutxirekin, oso xehetasun intimoa, ikuspegi etxekoia baina ez tradizionalak hautatu ditugu, kanonean ageri izan ez diren esparru bitxiak azaleratu ditugu, baina hori dena geure izatea agertzeko egin dugula uste dut, zintotasunetik, ez bakarrik ariketa estetiko, erreibindikazioa edo pose kointurala egitearren.

Iban Zalduak uste du

hor bakarrik erantzun probisionalak eman daitezkeela. Hau da, denborarekin aldatzen doazenak. Garai batean idazten nuen, hasi nintzenean, behintzat, ligatzeko edo ligatzen ez nuelako. Atzera begira nahiko argi daukat horretarako idazten nuela. Beste garai batean, nolabait, izan zitekeen inguruko admirazioa sentitzeko, famagatik, nahi baduzu. Beste garai batean –eta hori zirkunstantzia pertsonalekin lotuta dago– izan zitekeen barruak askatzeko edo hain zuzen, nolabait, tristeziatik edo depresiotik irtetzeko bide bat. Uste dut motibazioak, alde horretatik, asko izan daitezkeela eta aldakorak dira denboran zehar. (...) Funtsean dagoena beti gauza bera da: historiak kontatzea; hau da, aktoa bera da helburua. Paulesek esaten du, azken batean, munduak eraikitzea dela; mundu errealek ez direnak baina mundu errealek bezain errealek izango liratekeenak. Uste dut hori dela gaur egun sinisten dudana eta gero beste motibazio batzuk egon daitezkeela inguruan, eta batzuetan

bat baino gehiago direla eta askotan aldakorrek direla denboran zehar. Funtsean munduak eraikitzeko grina, ipuinak kontatzeko grina dela uste dut.

Ramon Saizarbitoriak ez du argi zein helbururekin idazten duen, baina gauza batzuetan Harkaitz Canok esan duena ikus dezakegu:

Bai izango dut helburu bat, zeren gizakion ekintza gehienek helburu bat izaten dute. Beste gauza bat da onartzen dugun helburu hori edo argi dagoen edo ez. Nik uste dut ez dagoela argi eta inork ezin esan dezakeela garbi "hau da nire helburua". Jendeak topikoak erabiltzen ditu: maite nazaten, dirua irabazeko... baina nik ez dut sinisten. Nik uste dut oso konplexua dela eta nekez identifika daitekeela helburu bat. Noski, badaude profesionalak hori ofizio bihurtzen dutenak. Beharbada argiago dituzte gauzak, baina nire kasuan nik uste dut bizitzen laguntzen didala, neure burua hobeto ezagutzen eta beharrezkoa zaidan azterketa bat egiten. Zergatik ordaintzen du jendeak horrenbeste diru diban baten gainean etzanda analista bati gauzak kontatzeko? Bada, konplexua da eta nik uste dut horrekin zerikusirik baduela idazteak.

Rikardo Arregik ez du helburu zehatzik idazteko orduan:

Helbururik? Ez, gauza txukun bat egitea. Autoexigentzia maila bat badago. (...) Nik egiten dudanarekin gustora egon behar dut eta hortik irakurle posible batzuei gustokoa zaie eta besteei ez; baina norberari gustatzen ez bazaio, nola gustatuko zaie gainerakoei?.

Azkenik, Kirmen Uribek, Iban Zalduak bezala helburuak ezberdiak direla esan digu:

Helburuak ezberdinak dira; noski, kezka hori egon behar da, baina ez dut uste soilik gogoeta bide denik poesia, edo espresio bide... ez dakit. Helburua? Helburuak asko dira. Komunikazioa ere helburua da. Nik uste dut poemak izan dezakeen gauzarik handiena zentzua dela. Askotan esaten dugu "gauza honek ez du zentzurik": ez du zentzurik gerra honek, ez du zentzurik Egunkaria ixteak... Bada, poema batek zentzua izan behar du, bestela ez du balio (...). Eta zentzua izan behar du bai idazlearentzat eta bai irakurlearentzat, irakurle bakoitzarentzat eta bizitza hartu irakurlearen baitan. (...) Hori da poema baten azken helburua: irakurleak berea egitea, bestela ez du zentzurik. Irakurlerik gabe poesiak ez dauka zentzurik.

2.5. Norentzat idazten dute?

Idazle bakoitzak mundu desberdin bat du bere baitan eta ondorioz, makina bat mundu ezberdin interpreta ditzake irakurleak. Baina nahita egiten al da? Besterik gabe, idazleak bere nahia asebetetzeko idazten du ala irakurlea ere kontuan izaten du idazteko garaian?

Kirmen Uribek

oso-oso kontuan hartzen dut irakurlea; zeren azken batean literatura komunikazioa da. Nik uste dut norberarentzat idaztea, norbere obsesioak... Oso hotza iruditzen zait gauza bat soilik besteentzat idaztea; gainera, ez da benetakoa. Bai, nigatik, ni ahalegintzen naiz nire ustez ahalik eta gauza onena egiten, baina

idaztea ez da obsesio pertsonalen islatze bat edo sendotzeko egiten dudan gauza bat. Nik ez dut uste hori denik literatura. Literatura komunikazioa da.

Harkaitz Canok, bestalde,

idazten dut irakurle imaginario batentzat. (...) Batzuetan egiten duzu “zein izenburu jarriko lioke honi Enrike Vila Matas-ek?”, eman dezagun. Bai pentsatzen duzu irakurlearengan, baina irakurlea beti ez da berdina. Ondo etortzen da buruan irakurle zorrotz bat edukitzea, esaterako, “Xabier Gantzaraienek hau irakurriko balu, gustatuko litzaioke? Ez, bada orduan zakarretara”. Bai, idazten duzu zuretzako, aktibitatea gustokoa duzulako eta ondo pasatzen duzulako, baina ez da egia zure buruarentzat bakarrik idazten duzunik. Hau da, zure egoismo horretan, zure bakardade horretan, kontziente zara –nik uste idazlea kontziente dela beti– hirugarren irakurle bat dagoela ez dituen a ulertzen zure koadrila arteko txisteak (beraz, ez jarri gehiegi ez zaituenez zu ezagutzen), zure mundutik kanpoko norbait da eta horrela ere atera behar du zerbait liburu horretatik. Nik idazten dut hirugarren irakurle batentzat, baina irakurle mutante bat da. Hau da, komeni zaidanean aurpegi bat dauka, komeni zaidanean ez... Adibidez, gaztelarazko bilduma hori atera nuenean, izenburua jarri behar zitzaion; ez nion jarri nahi nire liburu baten izenburua, baizik eta beste bat. Orduan esan nuen: *Enseres de ortopedia inútil*. Ez da ale bat bera ere salduko, baina zeinen gustora geratuko naizen. Orduan, izenburu hori jartzean, nire asmoa zen eskaparate batean Enrike Vila Matasek liburu hori ikusiko balu, liburu horri begira geratu eta ea igual erosiko lukeen. Horregatik jarri nion (...). Orduan hori, irakurlea oso presente eduki behar dela. Ez da bakarrik zuk idatzi gogoak ematen dizuna eta lasai geratu. Nik buruan badut irakurle bat, baina irakurle mutantea da, mila aurpegi dituena.

Ramon Saizarbitoria honela mintzo zaigu honen inguruan:

Idazleak ez du bere buruarentzat idazten, beste batentzat idazten du. Baina ez derrigorrez askorentzat. Nik uste berdin idatziko nukeela hamar irakurle izango banitu edo dozena bat irakurle. Gauza da beste bati ematea, beste batzuei ematea. Bost mila irakurle izatea edo hamar mila, edo hogeit mila –hobe hogeit mila izatea, baina– ez zait iruditzen aldatzen denik. Gauza da norbait edukitzea: bi, edo hiru, edo lau. Zure mundua beste norbaiti ematea. Uste dut hor dagoela salto kualitatibo bat: zurea den gauza bat beste batekin konpartitzen duzunean eta beste horrek onartzen duenean, beste horrek nobela bezala irakurtzen duenean eta sinisten duenean, sinesgarria iruditzen zaionean... horrekin nahikoa da. Niri, behintzat, horrekin nahikoa zait. Noski, gero arrakasta badu hobeto, baina uste dut printzipalena beste norbaitekin konpartitzea dela.

Iban Zalduak ere garbi dauka ez duela berarentzat idazten:

Besteentzat idazten dut. Hau da, lehenago beti da zuretzako, baina normalean, saiatzen naiz ez irakurtzen gero, argitaratu denean, nirekiko lotsa ematen dit. Bai, kanporako idazten duzu. Nik, behintzat, besteentzako idazten dut. Esaten dizut, hasiera baten zuretzat da, zeren zuretzat esanguratsu izan behar du mugitzen zaituen horrek, baina idazten jartzen zarenean pertzeptzioan, harreran pentsatzen zaude.

Neurri batean, hau da Rikardo Arregik aurreko galderekin batera erantzun diguna, eta Miren Agur Meabe ere iritzi berekoa da:

Gaur egun gehiago pentsatzen dut irakurleengan lehen baino (seguruenik idazleago naizelako eurentzat ere), baina oinarrizko lema neure buruari hauxe esatea da: lehenengo, zeu asebate behar zaitu. Idatzitakoak ez bazaitu betetzen, ez bota aurrera.

3. IDAZLANAREN ASPEKTU DESBERDINAK

Kontu abstraktuak alde batera utzita, lanetan barneratu gara hurrengo zenbait galderetan. Lan edo obra batean hainbat aspektu azter daitezke eta berauen antolamendutik hasi gara.

3.1. Lanaren antolamendua

Literatur lan batek antolamendu zehatz bat izan behar du nahitaez? Hauek dira, bakoitzak bere generoa kontuan hartuz, erantzun dizkigutenak:

Ramon Saizarbitoriak baietz uste du, antolamendu zehatz bat izatea ezinbestekoa dela:

... uste dut, gainera, arazo bat, hain zuzen ere, hori dela: kontatzeko dagoen historia, esperientzia... bakoitzak bere egitura behar duela. Letra bakoitzak musika bat eskatzen duen bezala, musika batek letra... askotan gakoa hor dagoela uste dut; hots, egitura aukeratzean asmatzen. Nik esango nuke nire bertute nagusiengatik hori izan dela: kontatzeko nuena kontatzeko zegokion egitura definitzerakoan *asmatu* dudala. Berez, egitura bat eskatu beharko luke, bai. Historia bakoitzak eskatzen du egestura, jolas... desberdina eta askotan asmatzean dagoela, biak ezkontzean dagoela "exitoa"; lorpena hor dagoela. Bai, dudarik gabe historia, esperientzia... bakoitzak egitura bat eskatzen du.

Kirmen Uribek ere antolaketari izugarritzko garrantzia ematen dio eta berak poesiara ekarri azaldu digu:

bai, dudarik gabe. Poema guztiek daukate egitura jakin bat; guztiek ez, bakoitzak. Bakoitzak dauka bere egitura eta egitura oso-oso ondo landu behar da. Hasierako esaldiak, nolabait, zabaldu egin behar du poema eta bukaerakoak itxi, edo, behintzat, erdi itxi edo zabalik utzi. (...) Nik uste dut poesian gauzarik inportanteenak direla erritmoa eta egitura, nola egituratu. (...) *Saguzaharra* poeman, esaterako, "saguzahar bat dut sabelean" (...). Hasierako esaldi bat dago eta hasierako esaldi horren bariazio ezberdinekin osatzen da poema. Nik horrela egiten dut behintzat.

Miren Agur Meabek

poema bati kritika dakioko berba multzo harmoniko hutsa izatea, alegia, bata bestearen ondoren erortzen utzitako berba-piloa soilik izatea, mami gutxikoa izatea, hain zuzen. Antolamenduak badauka zerikusirik idazlearen nortasunarekin eta jarrerarekin, baina itxurazko antolamendu-falta bestelako aldarrikapen baten seinale izan daiteke, idazkera-estilo kontzientea, munduan sumatzen den anabasa adierazteko baliabide bat. Baina ondo egiten jakin behar da.

Rikardo Arregi ere antolaketaren aldekoa da:

Irakurlearengan pentsatu behar da antolamendua egiterakoan, baina baita liburuaren antolamenduan ere. Izan dadila gauza bat ez oso simetrikoa, baina testuen artean koherentzia bat mantendu behar du. Ni konturatzen naiz liburutetan beti agertzen dela hitz bat, edo hitz pare bat, edo esaldi bat... igual bost poema desberdinetan agertzen dena; orduan, haien arteko erlazioa dute eta horrek ere ematen dio antolamendua liburuari. Bi-hiru ildo poema guztietan egotea ez, baina poema askotan egoteak koherentzia puntu bat ematen dio lanari.

Iban Zalduak lan orok antolamendu zehatz bat izan behar duela pentsatzen du, baina antolamendu hori poesian nobelan baino garrantzitsuagoa dela esaten du:

Zenbat eta gehiago urrundu poesiatik orduan eta gutxiago behar da antolamendua. Bai sinisten dut, eta uste dut, hori dela lanaren zati importante bat: lan egiten duzun lehengai horri forma zehatz bat ematea. Azken batean, Borges-ek esaten zuenarekin (dena dago idatzita; orduan, zertarako idatzi?) lotu dezakegu. Idazten da, alde batetik, jarduera historikoa delako; hau da, denborak aurrera egiten du eta denborak ez dira berdinak. Orduan, belaunaldi bakoitzak bere irakurketak behar ditu, nahiz eta, gauza berdinen irakurketak egin. Bestetik, nahiz eta historia berdinez idatzi, kontua da era ezberdin batean antolatzea hori. Antolaketa da alde horretatik egin daitekeen ekarpenetatik inportanteenetakoa.

Harkaitz Canorentzat, azkenik,

badago niretzat puntu obsesibo hori, etengabe pilotu automatikoarekin materiala biltzen joatea edo gero hori nola birkolokatu. Badago ere jende oso obsesiboa, eta obserbadorea, eta zorrotza dena gauzak jasotzen, baina gero hori bolkatzen duenean era desordenatu batean bolkatzen duena, edo poema bat izan zitekeenean ipuin bihurtzen du eta igual ez du hain ondo funtzionatzen.

Ikus dezakegunez, denek ematen diote garrantzia lanen antolaketari, baina Harkaitz Cano idazteko garaian duen antolamenduaz (edo antolamendu ezaz) ere mintzatu zaigu:

Ni hortan nahiko askea naiz, ez naiz antolamendu gehiegizko zalea. Antolamendu gehienak askotan gauza artifizialak sortzera eramaten zaitu, oso metodoko gauzak. Nik uste dut antolamendu minimo bat behar dela, baina behar dela baita ere margen handi bat zure kaxa ibiltzeko. Ni normalean, bukaeratik idazten hasten naiz; ez beti, baina bai askotan. Bukaera idazten dut eta hasieratik hasten naiz; gero, bukaerara iristen naizenean aldatu egiten dut. Orduan, bukaera horrek bakarrik balio dit ibilbidea egiteko, baina gero ibilbide horrek bukaera desberdin bat ematen dit.

3.2. Pertsonaiak

Dudarik gabe, aintzat hartzekoa da Canok dioskuna, baina lanaren egitura alde batera utzirik, pertsonaiei dagokienean murgilduko gara. Kasu honetan askotariko erantzunak jaso ditugu.

Ezer baino lehen, eta idazleek pertsonaiekin duten harremani gagozkiorarik, hausnarketarako puntu bat botatzea gustatuko litzaidake: Nire ustez idazleek harreman estua dute asmatzen dituzten pertsonaiekin. Idazle *on* batek ezin du soilik kalean zehar ikusi eta aztertutako gizon bat deskribatu, bigarren mailako pertsonaia ez bada, behintzat. Idazleak arreta une batez galduz gero, kalean topatutako gizontxo hori bere bidea egiten hasiko da; esan nahi da, autoreak berak egingo lukeen bidea egiten: autorearen ilunpeko alderdiren bat bezala mugitzen, pentsatzen eta sentitzen hasiko da. Hau da, batzuetan pertsonaiak idazleek uste ez bezala jokatzeko hasten dira, autorearen kontra nolabaiteko iraultza altxatuz. Idazleak pertsonaia baten ezaugarriak alde aurretik finkatuta eduki baditzake ere, pertsonaia hori nobelan barneratzen denean bere kabuz mugitzen hasiko da. Honekin esan nahi dudana da, literatur lanetako (eta, batez ere, nobeletako) pertsonaia nagusienak egilearen arimatik atera ohi direla.

Hori bera baieztatzen digu, nolabait, Iban Zalduek: “lehenengo ideiarekin batera pertsonaia badatorkizu” esaten du.

Nire ipuingintzan, hala ere, pertsonaiak nahiko indeterminatuak dira. Azken batean, nahiko “ni” dira; orduan ni egon naiteke adosago nere buruarekin edo ez hain ados, baina ezin dut sahiestu ni izatea. Onartu behar dut hor dagoen pertsonaia, hein handi batean. Gertatu izan zait, hala ere, sexua aldatzea, ikustea gizonezko batek ez zuela jokorik ematen pertsonaia bezala. Adibidez, *Lumumba*-n emakume bat da protagonista, baina hasiera batean gizona zen. Hala ere, iruditzen zait agian irakurleari ez zaiola hain inportantea iruditzen (...). Ez nuen itxaron bukaerara arte, itzuli nintzen hasierara eta orduan pertsonaiari beste izen bat eta beste biografia bat erantsi nizkion. Iruditzen zitzaidan hobeto funtzionatzen zuela emakume bezala (...).

Rikardo Arregik oso bestelako erantzuna eman digu:

Ez dira nobeletako pertsonaiak bezala. Dagoeneko montatua dago, ez dago zertan pertsonaia garatu. Pertsonaia poemetan irudi bat izan daiteke. Badu sinbologia bat, esanahi bat du. (...) Ideia edo begirada horien arabera aukeratzen dira. Batzuetan emakume bat agertzen zaizu; adibidez, “Zin-egite telefonikoak” poema, emakume bat telefono kabina batean negarrez, erosketa poltsak lurrean botata ikusi nuelako egin nuen. Izan daiteke pertsona ezagun bat edo izan daiteke liburu batean ikusi duzun pertsonaia bat, edo beste ikasle bat edo... zer edo zer, begirada hori edo buru ireki hori sortu dutenak. Igual nobelan pertsonaia bat garatzen doa, lehenengo kapitulutik bukaerara gauzak gertatzen zaizkio; baina poemetan igual irudi bat izan daiteke.

Ramon Saizarbitoriak, bestetik,

uste dut nire kasuan pertsonaiek ez dutela indar gehiegi, egituraren zerbitzuan daudela. Nik ez ditut alde aurretik pertsonaiak definitzen eta perfil psikologiko bat egiten; nik ez ditut nobela psikologikoak egiten. Noski, hezurdura bat ematen diezu eta gero bete egiten da, eta, azkenean, pentsatzen dut, nire pertsonaiaren bat mamitzea lortzen dudala (...), baina nire nobeletako pertsonaiak oso funtzionalak dira (...). Beharbada horregatik ez dute gorputz sendoa nire pertsonaiek (batzuek gehiago beste batzuek baino). Uste dut nire lanetako pertsonaia batzuei balegokeela arpegia jartzea, gutxi gorabehera imajinatzea zer edo nolakoak izan daitezkeen, baina generalean ez naiz Dostoyevski bat bezala (...).

Harkaitz Canok bestelakoa dio:

Beti diferentea da. Askotan historia baino lehenago pertsonaia daukazu. Lehen-goan ezagutu nuen pertsona bat oso *tik* berezia zeukana eta hitz egiten zuen mires-ten zuen halako pertsona bati buruz eta gero honelako keinu bat egiten zuen (burutik txapela kentzen bezala). “Nik horrelako pertsona baten aurrean txapela kentzen dut” esaten zuen. Eta gero berarekin egoten zara eta keinu hori hogeita hamar aldiz egiten du. Hau da pertsonaje bat literarioki manipulablea, fikziozko materiala. Orduan, inspi-razioan gehiegi sinisten ez dudan bezala, sinisten dut idazlea bezalako ofizio batek behar duela obsesibo puntu bat. Idazleak behar du puntu bat, ez dut esango gaixo-bera edo enfermizo, baina bai, puntu hori fikziozko materiala berarengana erakartze-ko. Eta fikziozko materiala batzuetan pertsonaia bat da, beste batzuetan esaldi bat...

Azkenik, beste ikuspegi batetik, Miren Agur Meabek esandakoa dugu: “Per-sonaia baino gehiago, egoera bat hartzen dut oinarritzat halakoetan. Eta gero, pertsonaia, apur-apurka eratzen da, istorioak tira egin ahala”.

3.3. Narratzailea

Literaturan, eta, batez ere, nobeletan, narratzailearen ahotsa ondo erabiltzen jakiteak berebiziko garrantzia du. Horregatik, narratzaileari buruz ere galdetu die-gu halakoa erabiltzen dutenei.

Iban Zalduren esanetan,

alde batetik, ni nahiko eskema estuetan mugitzen naiz; hau da, nire ipuingintza oso tradizionala da. Nire ereduak XIX. mendeko ipuin literarioaren hasierakoak dira, Poe-k inaguratutako linea hori, nolabait, oso borobilak diren ipuinak, bukaerak indar asko dauka normalean, artefakto moduan independentzia bat dauka; hau da, nahiko urrun sentitzen naiz Chejov, Carver...-engandik. Orduan, alde horretatik bariazio posi-bleak ez dira oso handiak. (...) Lehenengo pertsona, bigarrena edo hirugarrena era-biliko duzun, ahots ezberdinak tartekatuko dituzun, elipsi maila handiagoa edo txikia-goa izango duen... Gauza horiek, nire kasuan, behintzat, ez daukate zerikusi handirik inspirazio momentu horrekin, baizik eta mahaian jartzen zaren momentuarekin. Hau da, jada paperean edo ordenagailuko orrialde txuriaren aurrean erabakitzen da eta gero, gerta daiteke, aurrera egin ahala, erabat aldatu behar izatea (...). Nik arazoak izan ditut lehenengo eta bigarren pertsona erabiltzean.

Harkaitz Cano narratzailearekin bere buruari zailtasunak jartzen saiatzen da:

nire berezko joera da: askoz ere errazago idazten dut lehenengo pertsonan hiru-garrenean baino; beraz, orain arte askotan propio nire burua hirugarren pertsonan idaztera behartu dut. Justu honengatik. (...) Niretzako narratzailea hori da. Bilatu behar da esfortzua suposatuko dizun narratzaile bat; hau da, ez dela ona sueltoegi idaztea. Askotan barrera bat jarri behar duzu esku bat lotuta edukitzeko. Entrenatzeko kontua da hori ere, muskulu kontua da. (...) Gero itzuliko naiz lehenengo pertsonan idaztera, baina distantzia hartzeko edo gero zure erraztasun hori ere baloratzeko. Zure erraztasuna lehenengo pertsonan da, baina hartu dezadan distantzia eta egin dezadan hirugarren pertsonan. Hobeto geratuko zela jakinda ez dut inoiz aldatu, baina batzuetan lausoa da muga hori: lehenengo pertsonak abantaila batzuk ditu eta hirugarrenak beste batzuk. Orain gogoia daukat lehenengo pertsonan idazteko, baina

pasa dut denbora dezente hirugarren pertsonarekin. Oztopoak jarri behar dizkiozu zeure buruari, ez dadila dena laua izan.

Harkaitz Canok egiten duen joko hori Ramon Saizarbitoriaren ezinbesteko tresna bilakatzen da:

Hots hori ezinbestekoa zait niri. Garai batean nik uste dut *Nouveau Roman*-en arauen morroitzia gehiago nuela: objetibitatea. Azken boladan uste dut hori traizionatu dudala edo gairiditu dudala eta ez zait asko inporta arauak ez betetzea. Lehen garrantzi handia ematen nion horri, narratzailearen objetibitateari, baina orain ez zait inporta hortan koherentziarik ez baldin badago. Uste dut *Nouveau Roman*-etik apartatzen ari naizela; hertsiegia egiten zaidala kontatzeko eta momentu honetan eklektikoa sentitzen naiz: denak balio du eta hor konpon. Ez zait inporta. Zerbait hobeto zehazteko dialogoa behar badut dialogora jotzen dut, narratzaile omnipresente, omniboro eta omniguztia behar badut ere. Gauza da esateko dudana adieraztea eta, azken finean, zera horiek guztiak korseak dira, mesede gehiegirik egiten ez digutenak eta nahiago dut libre ibili eta oso koherentea izango ez banaiz ere, eklektikoa izatea.

3.4. Gaia

Literatur lanen beste funtsezko atal bat gaiak dira. Obra ezberdinetan askotariko gaiak topa ditzakegu eta makina bat aukera proposatu izan dira literatur lan batek izan beharko litzuzkeen gaien inguruan; hala nola, denbora, heriotza, etorkizuna... existentziaren inguruko gaiak, azken finean. Baina ba al dago gairen bat idazleek kontuan hartu beharko luketena edo arreata bereziren bat eskaini beharko lioketena?

Idazleen erantzunak eman aurretik, eta ideien atalean esandakoari atxikiz, esan dezakegu baita ere idazlearen barren-barreneko obsesio bat izan daitekeela lanaren muina? Ni baiezkotan nago eta gai dibertsitatea ez litzateke, hortaz, idazle multzo baten obsesio desberdinen erakusgarri baino izango. Proposatutako uste honetatik ez dira asko aldentzen elkarrizketatutako idazleen erantzunak. Ikus ditzagun:

Miren Agur Meabek idazleek kontuan hartu beharreko gairik ez dagoela uste du: "Printzipioz, ez, eta horretan datza aberastasuna. Hala ere, interesgarria iruditzen zait idazlanetan balio positiboak igortzea, minimalismora jo barik".

Ramon Saizarbitoriak ere ez du horrelakorik uste:

Ez, iruditzen zait ezetz. Idazlea ez dago inori ezertan laguntzeko; nik gero eta interes gutxiago ematen diot idazlearen funtzio sozialari eta gauza horiei. Nik uste dut lehendabiziko beharra neure buruarekin dudala; horrek eramaten nauela idaztera eta ez dudala idazten mundua salbatzeko, ez euskara sendotzeko, ez aberria egiteko; baizik eta neure buruarekin kontuak konpondu nahi ditudalako. Gertatzen dena da, normalean, idazleak ere baduela bere etika bat, baditu bere ardurak eta alderdi horretatik ere, iruditzen zait, nik badudala ideologia bat, baina ez dut nire ideologia traizionatuko, baina ezta defendatuko ere.

Rikardo Arregik, bestalde,

Bizitza bera eta mundua; hau da, dena. Ez dakit nola esan. Azken finean, begiradaren kontu hori da munduari buruz daukazun begirada bat, munduaren gainean jarri duzun begirada bat. Begirada ironikoa, konpasiboa, errukian oinarritutakoa, hotza... oso bariatua izan daiteke. Noski, zuri beharbada gehiago gustatuko zaizu gai bat edo beti aterako zaizu nahigabe gai bat, baina niri, adibidez, oso zaila egiten zait ezagutzen ez dudan zerbaiti buruz idaztea. (...) Ez baduzu hori gertutik bizi, ezin duzu jakin benetan zer sentitzen den. Agian gauza on bat egin dezakezu, baina nire susmoa da egin dezakezun hori gertuago egongo dela ariketatik.

Hona zer dioen, bestalde, Iban Zalduek:

Niri inbidia ematen didate gai bat daukatenean, proiektu literario bat daukatenean. Batzuek oso argi daukate zeri buruz idatzi behar duten, baina ez da nire kasua. Gero, atzera begira, ikusten duzu beti daudela gai berberak bueltak, bueltak eta bueltak ematen; baina nik ez daukat hori kontzienteki barneratuta, ez daukat literatur programa bat. Atzera begira nahiko argi ikusten dut zer egiten dudan eta hortik ateratzen ditut kontaktzen dizkizudan hainbat konklusio, eta zer gai mota erabiltzen ditudan, zer egiten dudan behin eta berrero, zer errepikatzen dudan... baina ez da kontzienteki aurrera eramaten dudan lan bat. (...) Nik, benetan, inbidia diet gauzak hain argi dituzten idazleei, nik ez baitauzkat.

Kirmen Uribek gai bakarra ez dagoela eta zera dio, neurri batean, Rikardo Arregik esaten duenarekin lotzen delarik:

Gai asko daude, ez dago gai bakarra. Inportanteena uste dut ikuspegia dela eta ikuspegi horren barruan, ez nuke esango bizitza denik poesiaren lehengaia. Lehen hori pentsatzen nuen, baina orain ez. Ez dut uste bizitza denik, zeren bizitza lehengai gisa hartuta poema oso on bat edo oso txar bat egin dezakezu. Ez dut uste bizitza denik gaia edo lehengaia, baizik eta begirada gehiago. Uste dut begirada inportanteagoa dela. Beti ez gara bizitzan oinarritzen idazteko; nik uste aurreko tradizio osoan oinarritu behar dela. Azkenean, bai bizitzatik, baina bai literaturatik ere abiatzen gara sortzeko. Hizkuntzak berak badauka esaldiak sortzeko ahalmena, berez, hitzen arteko loturagatik. Orduan, nik hiru alde horiek ikusiko nituzke: alde batetik tradizioa, hizkuntza eta gero bizitza bera, baina ez bakarrik bizitza.

Bukatze aldera, Harkaitz Canok nahiago du bere minaren berri ematen diona:

Nik estimatzen dudana idazlea da bakoitzak berea, baina bere minaren berri ematen didana, nahi baduzu era umoretsu batean. Denok dauzkagu grina batzuk, eta kezka batzuk, eta obsesio pertsonal batzuk; eta nik ikusten badut idazlea ezagutu ondoren idazten duena bere zera hortatik asko urruntzen dela, pixka bat hotz uzten nau. Nik uste badela bakoitzaren testigantza, hasteko, baina ez testigantza bere garaiarena edo bere ogibidearena, baizik eta bere minarena. Hau da, nik hitz egin dezaket Cansas City-ko granjero bati buruz, baina azkenean nire minari buruz hitz egiten egon; eta kontrakoa: idatz dezaket Donostiako idazle baten historia, baina erabat gauza anodinoa. Orduan, nik gaia baino gehiago estimatzen dut idazleak bere kezka, bere minak kontaktzea. (...) Orain asko interesatzen zaidana da, batez ere, nola harremanak eta jendea iragazkaitzak diren: jendea jendearekin aldatu egiten da eta elkar kutsatzen dugu. (...) *Pasaia Blues*-en hori zen nire asmoetako bat (ez dakit gero lortzen zen), ikustea nola bi pertsonaia elkarrekin bizi diren. Batak

esaten du gauza bat, besteak bestea, eta ematen du paralelo doazela, bakoitzak berea, baina konturatzen zara piskanaka, baten ideiak eta ikuspuntuak bestearengan eragiten duela, eta alderantziz. Orduan, nobela bukatzen dute kontrako lekuan. Hori interesatzen zait. Gero eta gehiago interesatzen zait baita ere, sistematizatzea sorkuntza bizitzan eta bizitza sorkuntzan (...). Gustatuko litzaidake jendeak egiten dituen gauzetan sorkuntza presente izatea. Hau da, ez sorkuntza literarioa; gustatuko litzaidake jendeak gauetan hortzak zepilatzen dituenean, adibidez, kantu bateko perkusioa jotzea. Hau da, hortzak zepilatzea bokazio artistiko batekin, halako kantu baten erritmoa jarraituz. Hori, bizitzako gauza txiki horiek, eta bizitzako gauza txiki horiek nola zorrotzu eta nola atera poetika bat. (...) Nola denborak eta urteak aurrera doazen eta nola markatu denbora hori. Nola instanteei, denborari, gertaerei zapo-
re bat eman, musika bat eman, gero ez edukitzeko egin ez dugunaren sentsazioa. (...) Baskiat-ek egiten zuen: bere koadroen gainean egiten zuen lo, bere *loftean* eta han daude bere argazkiak lientzoaren gainean pintatzen, eta bitartean kafea hartzen ari zen, eta kafea erortzen zitzaion eta esaten zuen: “bada ondo datorkit, marka bat behar zuen hemen” eta orduan, pixka bat luzatzen zuen eta halako irudi bat egiten zuen. Ez dakit zeinek deitzen zion eta bere telefono zenbakia lientzoan idazten zuen; gero, berarekin haserretzen zenean borratu egiten zuen, baina hala ere, ikusi egiten zen zenbakia (...). Baskiat-ek ikusten zituen bere koadroak eta bere egunerokoak ziren eta hor bazegoen bizitza eta egiten zituen gauzen artean oreka bat, konjuntzio bat: gauza bera ziren.

3.5. Lanaren amaierako sentsazioa

Lana bukatzen duteneko sentsazioa “post partum”-eko depresioarekin konparatu ohi dute idazle askok, nolabait, lana eurengandik ateratzen eta aldentzen baita mantxo eta era mingarri batean. Batzuek, gainera, beste inoiz kontatzeko ezer izango ez dutela pentsatzen omen dute.

Gure idazleen artean ere, askotariko sentsazio eta erantzunak jaso ahal izan ditugu.

Miren Agur Meaberekin hasiz, “pentsatzen dut kezka bat kendu dudala, *bufa* egiten dut eta laster, beste asmo bati ekin behar diodala, ea laster zerbaitekin engantxatzen naizen idazten jarraitzeko”.

Kirmen Uribek, bestalde, hona zer esan digun:

Antsietatea sortzen da, momentu batean hustuta bezala sentitzen zara, baina gero denbora pixka bat pasatzen denean beste gauza batean sartzen hasten zara eta egin duzun horrek bizitza hartzen du bere kabuz. Liburua bere kabuz bizi da eta hori da politena. Ume bat edukitzen duzunean bezala; azkenean, umeak bere bizitza dauka. Hasieran depresioa izaten duzu umea edukitzen duzunean –emakumeek behintzat– eta gero umea hazten da eta bere bizitza dauka, beste pertsona bat da... eta liburuek ere haien bizitza hartzen dute. (...) Dylan-ek esaten zuen diskoak soilik direla, ez direla ezer gehiago. Orduan, disko bat bukatzen zuenean beste batean pentsatzen hasten zela. Horrek ere askatasun sentsazio bat ematen dit. Bai, inportantea da oso zorrotza izatea, baina beste alde batetik ez da arte lan bat. Esan nahi dut, ez diozu gehiegizko garrantzia eman behar, bestela ez baitzenuke hurrengo liburua idatziko.

Rikardo Arregik

hustutze ba izan duzula. Libratu egin zara barnean zenuen gauza batetik, aske gelditu zara momentu batean. Gero, batzuetan, ase sentsazioa ere izaten dut; gustora zaudela (beno, gustora baldin bazaude). Ni orain arte egin ditudan gauzeekin gustora gelditu naiz, oso gauza gutxi aldatuko nituzke nik.

Hiru hauen kasuan, beraz, nolabaiteko kezka edo pisu bat kendu dutela sentitzen dute. Gainerakoek, aldiz, lanaren arabera sentsazio ezberdinak izan dituzte:

Harkaitz Canok beti diferentea dela dio:

Izan daiteke liberazio bat, izan daiteke pena ere (...). Niretzako da itsasora botila botatzea bezala, zuk zure mezua hor idatzi duzu, itsasora bota duzu irakurle hori presente edukiz, baina, bestalde, inolako itxaropenik gabe eta zerarik gabe mezu hori bueltan etortzeko. Hau da, nik bota dut eta jada liburua ez da nirea. Liburuarekiko desatxekimendu bat bezala da, jada zuena da, jada ez da nirea. Gero, noiz edo noiz bueltan etortzen bada mezu bat edo zerbait, bada oso ondo, baina bestela, niretzako nik liburuarekiko daukadan erantzukizuna argitaratzen denean bukatzen da. Hortik aurrera irakurlearena da, baldin badago.

Canok hitz egiten jarraitu du eta Kirmen Uriberekin bat egiten du liburuak bere bizia egiten dueneko uste horretan:

Gero egia da liburuak bere burua idazten jarraitzen duela askotan. Hau da, liburua idatzi ondoren gauzak gertatzen doaz. Adibidez, Nueva York-eko liburuan. Hori atera zen dorreena baino lehenago eta orain irakurtzen duzu –ez dut esango profetikoa denik, zeren ez da hori– eta badago kapitulu bat suteei buruz, eta beste bat hegazkin istripuei buruz, eta bada pasarte bat dorre bikiei buruz, zeinetan esaten dudan haserre zeudela elkarrekin eta ez zutela ondo bukatuko. Orduan esaten duzu: “nik hori idatzi nuen, baina gero dorre bikiek hor jarraitzen zuten”; eta gauzak pasatzen doaz eta gauza horiek datoz nolabait liburua idazten jarraitzera. Orduan, liburu bat ez da bukatzen zuk azken puntua jartzen duzunean, baizik eta gero, zure parte hartzerik gabe, bere burua idazten doa. Oso diferentea da baita ere poema liburua edo nobela. Poesia gutxiago saltzen da, baina poesia irakurlea fidelagoa da eta berrirakurleagoa. Nobela bat nekez irakurtzen dugu bi aldiz; baina poema bat bai.

Ramon Saizarbitoriak ondokoa dio:

Lanaren arabera. Lan batzuekin gauza bat, beste batzuekin beste bat. Akordatzen naiz *Gorde nazazu lurpean* ipuin luzeak bukatu nituenean, hori niri zegokidana ez zela sentitu nuela. Interresgarriena *Hamaika pauso*-rekin daukat. *Hamaika pauso* bukatu nuenean, pertsona bati eman nion irakurtzeko eta pertsona horrek irakurri zuenean amets egin nuen: nobela guztia kanpotik ikusi nuen, irakurle bat banintz bezala. Iku-si ahal izan nuen nobela osoa. Noski, hainbeste denbora ibili nintzen harekin, orduan, beste bati eman nionean, entregatu nionean, libratu nintzen eta ikusi ahal izan nuen. Begira, hitza ez zait asko gustatzen, baina hura bai *majikoa* izan zela. Ez zait sekula gehiago gertatu, *Hamaika pauso*-rekin bakarrik pasa zait. Gero ez naiz akordatzen besteekin zer sentitu dudana.

Iban Zalduak ere lanaren araberakoa dela uste du:

Nola atera zaidanaren araberakoa da. Askotan da, alde batetik, satisfakzioa, batez ere, iruditzen bazaizu hor badagoela zerbait probetxugarria (agian ez dena), baina zerbait desberdina, zerbait polita. Beste batzuetan kontrako sentrazioa geratzen zait, baina gutxiagotan: honek ez du balio eta zakarrontzira doa zuzenean. Zakarrontzia ere ordenagailua edo boligrafoa bezain tresna inportantea da idazle batentzat. Askotan zalantza da eta horregatik esaten dut nik lan bat ez dudala bukatutzat ematen beste norbaitek irakurtzen duen arte. Horregatik esaten dut ez dudala niretzat idazten, zeren bestela horrela utziko nuke (...). Prozesu guztia bukatzen denean bai, libre, askatasun sentrazioa nabaritzen dut. Azkenean liburu bat idaztea aspergarria da! Mila aldiz zuzendu behar duzu, bueltatu, kontraportada... gure industria editoriala ez da, alde horretatik, batere autonomoa. Orduan normala iruditzen zait (eta nik ere sentitu izan dut) askatasuna, baina nik hau lotuta daukat: nik ipuinez-ipuini sentitzen dut, liburuak bildu egiten du. Orain arte bost ipuin-liburu argitaratu ditut eta bost ipuin-liburuak dira bildumak. Gero modu batera edo bestera antolatuta egongo dira, denbora batean zehar metatzen joan den lana da eta gero antolatu egiten duzuna. Orduan, niretzat ipuin bakoitza independentea da ikuspuntu horretatik. Nik sentrazio hori izatekotan ipuin bakoitzarekin izan dezaket eta ez da 300-400 folioko nobela bat bukatzen duzunean bezala.

Elkarrizketaren amaierara hurbiltzen ari garelarik, sorkuntza prozesua ere (idazleari dagokion zatia, behintzat) argitalpenarekin bukatzen dela esan dezakegu. Idazleek denboraldi batez bere baitan gordetakoa kanporatzen dute izango duen harreraren zain. Une horren beldur izaten al dute?

Miren Agur Meabek esandakoa zera izan da:

Beldur ez; kezka bai, izaten dut. Baina idazlan horretan ahal dugunaren topea jo baduzu, arriskatu egin behar zara argialetxe batera bidaltzen, eta ea argitaratzeko albistea ematen dizuten. Horixe bai izaten dela pozgarria! Lehenengo, ahalik eta ondoen idatzi; gero, argialetxearen erantzunari itxaron; argitaratu; ostean, irakurleen iritzia jaso nahi... Sentrazio asko eta desberdinak izaten dira prozesuan zehar.

Harkaitz Canok dioenez, pixkanaka kezka hori gutxitzen doa:

Hasieran igual gehiago kezkatzen zaitu horrek, baina gero ohartzten zara batzuei liburu batzuk gehiago gustatzen zaizkiela, beste batzuk gutxiago... Zu zara unbrala jarri behar duzuna. Gero, noski, kritika batzuk aintzakotzat hartzen dituzu –lehen esan bezala, ez gara iragazkaitzak–; nahiz eta, “txolin horrek ez dauka ideiarik ere zer idatzi duen, ez daki ezer ere literaturaz...” esan, kritika hori irakurri duzu. Ez zaizu batere gustatu, baina, hala ere, nota hartzen duzu. Hor badago notario birtual bat eta asteriskoa... Egia esan, gutxi balio digute normalean kritikek eta iritziek; ez dakit zenbateraino aportatzen duten asko. Bai dela erantzukizuna idazlearena gero eta gehiago exigitzea zure buruari eta nik uste dut idazleak badakiela, zuk badakizula, noiz asmatu duzun eta noiz ez. Orduan, zure erantzukizuna da asmatu ez duzunean ez argitaratzea, besterik gabe.

Kirmen Uribek ere antzera pentsatzen du:

Bai, hasieran kezka hori dago eta gaztea zarenean, beno, ez gaztea... Askotan nahi duzu –nik uste jende guztiak nahi duela– pertsona moduan ere mundu guztiak

maita zaitzala. Guztiek irakurtzea liburua, guztiei gustatzea liburua... baina hori ezinezkoa da! Batzuei gustatzen zaie, beste batzuei ez... eta horrelakoa da literatura, eta horrelakoa da bizitza. Bizitzan ere lagun denak ez dira lagunak; baditugu lagun batzuk eta beste batzuk, orduan... Ez da horrekin gehiegi agobiatu behar. Ez egotea irakurle bakar bat ere, hori jada grabea izango litzateke; baina ezta ere guztia goratzea; hori ez da bilatu behar!.

Rikardo Arregik, bere aldetik, beldur hori izaten duela esan digu:

Bai, baina hori jada ez dago nire esku. Bai, gero bakoitzak egiten ditu interpretazioak eta hori zilegi da. Hori da irakurlearen ahalmena. Irakurle batek irakurriko du hau edo hau, eta beste hau; beste irakurle mota batek beste gauza batzuk irakurriko ditu, orduan... Testua beti dago hor eta testuak esaten ez duen zerbait ezin du irakurle batek asmatu, baina irakurle mota asko dago.

Iban Zalduek “jakina, nola ez” beldurra izaten duela aitortu digu eta, bukatzeko, neurri batean, baita Ramon Saizarbitoriak ere:

Egi-egia da beldurra ematen didala. Norbaitek kritika iraingarri, beldurgarri, penagarri bat egitearen kezka uste dut beti denok daukagula. Gainera, iruditzen zait nire kontua ez dela liburu bat egitea, baizik eta gero eta gehiago, ea denbora ematen didan liburu bat baino gehiagoren bidez neure mundu bat kanporatzeko. Hurrengoarekin ez badut asmatzen, bada beste batekin. Hor iruditzen zait badagoela irakurle zintzo bat, nirekin komunikatzen dena –gutxi izango dira, noski–, baina horiekin, iruditzen zait, asmatu egingo dudala. Segur aski irakurle hori eta ni estilo berekoak gara. Ni sarkastikoa naiz, umore beltz puntu batekin... eta pentsatzen dut nire liburuak gustatzen zaizkion irakurlea horrelakoa izango dela, pentsatzen dut hurrengoan ere asmatuko dudala, edo ahaleginduko naiz. Egia da nire eginkizunik garrantzitsuena dela, nire kezka nagusia dela, momentu honetan, kontatu nahia.

4. BIBLIOGRAFIA

- ALLOT, Miriam (ed.). *Novelists on the Novel*. Londres: Routledge & Kegan Paul, 1959; 401 or.
- ALONSO-FERNÁNDEZ, Francisco. *El talento creador: rasgos y perfiles del genio*. Madril: Temas de Hoy, 1996; 331 or.
- AYALA, Francisco. *El tiempo y yo ó el mundo a la espalda*. Madril: Alianza; 336 or.
- BARRON, Frank. *Creativity and personal Freedom*. Princeton, Nueva York: D. Van Nostrand, 1963.
- BODEN, Margaret A. *La mente creativa: mitos y mecanismos*. Barcelona: Gedisa, 1994; 404 or.
- BOYLAN, Clare (ed.). *The Agony and The Ego. The Art and Strategy of Fiction Writing Explored*. Londres: Penguin, 1993.
- EISENK, Hans. *Genius: The Natural History of Creativity*. Cambridge: Cambridge University Press, 1995.
- GARDNER, Howard. *Mentes creativas: una anatomía de la creatividad vista a través de Sigmund Freud, Albert Einstein, Pablo Picasso, Igor Stravinsky, T.S. Eliot, Martha Graham y Mahatma Gandhi*. Barcelona: Paidós Testimonios, 1995; 459 or.

- MARINA, J.A. *Teoría de la inteligencia creadora*. Barcelona: Anagrama, 1993; 382 or.
- LORÉN CAMARERO, J.A. *Creaciones de la mente*. Valencia: Editorial Promolibro, 1995; 215 or.
- MARTÍN GAITE, Carmen. *El cuento de nunca acabar*. Barcelona: Anagrama, 1988; 331 or.
- PERCIVAL, Anthony, (ed.). *Escritores ante el espejo: estudio de la creatividad literaria*. Capellades (Bartzelona): Lumen, 1997.
- SÁBATO, Ernesto. *El escritor y sus fantasmas*. Buenos Aires: Emecé, 1976; 268 or.
- TORRENTE BALLESTER, Gonzalo. *Los cuadernos de un vate vago*. Bartzelona: Plaza y Janés, 1982; 379 or.
- VERNON, Philip E. (ed.). *Creativity*. Harmondsworth (Ingalaterra): Penguin, 1970.

ERANSKINAK

1. Ramon Saizarbitoriari elkarrizketa (2003-3-28)

Inspirazioa hitza eta kontzeptua egokiak iruditzen al zaizkizu?

Inspirazioa dena dela esaten dute, baina lanean jartzen ez bazara ez dago inspiraziorik. Egia da batzuetan txispatxoa etortzen dela, badagoela momentu majiko bat edo, baina ez. Berez onartuko nuke badaudela egun batzuk beste batzuk baino inspiratuagoak, beharbada laguntzak ere inspiratzeko, baina iruditzen zait daukazuna hor dagoela, ez dela kanpotik etortzen, eta lanean jartzen zarenean etortzen zaizkizula ideiak eta... baina bai, batzuetan txispatxoa izaten da.

Nola sortzen zaizu ideia hori? Zerk inspiratzen zaitu?

Nik pentsatzen dut izango dela mekanismo mental bat; pentsatzen dut ikusten duzun zerbaitek edo norbere egoerak (sentibera egotea, malenkoniatsu egotea, edo alai egotea, edo pozik egotea...) errazago hurbiltzen zaituela ideia batzuetara beste batzuetara baino. Egia da egoera guztietan ikusten dituzun gauza guztiek ez dutela adierazgarritasun bera; sentiberago zaudela batzuetan beste batzuetan baino. Orduan, ikusten duzun irudi batek batzuetan inspiratzen zaitu, edo arrakasta du, edo zuk duzun zerbait azaleratzen du edo kanporatzen. Gaur, bazkaltzen nengoela, portzierto, emakume batek kanutiloak nola jaten zituen ikusi dut eta inspiratu egin naiz. Ez, beno, ideia batzuk eman dizkit. Jende serioak esaten du inspirazioak lanean harrapatzen zaituela beti edo lanean harrapatu behar zaituela eta nik uste dut egia dela. Baina bai, izaten dira momentuak; denok ditugu momentuak sentiberatasun berezi bat duzunekoa etab. Esango nuke ez zaidala txorakeria iruditzen inspirazioarena, ez nuke esango txorrada bat dela inspirazioa, baina bai, lanean harrapatu behar zaitu. Gauza da irekita, zabalik egotea, antena jarrita egotea... eta uste dut idazlearen alderdi onena hori dela: idazlea idazle baldin bada, antena jarrita dagoela, munduan adi egoteko moduan, esna egoteko modu bat da.

Nola gauzatzen duzu ideia hori?

Mundu landu bat eduki behar duzu zure baitan, *background* bat, historia bat, esperientzia bat, ia gauza bera da eremu zikoitz batean erortzen baldin bada hazi hori ez duela ezer sortzen. Askok ikusten dugu gauza bera eta jende bati gauza bat esaten dio, beste bati beste bat eta askori, gehienei, ezer ere ez. Hor sentiberatasun bat behar da. Horregatik neurri berean faltsua da inspirazioarena, zeren ideiak sortzen zaizkio bila dabilenari edo adi dagoenari, edo erne dagoenari...

Noiz aukeratzen da ideia horrekin aurrera jarraitu ala ez?

Nik uste denbora kontua dela, nire kasuan denbora da. Kanutiloak jaten zituen emakume horren irudiak hemendik bi urtera irauten badu, berriz ikusten baldin badut, hor baldin badago, erantzun egin beharko diot. Bueno, bihar igual ez naiz gogoratuko edo orain zurekin konpartitu dudanez, beharbada, geihago egingo zait...

Nik uste inspirazioa, imaginazioa –norbaitek esan zuen– memoria fermentatua dela eta nik uste dut egia dela. Zuk jasotzen dituzu gauzak eta ideiak, irudiak, batez ere, nire kasuan, irudiak, eta batzuek ez naute abandonatzen eta uste dut obsesiboak bilakatzen direla; eta, orduan, kanporatu egin behar dituzula. Irudiak, nire kasuan, besteen kasuan ez dakit zer izango den... Hori argi ikusten da hartzen dituzun notekin. Hartzen duzu ideien nota bat eta handik 3 egunetara irakurtzen dituzu: gehienak txorakeria bat iruditzen zaizkizu, ez dute garrantziarik edo ez zaizkizu interesgarriak iruditzen edo baten bat salbatzen da. Baina orokorrean ez daukazu apuntatu beharrik (nik ez ditut nota asko hartzen), batez ere, konfidantza dudalako merezi duena gelditzen dela, hain zuzen ere, filtroa dela memoriaren beste forma hori, ahaztea... Badago selektibidade bat, aukera bat eta ikusten edo bizi dituzun gauza batzuk joaten dira eta beste batzuk gelditzen dira. Denbora da aukera egiten duena.

Prozesuak zenbat irauten du? Zergatik da batzuetan beste batzuetan baino luze/laburragoa?

Hori gauza pragmatiko bat izan daiteke. Daukazu denboraren arabera egitasmoa zabalagoa edo laburragoa egiten zaizu. Nik uste dut hor norberaren egoerak zerikusia duela; beste batzuetan, segun teknika nola menderatzen duzun, zerorrek zer baliabide dituzun ideia horietaz baliatzeko. Ez dakit zergatik ideia batzuk nobela bihurtzen diren eta beste batzuk ipuin. Nik joera gehiago dut luzera jotzekoa, dibertigarria iruditzen zaidalako zerikusirik ez duten ideiak hartu eta horiekin jolas egin eta zerbait eraikitzea. Niri estrukturak eraikitzea gustatzen zait, batez ere, literaturan. Ez dakit zergatik gauza batzuek ematen duten artikulu bat egiteko eta beste batzuek ematen duten nobela bat egiteko. Nik uste dut, neurri handi baten, –nik uste dut nire kasuan hori dela– izango dela zenbat daukazu gordeta. Ideia bat izan daiteke desenkadentea, nolabait, ekiteko aukera ematen dizuna eta gero zenbat denbora daramazun idatzi gabe, zenbat daukazu gordea, zenbat errekurtsio daukazu gordeak... ematen dizu bidea luzeago edo laburrago egiteko, baina ez nago seguru, pentsatu ere ez dut asko pentsatzen asunto honetan. Nik egiten dut gorputzak eskatzen didana eta askotan, adibidez, *Bihotz bi* idatzi nuen ez nuelako *Hamaika Pauso*-rekin batera, urteak gai berarekin ibili nahi eta orduan gauza laburrago bat egin nuen, baina arrazoi pragmatikoengatik. Zergatik joaten zara Cadiz-era eta ez zara Brasilerara joaten? Ba bueno, denbora gutxiago daukazulako, edo diru gutxiago... arrazoi pragmatikoak dira. Momentu honetan, adibidez, gauza luzeago batean nabil, 2-3 urte edo 4, ez zait importa, baina egingo dut. Mundu zabalago bat osatzeko asmoa dut berriz ere, *Hamaika pauso* bezalako abentura zabalago batean. Zergatik? Iruditzen zaidalako badaukadala barruan zerbait ateratzeko, ordenatzeko... Nire kasuan literaturak ere badu funtzio hori; funtzio analitikoak, zure burua aztertzekoa... esango nuke terapeutikoa, analista batengana joan ordez gauzak ateratzera. Eta berriz diot, hori da niri interesatzen zaidana: nik ditudan gauzekin mundu bat, errealitate bat eraikitzea. Daukat kanutiloak jaten ari zen emakumea, daukat ez dakit zer, daukat... eta bueno, gauza horiekin zer egin dezaket? Hori niri ikaragarri gustatzen zait. Kasu honetan luzeago egingo dut apartatzeagatik ere bai. Liburu bat ateratzen duzun bakoitzean gaur egun da itzulpena, aurkezpena... eta nik ere nire asuntoak ditut. Luzeagoa egiten badut badakit bakean utziko nautela eta bueno, urte batzuk emango ditudala nire asunto horretan. Ez dakit zergatik den.

Zein neurritan sinisten duzu inspirazioan? Batzuentzat sakrifizioa, disziplina eta orekaren ondorio da lana, ez inspirazioarena...

Berriz ere diot, inspirazioa existitzen da, baina bila dagoenarentzat. Inspirazioa, irudiak hor daude, historiak hor daude, mundua hor dago, munduaren alderdi triste eta

pozgarriak hor daude eta zu hor zaude. Zu bila bazabiltza, begira bazaude, esna bazaude eta, gainera, zure burua aztertze beharra baduzu, gauzak ikusiko dituzu. Noizbehinka tristeak, adierazgarriak... txinparta hori saltaraziko duena edo argituko duena. Ez dut uste magikoa denik, nik uste dut ofizio guztietan gertatzen dela. Bazen zahar bat, baserritar bat, minutu gutxitan diru asko egin zuena jasadurak egiten, Donostian jasadurak egiteko garaia egon zenean. Bizkar-hezurreko desbizio bat zuela esaten zuten beti gora begira ibiltzen zelako, ia jasadurak egiteko bidea non ikusten zuen. Noski, zuk helburu hori baldin badaukazu, asmo hori eta gaitasun hori, hau da, jasadurak egin, saldu eta dirua egiteko, horrela zabilta. Zu hortaz ardurazten ez bazara ez duzu teilatuetara begiratzen, beste gauza batzuetara begiratzen duzu. Orduan, txinparta ez zaizu etortzen, txispa ez zaizu etortzen, inspirazioa ez zaizu etortzen... Zuk onartzen baldin baduzu idazlea zarela edota idatzi nahi duzula, bila zabilta eta halako batean inspirazioa daukazu. Inspirazioa ona edo txarra izan daiteke, baina topatzen duzu zerbait *enrollatzen* zaituena (gaur egun esaten den bezala). Orduan zuk zure burua nobelistatzat ez baduzu, ikusiko duzu gauza bera eta... Zu zaku batekin zoaz eta sartzen dituzu gauzak eta gero zaku horretatik ordenatzen dituzu gauzak eta estruktura bat egiten duzu. Orain ni jatetxe batera joan naiz eta ikusten dut kanutiloak jaten dituen emakumea. Bidea asmatu behar dut: nondik nator, jatetxea non dago... eta ikusten ditudan gauzekin betetzen dut nik daukadan estruktura zera hori, bila zaude... Zu hortan ez bazaude emakume bat ikusten duzu kanutiloak jaten eta esaten duzu: “ze hortera!” edo “ze garestia!”... eta punto. Baina beste eginkizun batean bazaude irudi hori hartzen duzu eta nonbaiten kokatzen duzu. Hori inspirazioa da? Ez dakit, baina onartzen dut batzuetan adiago zaudela. Nik zerbait badagoela onartzen dut, baina ez majikoa. Nik sinplea ikusten dut. Zu lan batean bazaude dena ekartzen duzu, ikusten duzun guztia, esponja bat bezala zara nolabait esateko; horregatik iruditzen zait inportantea dela idaztea jendearentzat. Eta horregatik uste dut benetako idazlea jende berezia dela neurri horretan; hortara dagoelako, gauzak ikusten dituelako... gauzak harrapatu nahian dabilelako. Noski, egongo dira gauza batzuk bere munduan barneratuak daudenak, eta dena bere barnetik ateratzen dutenak, eta ez direnak munduaz interesatzen, egongo dira... Literaturaz hitz egitean, literaturak daude, idazteko moduak, eta, pentsatzen dut, idazleak ere modu desberdin askotakoak izango direla. Pentsatzen dut jendeak erantzun desberdinak emango dizkizula, baina nire kasuan hori da eta niri harrigarriena hori iruditzen zait. Bada Fellini-ren anekdota bat: hiltzear zegoela klinikan norbaitek bisitatu zuela eta Fellini enfermera begiratzen hasi zela. Orduan enfermerak esan zion: zer moduz zaude? Eta Fellinik erantzun zion: “Ondo, ea film berri bat egiteko materiala lortzen dudan”. Beraz, egoera txarrean ere zuk baduzu hori erabiltzea, hortaz balliatzea. Eta Friche-k ere –asko maite dudan idazle horrek– esaten zuen: “gauzak ez zaizkit interesatzen ez bada literatura bihurtzeko”. Bizitza, bizitzeko esperientzia arrotza da edo ez da oso kilikagarria ez baduzu espero horrek kontaketarako balio izatea. Orduan bihurtzen da benetan esperientzia. Nik uste dut jarrera psikologiko bat dela, izateko modu bat edo.

Noizbait honi buruz pentsatu al duzu? (Ea nola eta zergatik bururatzen zaizkizun ideiak, alegia)

Ez dut asko pentsatzen, ez, denborarik ere ez. Ez naiz hasiko hemen literaturarekin dudan harremanaz, zein neurritan sentitzen naizen literatoa eta... Nik lana egiten dut ateratzen zaidanarekin eta honela interesgarriagoa iruditzen zait. Ez dut esango *hobbya* denik, ez da *hobbya*, zerbait serioagoa da. Esango nuke nire bizitzan gauzarik serioena literatura dela. Uste dut literaturak bizitzen laguntzen didala, burua ordenatzen, hobeto ezagutzen dudala nire burua idaztearen poderioz eta ez da gehiago jakin beharrik.

Lan bakoitzak antolamendu zehatz bat izan behar duela iruditzen zaizu?

Bai. Uste dut, gainera, arazo bat, hain zuzen ere, hori dela: kontatzeko dagoen zera –eta zera, ez dakit: esperientzia, historia...– bakoitzak bere egitura behar duela. Letra bakoitzak musika bat eskatzen duen bezala, musika batek letra... eta askotan gakoa hor dagoela uste dut: egitura aukeratzeko asmatzea. Nik esango nuke nire bertute nagusiengatik hori izan dela: kontatzeko nuena kontatzeko zegokion egitura definitzerakoan *asmatu* dudala. Berez, egitura bat eskatu beharko luke, bai. Historia bakoitzak eskatzen du egestura, jolas... desberdina eta askotan asmatzean dagoela, biak ezkontzean dagoela exitoa –ez exitoa markatu terminoetan, baina– lorpena hor dagoela. Bai, dudarik gabe zera bakoitzak egitura bat eskatzen du.

Pertsonaiei dagokienean?

Uste dut, nire kasuan, pertsonaiek ez dutela indar gehiegi, egituraren zerbitzuan daudela. Nik ez ditut aldeztirik pertsonaiek definitzen eta perfil psikologiko bat egiten; nik ez ditut nobela psikologikoak egiten. Noski, hezurdura bat ematen diezu eta gero bete egiten da; pentsatzen dut nire pertsonaiaren bat mamitzea lortzen dudala.

Nire pertsonaiek oso funtzionalak dira. Ez dut egiten “nahi dut egin emakume abandonatu alkoholiko bat txikitan ez dakit zer... eta gorpuztu”. Nigan itxura, egestura gehiago du eta horren funtzioan pertsonaiek izan behar baldin badu umetan sufritu zuena, edo alkoholikoa, edo... bai, baina beti egituraren funtzioan. Beharbada horregatik, nire pertsonaiek ez dute gorputz sendoa; batzuek gehiago beste batzuek baino. Uste dut nire lanetako pertsonaia batzuei balegokeela aurpegia jartzea, gutxi gorabehera imajinatzea zer edo nolakoak izan daitezkeen, baina orokorrean ez naiz Dostoyevski bat bezala –Dostoyevski bat bezala ez naiz ezertan–. Nire kasuan ez zait interesatzen tipok egitea.

Narratzailearekin zer lortu nahi izaten duzu? Adierazi edo sentiarazi nahi duzunaren arabera narratzaileak aldatzen dituzu?

Ahots hori ezinbestekoa zait niri. Garai baten, nik uste dut, *Nouveau Roman*-en moztua handiagoa nuela: objektibitatea. Azken boladan uste dut hori traizionatu egin dudala eta gairiditu dudala. Ez zait asko inporta arauak ez betetzea edo arauak saltzea... Lehen garrantzi handia ematen nion horri, narratzailearen objektibitateari, baina orain ez zait inporta hortan koherentziarik ez baldin badago. Eta bai, uste dut *Nouveau Roman*-etik apartatzen ari naizela, hertsiegia egiten zaidala kontatzeko eta momentu honetan eklektikoa sentitzen naiz: denak balio du eta hor konpon, ez zait inporta. Zerbait hobeto zehazteko dialogoa behar badut dialogora jotzen dut; narratzaile omnipresente, omniboro eta omniguztia behar badut, bale. Gauza da esateko dudana adieraztea eta, azken finean, zera horiek guztiak korseak dira, mesede gehiegirik egiten ez digutenak, eta nahiago dut libre ibili; finean, oso koherentea izango ez banaiz ere eklektikoa izatea.

Iruditzen zaizu badela gairen bat idazleok kontuan hartu beharko zenuketena edo arreta bereziren bat eskaini beharko zenuketena?

Uste dut ezetz. Ez, iruditzen zait ezetz; idazlea ez dagoela inori laguntzeko. Nik gero eta interes gutxiago ematen diot idazlearen funtzio sozialari eta gauza horiei. Nik uste dut lehendabiziko beharra neure buruarekin dudala, horrek eramaten nauela idaztera eta ez

dudala mundua salbatzeko idazten, ez euskara sendotzeko, ez aberria egiteko, baizik eta neure buruarekin kontuak konpondu nahi ditudalako. Gertatzen dena da, normalean, idazleak ere baduela bere etika bat, baditu bere ardurak eta, alderdi horretatik ere iruditzen zait, nik badudala nire ideologia bat eta traizionatuko ez badut ere, ez dudala defendatuko. Paperean kontraesankorra banaiz edo esateko dudanak neure burua traizionatzen badu, ez zait inporta. Nik hitzez gezurra esango nuke, idazten zaila zait gezurra esatea. Beraz, uste dut idazterakoan nire buruarekin zintzoa naizela eta ez dut uste nobela *fascista* bat aterako zaidanik sekula, baina ez dut nobela iraultzaile bat egin nahi, ez dut nobela abertzale bat egin nahi, ez dut nobela nazionalista bat egin nahi, ez dut nobela antinazionalista bat egin nahi... Egia da zenbait jenderekin eta zenbait egoerekin, nolabait ere, aurka jartzea atsegin zaidala edo ezinbesteko zaidala. Nik ditudan arazo ideologikoak paperera eramaten ditut eta, nahi gabe, *Ehun metro*, edo *Hamaika pauso*, edo gudari zaharren historian badago gure historiaren interpretazio bat edo. Eta nik uste dut zintzoa dela eta politikoa ere bada, baina nik ez dut horretarako idatzi. Hori bide batez ateratzen den gauza bat da, baina ez da inportanteena.

Helbururen batekin idazten duzu? Zein?

Bai, izango dut helburu bat, zeren gizakion ekintza guztiek helburu bat izaten dute. Beste gauza bat da onartzen dugun helburu hori edo argi dagoen. Nik uste dut ez dagoela argi eta inork ezin esan dezakeela garbi "hau da nire helburua". Jendeak topikoak erabiltzen ditu: "maite nazaten"... eta halakoak. "Idazten dut dirua irabazteko" esaten dute ziniko batzuek, baina nik ez diet sinisten. Nik uste dut oso konplexua dela eta nekez identifikatu daitekeela helburu bat. Noski, badaude profesionalak hori ofizio bihurtzen dutenak –beharbada argiago dituzte gauzak–, baina nire kasuan, nik uste dut bizitzen laguntzen didala: neure burua hobeto ezagutzeko eta beharrezkoa zaidan azterketa bat egiteko. Zergatik jendeak pagatzen du horrenbeste diru diban baten gainean etzanda analista bati gauzak kontatzeko? Konplexua da. Nik uste dut horrekin zerikusirik baduela idazteak.

Lana bukatu ondoren zein sentsazio izaten duzu?

Lanaren arabera. Lan batzuekin gauza bat, beste batzuekin beste bat... Akordatzen naiz *Gorde nazazu lurpean* ipuin luzeak bukatu nituenean, gelditu nintzen hori niri zegokidana ez zelako sentsazioarekin. Baina interesgarriena *Hamaika pauso*-rekin daukat: *Hamaika pauso* bukatu nuenean pertsona bati eman nion irakurtzeko eta pertsona horrek irakurri zuenean, amets egin nuen eta nobela guztia kanpotik ikusi nuen, irakurle bat banintz bezala. Ikusi ahal izan nuen nobela osoa. Noski, hainbeste denbora ibili nintzen zatika harekin, orduan, beste bati eman nionean, entregatu nionean, libratu nintzen eta ikusi ahal izan nuen. Begira, hitza ez zait asko gustatzen, baina hura bai majikoa izan zela. Ez zait sekula gehiago gertatu, *Hamaika pauso*-rekin bakarrik pasa zait. Gero ez naiz akordatzen besteekin zer sentitu dudan. Pentsatzen dut hori, bukatu dut eta ia zer egin dudan. Zerorrek ez dakizu neurtzen zer egin duzun eta irakurle bati ematearena, esamina pasatzea edo... Jendeak beti gauza beretsuak esaten ditu: asko gustatu zait... zaila da esatea gehienetan. Bi horiek ditut gogoan; *Hamaika pauso*, batez ere. *Bihotz bi* irakurri nuen eta egon nintzen argialetxeari ez argitaratzeko esatekotan, baina inprentan zegoen...; ez nintzen gustora geratu; baina *Hamaika pauso*-rekin bai, *Hamaika pauso*-rekin... pagatuko nuke berriz ere esperientzia hori izateagatik. Nobela osoa buruan ikusi ahal izan nuen, baina beste bati eman nionean. Zeren egia da idazleak ez duela bere buruarentzat idazten, baste batentzat idazten du.

Zuretzat edo irakurlearentzat idazten duzu?

Idazleak ez du bere buruarentzat idazten, beste batentzat idazten du. Baina ez derrigorrez askorentzat. Nik uste berdin idatziko nukeela hamar irakurle izango banitu edo dozena bat irakurle. Gauza da beste bati ematea, beste batzuei ematea. 5.000 irakurle izatea, edo 10.000, edo 20.000 –hobe 20.000 izatea ez?, baina– ez zait iruditzen. Gauza da norbait edukitzea. Bi, edo hiru, edo lau. Zure mundua beste norbaiti ematea. Uste dut hor salto kualitatibo bat dagoela: zurea den gauza bat beste batekin konpartitzen duzunean eta beste horrek onartzen duenean, sinisgarria iruditzen zaionean eta... eta orduan, horrekin nahikoa da. Niri, bahintzat, horrekin nahikoa zait. Noski, gero harrakasta badu hobeto, baina uste dut printzipalena beste norbaitekin konpartitzea dela.

Beste norbait horrek nolabaiteko perfila behar du izan?

Bai. Zure inguruan duzun jendearen artean pertsona batzuegan konfidantza gehiago daukazu; bere sentsibilitadea, bere literaturzaletasuna, nolabait ere, zure joerarekin bat datorrena edo zure estilokoa... Garai baten esango nuke *alter ego* bat nuela. Niretzat, Ibon Sarasola klabea zen, adibidez. Estilo berekoak ginen, gusto berak genituen... orduan, berari ematea, ez bakarrik konfidantza gehiago nuelako, baizik eta banekielako harentzako modukoa zela, edo harek hobeto ikus zezakeela, edo errazago sentitu, edo... banda berekoak ginen, nire kapellakoa. Niri gertatzen zaidana da, tarte horretatik egia da, bakartia naizela, ez dut kapellarik... idazle gehienek badute beren mundutxo, badituzte beren zaletuak, beren kolegak... eta hori oso inportantea da lana emateko, eztabaidatzeko eta kritikak entzuteko. Ni nahiko bakartia naiz eta momentu honetan ez dut inor finkorik; baina bai, izan daiteke argitaletxeari, M. J. Olaziregiri, J. Kortazarri... Horiekin egiten dut nire lehen saioa, lehendabiziko proba.

Izango duen harrerari beldur diozu?

Bai, beti daukazu. Niri, batez ere, min emango lidake kritikoren batek zerbait inpresentablea edo *hortera* idatzi dudala esatea. Titular bat esaten duena: “Ramon Saizarbitoriaren azken nobela horterada bat”. Baina ez dut espero laudoriorik ere. Gainera, iruditzen zait literaturzaleentzat edo nire orbitako, edo nire kide, edo nire gustu literarioak dituztenentzat beti izango dudala bazka; konfidantza hori irabazi dut. Ez profesionalizatu naizelako, baina iruditzen zait honez gero, egingo dut interesgarriagoa, politagoa, hobea... baina nik uste, maite nauenarentzat, beti izango dudala zer emana. Maite ez nauena, seguru aski, hemedik aurrera ezingo dut neureganatu, ezingo dut konbentzitu. Nik uste dut egiten ditudan gauzak bereziak direla edo estilo batekoak; nik ulertzen dut jende askori ez gustatzea. Niri oso-oso onak omen diren idazleekin gertatzen zait ez zaizkidala piperrik ere gustatzen. Izango dira oso onak, baina niri ez zaizkit gustatzen; eta ez dut izenik aipatu nahi, baina badira oso idazle inportanteak ez zaizkidanak gustatzen. Badira beste idazle batzuk, berriz, ez dutenak arrakasta sozial hori eta ez direnak oso ezagunak eta nik asko maite ditudanak. Dena bezala da, koloreak bezala da. Maitemintzen zarenean ere, batzuetan ondokoak ezin du ulertu zergatik gustatzen zaizun tipo hori edo tipa hura. Eta oso guapa edo izango da, baina niri gustatu ez. Bada literaturarekin gauza bera. Badago zera bat misterioitsua ez dena. Aztertuko bagenu jakingo genuke, asmatuko genuke zeintzuk diren klabeak: psikologoa, soziologoa, literatur-kritikoa... eta asmatuko genuke zergatik nire literatura gustatzen zaion horri eta ez zaion hari gustatzen. Nik ez dakit, baina seguru jakin daitekeela.

Galderari atxikiz, ez dut beldur handirik. Iruditzen zait izango naizela gauza duin bat egiteko gai –baita ere, nire folio batek astebete balio duelako–. Trakets idatziko dut, baina astean folio bat. Horrek esan nahi du, nolabait esateko, zaila dela gauza barregarri bat idaztea... Ez zait iruditzen plastada emateko gai naizenik; tira, igual zoratzen hasi naiz eta... baina ez. Orain, egi-egia da beldurra ematen didala norbaitek kritika iraingarri, beldurgarri, penagarri bat egitea. Kezka, uste dut, beti denok daukagula. Gainera, iruditzen zait liburu bat egitea ez dela nire kontua, baizik eta, gero eta gehiago, ea denbora ematen didan liburu bat baino gehiagoren bidez nire mundua kanporatzeko. Hurrengoarekin ez badut asmatzen, bada beste batekin. Hor iruditzen zait badudala irakurlego zintzo bat nirekin komunikatzen dena –gutxi izango dira, noski–, baina iruditzen zait horiekin asmatu egingo dudala. Segur aski irakurle hori eta ni estilo berekoak gara: ni sarkastikoa naiz, umore beltz puntu batekin eta pentsatzen dut nire liburuak gustatzen zaizkion irakurlea horrelakoa izango dela eta bere izaera horrelakoa denez gero, pentsatzen dut hurrengoan ere asmatuko dudala, edo ahaleginduko naiz. Egia da, momentu honetan, nire eginkizunik garrantzitsuena kontatu nahia dela. Beharbada misterioak... Jon Kortazarri kontatzen nion, triste kontatzen nuen anekdota batean, nola daramaten jauntxo aristokrata bat gillotinar bere karretan eta nola eskatzen duen papera eta arkatza ideia bat apuntatzeko eta ideia apuntatzen duen. Ia hilzorian dagoen tipoak oraindik badu zera hori, burura datorkiona kontatzekoa, ateratzekoa. Bada pertsona batzuek hori dute: Heriotza baino gehiago da ideia bat. Zergatik batzuek hori? Historia pertsonala izango da: izateko modua, geneak, aminoazidoak... auskalo!

2. Rikardo Arregiri elkarrizketa (2003-2-27 eta 2003-3-13)

Inspirazio hitza eta kontzeptuak egokiak iruditzen al zaizkizu?

Garai zaharretik datorren zerbait da; zutaz jabetzen zen egoera azaltzeko erabiltzen zuten. Ez, ez dut uste horrelakorik dagoenik.

Nola sortzen zaizu ideia hori? Zerk inspiratzen zaitu?

Gauza asko izan daitezke ideia bat burura ekartzen didatenak. Gauzak begiratzeko prest egon behar zara eta zure aldetik aurretiko jarrera bat behar duzu, burua irekita izan behar da ea zer gertatzen den...

Nola gauzatzen duzu ideia hori?

Bururutzen zaizkidan ideiak apuntatu egiten ditut koaderno batean. Gero behin eta berriro irakurtzen ditut, hortik zer atera dezakedan pentsatzen dut... Batzuetan hortik ezer atera ezin dezakedala iruditzen zaidanean aparte uzten dut; bestela, hasi eta puntu batean jarraitu ezinik aurkitzen banaiz utzi egiten dut.

Adibidez, badaukat orain ideia bat: errepide batetik zoazela eta ikusten duzula zure gustukoa den pertsonaren herria, baina inoiz ez zarela gelditzen bertan; beti autopistatik ikusten duzu. Bada, ideia hau honezkero hiru aldiz atera zait, esaldi desberdinak bururatu zaizkit: “autopistatik noa eta zure leihoa ikusten dut”... orduan, hor zerbait egongo dela iruditzen zait, baina ez dakit nondik suertatuko den.

Ni Kanarietan bizi izan nintzen eta hemen (koadernoari begira) baditut bi nota eklipse bat egon zelako eta gauez ikusi nuelako. Fenomeno arraroak ere gertatzen dira noiz-

behinka, esaterako, Saharako harea datorrenean eta horregatik badituz hiruzpalau nota horri buruz, baina nik ez dakit horiekin zer egin.

Batzuetan nota bat bi lerrokoa da eta beste batzuetan sekulako azalpena daukazu eta lerro asko idazten dituzu. Pasarte guzti hau, bada, "Kartografia" liburuko "Urre-lilien heresia" egiteko erabili nuen. Gero konturatu nintzen azken esaldia "hau da ene gaubeila, hau ene hiltamua da" eta orduan, silabak kontatuta daude eta gainerako guztia neurri honen gainean egina dago. Pixkanaka-pixkanaka... gainera hemen dagoen ordena eta poemaren bukaeran dagoen ordena ez da berbera baina gutxi gorabehera hau irakurtzen baduzu, biak gauza bera direla ikusiko duzu. Beharbada hitzak aldatuta daude edo, baina ez dakit.

Noiz aukeratzen da ideia horrekin aurrera jarraitu ala ez?

Ez dakit zergatik aurrera jarraitu... oso arbitrarioa da. Nahi horretan zerbait egon behar da, baina ez dakit zer.

Prozesuak zenbat irauten du? Zergatik da batzuetan beste batzuetan baino luzeago/laburragoa?

Bada batzuetan tirada baten idazten duzu poema osoa eta beste batzuetan gehiago kostatzen zaizu. Gainera, ez du zerikusirik poema neurtua ala neurrigabea izateak; gerta daiteke poema aske bat idatzi nahi izatea eta honek neurri zehatz batez idatzi beharrekoa baino buruhauste gehiago ematea.

Zein neurritan sinesten duzu inspirazioan? Iruditzen zaizu, idazle askorentzat bezala lana sakrifizio, diziplina eta orekaren ondorio dela eta ez inspirazioarena?

Gauzak begiratzeko prest egon behar zara eta zure aldetik aurreko jarrera bat behar duzu. "Noan gauzak begiratzera", "edo burua irekita izango dut ea zer gertatzen zaidan"... Ez da egia bakarrik paisaia polit bat ikusten bururatzen zaizkizula gauzak; nik uste dut erosketak egiten ere bururatzen zaizkizula gauzak. Nik uste dut poema bat idazteko buruan, bihotzean eta errailetan zerbait sentitu behar dela, bestela gero herren geratzen dela. Adibidez, nire aitaren herrian, Dulantziko mendiei begira konturatu nintzen mendien, paisaia horren parte nintzela eta uste dut orduan sortu zitzaidalda poesia egiteko gogoia edo behar hori.

Bada poeta espainiar bat oso teoria politikak dituena: nola egin behar den poema bat, eta zeri buruz egin behar den eta... eta azalpena irakurtzen baduzu oso interesgarria da. Baina gero poema-liburuan ikusten duzu hori nola egin duen eta nola berak alde zurretik ideia bat zuen eta gero nola saiatu den gauzatzen, eta gauzatze hori herren geratzen dela iruditzen zait niri. Lehen teoria gisa kontatu didazu prosan eta orain lerroak bukatu gabe esaten didazu, baina ez dirudi zuk benetan hori sentitu duzunik.

Baita ere lehengo egunean lagun batekin hitz egiten, esan zidan: "ideia bat izan diat poema bat egiteko" eta nik erantzun nion: "Ideia batekin ezin da poema bat egin". Ezin da esan "honi buruz poema bat idatziko dut". Nire ustez inspirazioa baino gehiago dira inpresioak; zentzumenarekin lotua dago. Begirada berezi horri inspirazioa deitzen bazaio ados egongo nintzateke, baina nik hitza *bururatu* dela uste dut. Ez dut uste sakrifizio eta diziplinaren ondorio denik, ez.

Noizbait pentsatu al duzu honi buruz? Ea zergatik eta nola bururatzen zaizkizun ideiak...

Aurreko jarrera bat duzulako momentu batean. Nik uste dut hori etortzen dela normalean adoleszentsiatik edo. Nik adoleszentsian deskubritu nuen hori eta orduan, hori lantzen saiatu naiz. Begiak irekita izatea, burua irekia izatea... eta "dejarme impresionar" esaten dena.

Poema eta poema-liburu bakoitzak antolamendu zehatz bat izan behar duela iruditzen zaizu? Antolamendua ez badu bere heriotza dator?

Bai, biek behar dute. Lau lerroko poema batek oso antolamendu gutxi behar du, baina beharbada 100 lerroko poema batek bai. Baina bai poemak eta bai liburuak antolamendu bat behar dute.

Nire kezka gauza neurtuak egitea da. Kontuan hartzen dut hizkuntzan garatu diren egiturak. Adibidez, "Onassis taberna"-k 9 silabako egitura du eta "Urre-lilien heresia" esaldi baten gainean eratuta dago.

Idazten duzun neurrian ateratzen da. Batzuek forma libre dute eta beste batzuek trinkoagoa. Gainera hemen formak ez daude oso garatuta... arazoa dugu euskararen kasuan.

Antolaketa bat egoten da, irakurlearengan ere pentsatu behar da. Nik taldeka banatzen ditut; nahastu behar ez direla iruditzen zait eta ondoren gauzak antolaketa horren arabera egiten ditut.

Ez zait inoiz gertatu desoreka baten aurrean aurkitzea; ez naiz inoiz behartuta aurkitu mota bateko poemak egitera. Eta gainera, batzuetan, antolatutako multzoetako poemak elkarren artean alda daitezke.

Antolamendu hori zeren arabera egiten duzu?

Dudan materialaren arabera. Adibidez, "Kartografia" egiten ari nintzenean banituen hamabost bat poema eginda, orduan, ikusi nuen hamabost poema horiek desberdinak zirela eta gaia ere desberdina zutela, orduan bost taldetan sailkatu nituen eta gero egiten nuen guztia bost talde horietako batean sartzen zela ikusi nuen. Batzuetan nahiko artifiziala da. Orain arte egin ditudan bi liburuetan beti agertzen dira bost zati. Lehendabizikoak eta azkenak haien artean zerikusia dute, erdian bada amodiozko poemak inguruko beste zati bat, normalean ere badira pertsonaiei edo beste idazleei buruzkoak... hori da nik orain arte egin dudan antolaketa. Orain beste liburu bat prestatzen ari naiz eta bertan 3 zati egongo direla iruditzen zait. Zati batean amodiozko poemak daude, beste batean gutxi gorabehera badakit zer sartzen den eta hirugarren zati bat egon behar dela uste dut, baina nik neuk oraindik ez dakit nolakoa izango den.

Bai, antolamendua garrantzitsua da ez gauza simetrikoko bat egiteko, baina antolamendua izatea ezinbestekoa iruditzen zait. Niri poema-liburu bat hartu eta 50 poemak denak jarraian ikustea, denak nahastuta, luzeak, motzak, askotariko gaiak... ere ez zait gaizki iruditzen. Ongi, baina antolamenduak beharbada irakurleari pixka bat laguntzen dio. Irakurlearengan pentsatu behar da antolamendua egiterakoan, baina baita liburuaren antolamenduan ere. Izan dadila gauza bat ez oso simetrikoa, baina testuen artean

koherentzia bat mantendu behar du. Ni konturatzen naiz liburuetan beti agertzen dela hitz bat, edo hitz pare bat, edo esaldi mota bat... beharbada bost poema diferentetan agertzen dena; orduan, haien arteko erlazioa dute eta horrek ere ematen dio antolamendua liburuari. Bi-hiru ildo poema guztietan egotea ez, baina poema askotan egoteak koherentzia puntu bat ematen dio lanari.

Pertsonaiei dagokienez, adierazi nahi duzunaren arabera pertsonaia konkretu bat aukeratzan duzu?

Idea edo begirada horien arabera aukeratzan dira. Batzuetan emakume bat agertzen zaizu; adibidez, "Zin-egite telefonikoak" poema, emakume bat telefono kabina batean negarrez, erosketa poltsak lurrean botata zituela ikusi nuelako egin nuen. Izan daiteke pertsona erreala, ezezaguna, ezagun bat edo izan daiteke liburu batean ikusi duzun pertsonaia bat, historian dagoen pertsonaia bat edo beste idazle bat edo... zer edo zer, begirada hori edo buru ireki hori sortu dutenak. Igual nobelan pertsonaia bat garatzen doa, lehenengo kapitulutik bukaerara gauzak gertatzen zaizkio; baina poemetan igual irudi bat izan daiteke. Nik uste dut emakume bat kabina batean telefonoz hizketan eta negarrez eta erosketa poltsak lurrean dituela irudi oso indartsua dela. Kabina bat da, egoera urbanoa da... bakardadea, erosketak eta eguneroko gauzak egin beharra... Irudi horretan gauza asko dago. Irudi horretatik nobela bat atera daiteke, bueno, beharbada nobela bat egoera horrekin has daiteke, baina berez, hori bakarrik ikustea oso hunkigarria da eta pelikula baterako ere balio lezake.

Iruditzen zaizu badela gairen bat idazleok kontuan hartu beharko zenuketena edo arreta berezia eskaini beharko zenuketena?

Bitzita bera eta mundua; hau da, dena: heriotza, amodioa, gorrotoa, poza... Ez dakit nola esan. Azken finean, begiradaren kontu hori da munduari buruz daukazu begirada bat, munduaren gainean jarri duzun begirada bat. Begirada ironikoa, bihozbera, errukian oinarritutakoa, hotza... oso bariatua izan daiteke. Noski, zuri beharbada gehiago gustatuko zaizu gai bat edo beti aterako zaizu nahigabe gai bat, baina niri, adibidez, oso zaila egiten zait ezagutzen ez dudan zerbait buruz idaztea. Adibidez, herri txiki bateko bizimoduaz idaztea oso zaila da niretzat, nik ez baitut bizimodu hori ezagutzen. Batzuek esaten dute idazleek bere esperientziari buruz idatzi behar dutela, baina, adibidez, Luisa Etxenikiek esaten du ezetz, berak gauza asko ezagutu ez arren egin dezakeela nobela bat edo ipuin bat horri buruz, imajinazioa eta irudimena horretarako daudela. Nik uste dut esperientzia modukoa izan behar duzula, bestela oso ariketa artifiziala izango litzatekeela iruditzen zait. "Amazoniako haurrei buruz idatziko dut" esatea bezala... ez dakit, beharbada horri buruzko liburu pila bat irakurri ahal ditut, edo bertara joan, baina hori egin arren ez baduzu hori gertutik bizi, ezin duzu jakin benetan zer sentitzen den. Batzuetan gertatzen da, adibidez, langabetuei buruz idatzi beharra. Kontxo, bada zure bizitzan ez badago langabetu bat, zu ez bazara inoiz langabezian egon, ez baduzu hori gertutik bizi, agian gauza on bat egin dezakezu, baina nire susmoa da egin dezakezun hori gertuago egongo dela ariketatik.

Orain amodioari buruko lan bat egitea gustatuko litzaidake, baina amodio ez-erromantikoarena: poema antierrromantikoak.

Zein helbururekin idazten duzu?

Helbururik? Ez, gauza txukun bat egitea. Auto-exijentzia maila bat badago. Nik koadernoan topatzen ditudan ohar batzuekin pentsatzen dut ez duela ezertarako ematen, ez duela gauza txukun bat egiteko balio.

Zuretzat edo irakurlearentzat idazten duzu?

Nik egiten dudanarekin gustura egon behar dut eta hortik irakurle posible batzuei gustukoa zaie eta besteei ez; baina norberari gustatzen ez bazaio, nola gustatuko zaie gainerakoei?

Lana bukatu ondoren zein sentsazio izaten duzu? (askatasun edo huste sentsazioa beharbada...)

Huste bat izan duzula. Libratu egin zara barnean zenuen gauza batetik, aske gelditu zara momentu batean. Izan ere, liburua amaitzen ari zarenean tentsioan egoten zara. Gero, batzuetan, ase sentsazioa ere izaten dut; gustura zaudela (beno, gustura baldin bazaude). Ni, orain arte egin ditudan gauzekin gustura gelditu naiz, oso gauza gutxi aldatuko nituzke nik. Hasierako poemetan ezer gutxi aldatuko nuke. Beharbada puntu eta koma bat edo... baina ezer ere ez.

Zure lana argitaratzen duzunean, izango duen harreraren beldur izaten al zara?

Bai, baina hori jada ez dago nire esku. Bai, gero bakoitzak egiten ditu interpretazioak eta hori zilegi da. Hori da irakurlearen ahalmena. Irakurle batek irakurriko du hau edo hau, eta beste hau; beste irakurle mota batek beste gauza batzuk irakurriko ditu, orduan... Testua beti dago hor eta testuak esaten ez duen zerbait ezin du irakurle batek asmatu, baina irakurle mota asko dago orduan... Nik uste dut zu egiten duzunarekin gustura ez bazaude, beste norbait nola egongo da gustura? Bestalde, zu gustura baldin bazaude egiten duzunarekin, bada espero dezakezu beste norbait ere gustatuko zaiola. Azken finean, ez da gauza arraro bat edo... ez dut uste *martziano* bat naizenik.

Adibidez, "Kartografia" egin nuenean norbaitek guztia heriotzari buruz zela esan zuen eta niri interpretazio interesgarria iruditu zitzaidan, nahiz eta, ez zen nire asmoa izan, baina batzuetan asmo kontzientea izan ez arren azpitik ateratzen da. Hori da, hain zuzen, psikoanalisiak esaten duena. Irakurlearen interpretazioa egon egin behar da. Beti esaten da irakurlea dela liburua bukatzen duena eta abar. Azken finean irakurlea da poema bat bukatzen duena; berak irakurtzen du eta berak egiten du poemaren interpretazioa. Interpretazio horiek egiten dituzun testuaren araberakoak izango dira, baita ere. Literaturako eskuliburu batek hau eta hau esaten du eta hor ez dago interpretaziorik. Poesian, bestalde, testuak askoz ere zabalagoak dira eta irakurketa posible gehiago ametitzen dituzte.

3. Miren Agur Meaberi elkarrizketa (2003-4-24)

Inspirazio hitza eta kontzeptua egokiak iruditzen al zaizkizu?

Egia esan, inoiz ez dut horretan pentsatu. Beti esan izan dut ideiei deitu egin behar zaiela, eta horretarako, prestu egon behar duzu, paper zuriaren aurrean pentsatzen, edota ingurura begira jendeari, gauzei, elkarrizketei... adi.

Nola sortzen zaizu ideia hori? Zerk inspiratzen zaitu?

Ideiak neure izatetik zein ingurutik hartzen ditut: neuri gertatutako gorabehera bat, lagunei entzundako pasadizo bat, hedabideetatik iritsitako albiste bat... denak izan daitezke idazki baterako oinarri. Ez dago a priori poetikoak diren edo ez diren sentimenduak, objektuak edo egoerak. Dena den, funtsezko baldintza erne egotea da, zerk sortzen dizun zirrara edo ondoeza, hari kasu egiteko. Uste dut bizitzak –zentzu zabalean– ematen dizkigula ideiak. Adibidez, umetxo baten keinua edo esaldi soilak izan daitezke inspirazio.

Nola gauzatzen duzu ideia hori?

Paperaren aurrean jarri eta tanteo bat egiten dut, ea zer ematen didan. Gerta daiteke hutsean geratzea. Beste batzuetan, idazteko mementoan, hariak harrapatzen zaitu eta badirudi bidea aurkitu duzula, baina agian biharamunean, bezperako beroaldia epeldu denean, ez diozu xarmarik aurkitzen idatzitakoari. Orduan, baztertu egiten dut. Sistema modura, ideiarekin zerikusia daukaten oharra apuntatzen ditut (berba iradokorrak, sentsazio pertsonalak...), zerrenda batean. Agian ez ditut denak erabiliko, baina ideiarentzako bidea aurkitzen laguntzen didate.

Noiz aukeratzen da ideia horrekin aurrera jarraitu ala ez?

Ideia batek, batzuetan, bueltak ematen dizkizu buruan, baina beste batzuetan alde egiten dizu. Hoberena da ideia horri borborka dagoenean eustea eta jorratzea, egarria kentzeko premia duzunean iturrira zoazen presa berberaz. Virginia Wolf-en esaldi bat baliatuz: Ezer ez da gertatzen, oroimenean bilduta geratzen ez den bitartean. Paralelismo bat eginez, papera da idazlearen oroimena: ideia bat ez da ezer paperera isuri arte.

Prozesuak zenbat irauten du? Zergatik da batzuetan beste batzuetan baino laburra-goia/luzeagoa?

Ez dago epe jakinik. Bestalde, misterioa da, niretzat ere, zergatik batzuetan berbak beren kabuz behar den tokian jartzen diren (alegia, esanahia eta edertasuna orekan) eta beste batzuetan, ordea, zergatik ateratzen diren bortxatuta bezala eta disgustura uzten zaituzten.

Zein neurritan sinesten duzu inspirazioan? Iruditzen zaizu, idazle askorentzat bezala, lana sakrifizio, diziplina eta orekaren ondorio dela eta ez inspirazioarena?

Dudarik gabe. Ekinaren eta auto-exijentziaren fruitua izaten dira lanak.

Eta inspirazioan sinestuz gero, iruditzen zaizu noizbait buka daitekeela?

Ideiak ez dira bukatzen. Buka edo agortzen dena idazlearen erregistroa edo ahotsa da ideiak ganoraz gauzatzeko. Idazlearen meritua, teorian, hauxe da: zerbait esatea inoiz inork esan gabeko modua baliatuz.

Idazle bakoitzak bere bilakaera dauka, bere erritmoa, eta bere inguruabarrak, batzuetan mesedegarri ez direnak idazlangintzarako (estresa, egoera sozial eta politikoa, nekadura).

Noizbait pentsatu al duzu honi buruz? (ea zergatik eta nola bururatzen zaizkizun ideiak)

Ideiak bristadak dira, toki askotatik heltzen dira, izpi-sorta baten moduan, espero ez dituzunean ere: leitu duzun liburu batetik, lagun bati entzundakotik... (2. galderaren erantzunera jo).

Poema eta poema-liburu bakoitzak antolamendu zehatz bat izan behar duela iruditzen zaizu? Antolamendurik ez badu bere heriotza dator?

Poema bati kritika dakioko berba multzo harmoniko hutsa izatea, alegja, bata bestearen ondoren erortzen utzitako berba-piloa soilik izatea, mami gutxikoa izatea, hain zuzen. Antolamenduak badauka zerikusirik idazlearen nortasunarekin eta jarrerarekin, baina itxurazko antolamendu-falta bestelako aldarrikapen baten seinale izan daiteke, idazkera-estilo kontzientea, munduan sumatzen den anabasa adierazteko baliabide bat. Baina ondo egiten jakin behar da. Dena den, ni neu, orain arte, oso egiturazalea naiz. Badirudi ordenak, errepikak eta "arkitektonismoak" lagundu egiten didatela esan nahi dudana esaten.

Pertsonaiei dagokienez, adierazi nahi duzunaren arabera pertsonaia konkretu bat aukeratzen al duzu?

Prosa gutxi idazten dut, eta egiten dudana, haur eta gazte literaturari lotua. Pertsonaia baino gehiago, egoera bat hartzen dut oinarritzat halakoetan. Eta gero, pertsonaia, apur-apurka eratzen da, istorioak tira egin ahala.

Iruditzen zaizu badela gairen bat idazleok kontuan hartu beharko zenuketena edo arreta bereziren bat eskaini beharko zenuketena?

Printzipioz, ez, eta horretan datza aberastasuna. Hala ere, interesgarria iruditzen zait idazlanetan balio positiboak igortzea, moralismora jo barik.

Zein helbururekin idazten duzu?

Edertasuna sortuz komunikatzea da helburua, hartzaileari begiratuz gero. Neure buruari begiratuz gero, sentipenak, bulkadak eta gogoetak kanalizatzea. Sormenari etekina ateratzea premia bat da, kirolariarentzat korrika egitea bezala.

Emakumeok helburu desberdinak dituzuela iruditzen zaizu?

Emakumeok helburu desberdinak? Emakume idazle batzuek arreta eman diegu, erre-
paro gutxirekin, oso xehetasun intimoei, ikuspegi etxekoiak baina ez-tradizionalak hautatu
ditugu, kanonean ageri izan ez diren esparru txikiak azaleratu ditugu, baina hori dena geure
izatea agertzeko egin dugula uste dut, zintotasunetik, ez bakarrik ariketa estetikoak,
errebindikazioa edo pose koiunturala egitearren.

Zuretzat edo irakurleentzat idazten duzu?

Gaur egun gehiago pentsatzen dut irakurleengan lehen baino (seguruena idazleago
naizelako eurentzat ere), baina oinarriko lema neure buruari hauxe esatea da: lehenen-
go, zeu asebate behar zaitu. Idatzitakoak ez bazaitu betetzen, ez bota aurrera.

Lana bukatu ondoren zein sentsazio izaten duzu? (askatasun edo huste sentsazioa, beharbada...)

Pentsatzen dut kezka bat kendu dudala, *bufa* egiten dut eta laster, beste asmo bati
ekin behar diodala, ea laster zerbaitekin engantxatzen naizen idazten jarraitzeko.

Zure lana argitaratzen duzunean, izango duen harreraren beldur izaten al zara?

Beldur ez; kezka bai, izaten dut. Baina idazlan horretan ahal duzunaren topea jo ba-
duzu, arriskatu egin behar zara argitaletxe batera bidaltzen, eta ea argitaratzeko albistea
ematen dizuten. Horixe bai izaten dela pozgarria!

Lehenengo, ahalik eta ondoen idatzi; gero, argitaletxearen erantzunari itxaron; argi-
taratu; ostean, irakurleen iritzia jaso nahia... Sentsazio asko eta desberdinak izaten dira
prozesuan zehar.

4. Iban Zalduari elkarrizketa (2003-3-18)

Inspirazio hitza eta kontzeptua egokiak iruditzen al zaizkizu?

Zertaz ari garenaren arabera. Ez dut uste kanpoan dagoen zerbait denik, etortzen
zaizuna eta... Musaren kontu horietan ez dudala sinesten, alegia. Ez dut sinesten ezta ere
halako dohain partikular edo berezi bat denik. Hau da, badaude gauzak inspiratzen
zaituztenak, mundu guztiari inspiratzen dioten bezala, zerbait burura ekartzen dioten
bezala.

Zer izan daiteke inspiratzen zaituen hori?

Nire kasuan askotan da irakurtzen duzun zer edo zer, baita ere zineman edo telebistan
ikusten duzun zerbait, edo eguneroko bizitzaren inguruan kontaktzen dizuten istorio bat, edo
oroitzapen bat... oroitzapen bat ere izan daiteke inspirazio iturri nahi baldin baduzu.
Nolabait, hor, zerbait, idazteko grina pizten dizun hori. Ez dut uste hor erregela finkorik

dagoenik, bada jendea koadernotxoarekin eta ibiltzen dena, ni ez naiz horietakoa, momentuz behintzat. Agian hasi beharko naiz geroz eta neurona gutxiago dudala uste baitut eta orduan gauzak ahaztu egiten zaizkit. Hau da, lehenago ideiak nituen eta gehiago gogoratzten nituen.

Inspirazio hitzak niri gogora ekartzen didana zerbait berezia da eta idazleok (eta artistok, oro har) zerbait berezia bezala garela dioen kontzeptu hori ez zait asko gustatzen, horrela ulertuta behintzat. Iruditzen zait horren atzean egon daitekeen ariketa oso arrunta dela eta nire kasuan idazteko bultzada bihurtzen dela, baina beste edozer gauza ere bihur zitekeela inolako arazorik gabe, eta jende askori hori gertatuko zaiola uste dut.

Nola gauzatzen duzu burura etorri zaizun ideia hori?

Hor modu desberdinak daude. Normalean nire ideiak, edo behintzat niri burura etortzen zaizkidanak nahiko gauza puntualak izaten dira. Oraingoz behintzat, ez didate gauza luze bat idazteko aukerarik eman. Oso espazio txikian eta denbora laburrean gauzatzen diren eszena edo flashak izaten dira. Orduan, prozesua desberdina izaten da. Kasu batzuetan ideia etorri eta berehala (ordu batzuk edo egun batzuk geroago) jartzen naiz idazten eta beste batzuetan, askotan, buruan ideia beratzen uzten dut. Hau da, bueltak eta bueltak ematen uzten dut forma nahiko zehatza hartzen duen arte. Hau da, normalean esertzen naizenerako nahiko argi daukat zein izango den hasiera eta zein izango den bukaera. Batez ere ipuinei dagokienean. Baina esaten dizut, hor bi bide horiek daude eta nik badauzkat ideiak duela hamar urtekoak; esan nahi dut, oraindik inon eskema bezala ere jaso ez ditudanak. Beste batzuetan eskema bat idazten dut. Hau da, ikusten dudanean zerbaitegatik ahaztu egingo zaidala edo ez dudala hor nabaritu dudan historiaren ñabardura gogoratuko apuntatu egiten dut. Oso gutxitan eskema bat, esaldiren bat edo beharbada, eta hala ere inoiz gertatu izan zait itzuli esaldira eta pentsatzea: horrek zergatik egin zidan grazia bere momentuan? Hori da pixka bat egiten dudana... Batzuetan amets bat izaten da eta gero eta gehiago gertatzen zait gainera. Gauzez izandako zerbait oso bizia eta zerbait bihur daitekeena edo bada bai apuntatu behar dudala esnatu bezain azkar, bestela joan egiten zaidalako.

Noiz erabakitzen da ideia horrekin aurrera jarraitu ala ez?

Bada ez dakit nola erabakitzen dudan. Batzuetan behartuta da; hau da, zutabe bat edo nonbaiterako testu bat idatzi behar duzulako eta orduan eusten diozu daukazuari eta aurrera egiten duzu. Beste batzuetan ezin duzulako barruan eduki. Hau da, buelta gehiegi eman dituelako etab. Eta beste batzuetan hain brillantea eta polita iruditzen zait non, lehen esan dizudan bezala, eseri behar dut ia berehala ideia edo dena delako hori ordenagailuratzeko. Baina oso kontzientzia garbia ez daukat. Gainera orain hori egiteko denbora gutxiago daukat (lehen ia edozein momentutan izan zitekeen), baina gaur egun astia daukadanean bakarrik jar naiteke. Badauzkat ordenagailuan batzuetan idatzi ditudan ideia batzuk eta hortik tiratzen dut batzuetan eta bestetan gauza erabat berria izaten da.

Prozesuak zenbat irauten du? Zergatik da batzuetan beste batzuetan baino laburra-goia/luzeagoa?

Ez nuke esaten jakingo. Pentsatzen dut, nire kasuan behintzat, kostatzen zaidanaren arabera izango dela. Batzuetan dena delakoagatik ez duzu argi ikusten zein bide hartu...

noski, idazten jartzen zarenean gerta daiteke norabidez aldatzea edo zuk zeneukan koadroa aldatuko duen zerbait agertzea. Inoiz gertatu izan zait hasiera eta bukaera oso argi izatea, baina gero bidean zerbaitek aldatzea ipuina norantz joango den. Adibideren bat jartzearren, "Anaren mutila" horretan nire hasierako ideia beste bat zen eta ipuina aldatzen joan zen aurrera egiten zuen heinean, eta batez ere amaiera bukatu zen. Hasierako ideia inkonformistagoa zen, nolabait esateko, bukaerakoa eta azkenean gauzatu nuena niretzat efektiboagoa da, tristeagoa da baita ere, eta nolabait hasierakoa baino gogorragoa. Bai, batzuetan gertatzen da aldaketa hori, baina normalean argiago geratzen da emaitza.

Gauzatu ez den hasierako ideia hori beste baterako uzten duzu ala bukatutzat ematen duzu ideia horrekin egiteko zegoena?

Ez, ez dut zertan beste baterako gorde. Nik kontatu izan dut inoiz euskaraz idazten hasi nintzenean (lehen gaztelaniaz idazten bainuen) banuela gaztelaniaz idatzitako ipuin bat eta zakarrontzira joan zena ez ninduelako batere konbentzitzen. Bazen kale-borroka istorio bat eta, baina gaztelaniaz faltsu edo ikusten nuen, orduan handik urte pare batera edo (ez dut oso gogoan zenbat, baina denbora pasatu zen) egin nuen antzeko gai batekin "Ertzainarena" (*Ipuin euskaldunak* liburuan dago) deitzen zen ipuin bat eta gatazkaren ingurukoa zen, baina adosago geratu nintzen ipuinarekin eta gero konturatu nintzen, funtsean, beste ipuina han zegoela. Nahiz eta eszenatokia, pertsonaiak... desberdinak izan, nolabait estrukturalaren aldetik ipuin hura izan zen eta niri esanguratsua iruditu zitzaidan besteak soinu faltsua zeukalako eta euskaraz idatzita oso kontent geratu nintzelako ipuinarekin. Hain zuzen ere horrek animatu ninduen euskaraz idazten jarraitzera. Orduan, horrelako transbaseak gerta daitezke, auto-plagioak izango lirateke azken batean, baina ez da halere gehien gertatzen zaidana. Ipuin batek ez badu funtzionatzen zaila da beste testuinguru batean funtzionatzea, saiatu egin naiz eta normalean ez dute emaitza onik ematen, zerbait estrukturala izan daitekeelako hain zuzen ere akatsa. Kasu horretan uste dut gehiago zela hizkuntzaren arazoa estrukturala baino eta uste dut horregatik funtzionatzen zuela.

Lehenago esan duzu ez duzula Inspirazioan sinesten, baina iruditzen zaizu gehiago dela lana sakrifizio, diziplina eta orekaren ondorio eta ez inspirazioarena?

Bai, hortik joango litzateke gehiago nire ikuspegia. Jon Alonsok literaturari buruzko saiakera baten (*Idiaren eraman handia* liburuan) defendatzen du pixka bat ideia hori: nolabait idazleak ez garela artistak, ez garela jende espeziala. Hau da, idaztea igeltserotza bezala edo filologia bezala ikas daitekeen zerbait da. Filologia ikasten duten guztiak ez dira filologo onak, batzuek ere ez dute sekula filologia arloan lan egiten, baina denek ikasten dute. Gero dohainak daude. Ni, adibidez, oso igeltsero txarra izango nintzatekeen, edo agian oso ona, eta probatu ez dudalako ez dakit. Orduan, aldizkakoki ados nago lan jarraituarekin etab; profesionala baldin bazara, seguru aski, bai sinetsiko nuke horretan eta hortik aterako lirateke gauzak, betiere uste dut zakarrontzira asko botata. Badago jendea asko idazten duena eta guztia argitaratzen duena eta hori iruditzen zait oso arriskutsua, baina horretan baino gehiagotan sinesten dut, batez ere, irakurtzearen kontuan. Hori galdu ezin den diziplina bat da. Nik uste dut pertsona bat idatzi gabe urteak egon daitekeela eta gero idazten jarri eta oso gauza ona atera dakioko eta hori da azken batean helburua. Victor Hugok eta Balzac-ek esaten zutena; nolabait inspirazioak lanean harrapatu behar zaituela eta... Batzuetan ez daukazu lan egiteko gogorik edo ez dago bultzatuko zaituen ezer edo... Ni ez naiz jarraikortasunean idazten duen horietakoa, bestalde, bai uste dut irakurtzeari edota berrirakurtzeari ezin zaiola utzi. Zentzu horretan onena aurreko literatura guztia ezagutzea izango litzateke, baina alde horretatik ez naiz batere erudugarria, oso

anarkikoa bainaiz, orduan oso argi daukat zein diren irakurri beharko nituzkeenak, baina ez ditut irakurtzen aspergarriak iruditzen zaizkidalako. Alde horretatik beti izan naiz oso bultzadakoa, eta egile hau, eta orduan egilearen lan guztia irakurri behar duzu eta horrelako kontuak... ez ditut gehiegi jarraitu. Gero nolabait, liburutegi tipo on bat egitea, erosi erosten ditut eta gero beti esaten dut erretirorako hor egongo direla. Baina irakurtzea, oro har, eta ahal bada gauza onak irakurtzea, nahiz eta txarretatik ere ikasten den, oso garrantzitsua da eta ez da inoiz utzi behar. Egunero idazteari dagokionez nire zalantzak ditut nire kasuari dagokionez, gero jendeak bakoitzak bere diziplina edo diziplina eza dauka.

Noizbait pentsatu al duzu zergatik edo nola bururatzeko zaizkizun ideiak?

Egia esan, seriozki ez. Esaten dizut, niri ideiak flash bezala etortzen zaizkidalako burura eta, egia esan, normalean paseatzen ari zarela edo abstraituta zaudenean etortzen zaizkizu burura. Adibidez, kasuren bat aipatzearen, duela urte bete inguru argitaratu nuen gazteentzako gauzatxo bat "Kea ur gainean" deiturikoa eta nik hori oso argi daukat non eta nola bururatu zitzaidan. Horretaz oso ondo gogoratzen naiz eta agian adibide gisa erabil daiteke. Niri beste egile batek, Patxi Zubizarretak kasu honetan, umeei zuzendutako ipuin bat pasatu zidan eta gaia zen kantinera izan nahi zuen mutil batena, Alardearen kontuaren inguruan etab. Eta niri hor gustatu zitzaidan eta sekulako inbidia eman zidan, batez ere, hor zegoen transgresioaren kontuak: mutilak kantinera izan nahi zuen eta ez zioten uzten eta istorioa zen kantinera izateko bere borroka. Bada hori irakurri ondoren nik pentsatu nuen horrelako zerbait idatzi nahi nuela; ideia polita iruditzen zitzaidan. Orduan hor prozesu kontziente bat egin nuen eta agian gazteei interesa dakiekeena ... nolabaiteko asaldatzea erakutsi dezakeen pertsonaiaren bat. Eta ni oso musikazalea naizenez, nire gazte garaiko oroitzenaren oso presente nuen heavyen tribu hori aukeratu nuen. Orduan ideia, funtsean ipuin horretan edo nobela labur horretan dagoen ideia hori da eta hortik sortu zen. Baina esaten dizut, beste kasu batzuetan amets batean oinarritua egon daiteke eta abiapuntua eman dezake, nahiz eta, lehen esan dizudan bezala, bidean aldaketak gerta daitezkeen. Gero askotan entzuten dituzun eguneroko bizitzako istorioak dira. Esaterako, *Ipuin euskaldunetako* Ertzainaren ipuin hori benetako gertakari batean oinarrituta dago, Gasteizko euskaltegi batean gertatu zen gertakari batean (Ertzain bat bota egin zuten), hain zuzen. Eta garai horretan baziren antzeko albisteak Donostian eta beste lekuren batean baita ere. Kontua da historia hori entzun nuenetik idazten hasi nintzenerako ahaztu egin zitzaidalako erdiko istorio guztia eta bakarrik argitaratu ondoren esan zidaten, baina hau... eta orduan konturatu nintzen entzunda neukala. Eta hemen dagoen azkenengoa "Zen" honek nire lagun batzuen lagun batzuei gertatutako zerbait dauka oinarrian, hazia hori izan zen. Gertakaria oso ohikoa da, baina gertakari horren gainean nolabaiteko kutsu fantastikoa duen ipuin bat eraikitzen dut. Kasu horretan, adibidez, berehala etorri zitzaidan ipuina burura. Niretzako sortze-prozesuan oso garrantzitsua da istorioa, *flash* hori edo nolabaiteko lehen ideia hori, baina hori bezain garrantzitsua da zer egiten duzun horrekin, nola ematen diozun buelta. Beste baten adibide batekin azal diezazuket. Esaterako, Joxerra Gartzaiaren "Egonean doazen geziak" liburuan bada ipuin motx bat eta hor kontatzen da bikote pobre batek nola uzten dion pobre izateari. Hori da pixka bat atzean dagoen ideia. Bikote bat heltzen da egun batean eta kotxea lapurtu dietela konturatzen dira. Kotxea lapurtu diete eta sekulako amorrua hartzen dute eta, batez ere, gizartearen kontra keztatzen dira etab. Biharamunean, baina, kotxea zegoen lekuan aurkitzen dute eta barruan ohar bat: Barkatu, atzo larrialdi bat izan genuen eta kotxea hartu behar izan genuen, zuei tokatu zitzaizuen eta gure esker onaren seinale operarako bi sarrera hauek uzten dizkizuegu. Hauek pozez txoratzen, gizartearekin berriz adiskidetzen dira eta operara joaten dira eta bueltatzen direnean, jakina, etxea hustu egin diete. Orduan bukatzen du: "orduz geroztik bikote pobre bat gutxiago dago munduan". Bada, niri ipuin horretan bi

gauza gustatzen zitzaizkidan: alde batetik istorioa bera, gertakaria, nolabait esateko, oso iradokitzailea eta oso burutsua iruditzen zitzaidan, eta bestetik, daukan umore puntua. Bueno, bada duela gutxi, ahoz-ahoko istorioak kontatzen dituen liburu horietako bat hartu nuen, bolo-bolo ibiltzen diren istorioak eta benetako istorio gisa kontatzen diren horietakoak biltzen zituen liburu bat. Bada, Joxerraren ipuinaren ardatza osatzen duen ideia burutsu hori ez da berea, halakoetako bat da. Liburuak *Demasiado bueno para ser cierto* izena duela uste dut eta antropologo estatubatuar baten liburua da, eta hor jasotzen ditu istorioak, eta istorio hori da Estatu Batuetan (eta segur aski beste kontinente batzuetan ere) kontatzen den istorio bat. Hasiera batean “zer timoa”, pentsatu nuen, saldu digu istorioa bere ipuina balitz bezala bere ipuina ez den zerbait, eta elezhar horietako bat. Baina gero ondo pentsatuta, meritu handiagoa ikusten diot kontuari, benetan ipuinari balio erantsia ematen diona da, hain zuzen ere, hasieran, erdian eta bukaeran gehitzen dizkion bikote-probaren inguruko xehetasunak. Bada hor Joxerra Gartziak entzungo zuen edo irakurriko zuen istorioa, egin zuen gauza bakarra euskaratzea (edo ez, beharbada berak euskaraz entzun zuen) izan zen, baina niretzat garrantzitsuena inguruan egiten duen hori da. Hau da, gero egiten duen lana eta hor dago sormen lana. Horregatik nik uste dut gauza biak direla. Bestela, ideiak eta entzuten dituzun istorioak bere horretan gera daitezke, istorioetan... Nire kasuan ez, nik ipuinekin funtzionatzen dudalako, baina poeten kasua edo eleberrigileena beste bat izango da, baina ipuingile bezala, azken finean anekdotekin, istorioekin lan egiten duzu eta orduan istorioaren eta kontaktaren arteko pausoa, pizten den ideia horren ondoren egiten da.

Lan bakoitzak antolamendu zehatz bat izan behar duela iruditzen zaizu?

Bai, uste dut hori dela lanaren zati handi bat; azken finean lan egiten duzun lehengai horri forma zehatz bat ematea. Azken batean Borgesek eta esaten dutenarekin lot genezake, alegia, guztia dagoela idatzita eta... orduan, zertarako idatzi? Bada, alde batetik jarduera historikoa delako idazten da, denborak aurrera egiten du eta denborak ez dira berdinak, hau da, belaunaldi bakoitzak bere irakurketak egin behar ditu nahiz eta gauza berdinen gaineko irakurketak egin, baina, bestetik, nahiz eta istorio berdin bat idatzi, kontua da antolaketa desberdin batekin egitea. Beraz, antolaketa da alde horretatik egin daitekeen ekarpenik inportanteenetakoa.

Zeren arabera zehazten duzu antolamendu hori nola egin?

Bada ez dakit. Ipuinak berak diktatzen dizu askotan nora joan behar duen. Alde batetik ni eskema nahiko estuetan mugitzen naiz, hau da, nire ipuingintza oso tradizionala da, nire ereduak XIX. mendeko ipuin literarioaren hasierakoak, Poek inauguratutako linea horretatik edo doaz: oso borobilak diren ipuinak, bukaerak indar asko dauka normalean, artefaktu moduan halako independentzia daukate... hau da, nahiko urrun sentitzen naiz, nahiz eta gustatzen zaizkidan Chekhov eta Carver eta ipuinetan nobelagileagoak diren horietatik, bukaerarik edo hasierarik gabeko ipuin horietatik baino. Orduan, alde horretatik bariazio aukerak ez dira oso handiak, orduan... ez dakit zehazki zerk ekarriko duen ipuin baten antolamendua: 1., 2. edo 3. pertsona erabiliko duzun, edo ahots ezberdinak tartekatuko dituzun edo elipsi maila handiagoa edo txikiagoa izango duen... Gauzak horiek nire kasuan gauza horiek ez dute zerikusirik inspirazioaren momentu horrekin, baizik eta mahaian jartzen zaren unearekin. Hau da, paperean edo ordenagailuko paper zuriaren aurrean erabakitzen dut eta niri gertatu izan zait hartu eta erabat aldatzea. Nik arazo hori izaten dut askotan narratzailearen pertsonarekin edo aditz-denborekin eta orduan batzuetan ipuinaren erdira iristean funtzionatzen ez duela ikusten duzu. Nik hasiera batean nuen ideia eta garatzeko gogoia eman zidana, idazteko bultzada eman zidana, ez da ondo

gauzaten ari eta orduan itzuli hasierara eta hasi aldatzen. Eta hori batzuetan gertatzen zait ipuina bukatu eta gero. Orduan, prozesua oso luzea izan daiteke. Orduan, bukatu eta gero niri normalean norbaitek irakurtzen dit eta batzuetan aldaketa inportanteak ekartzen dizkit. Normalean nik ez ditut ipuinak bukatutzat jotzen lehenengo eserialdian, bigarren irakurraldi bat egian arte, normalean bitartean beste norbaitek irakurtzen dit, normalean nire andreak.

Esaten dizut, nobeletan ez zait hain garrantzitsua iruditzen, nobelek generoarengatik onartzen dituztelako gorabeherak eta gainera, irakurleak salto egin dezake nahi badu, edo arreta gutxiagorekin irakurri... Ipuinean hori zailagoa da gutzia kontzentratuagoa dagoelako, eta poesian are gutxiago. Badago esaten duenik Raimon Carverren poemak, adibidez, ez direla zertan argitaratu behar edizio elebidunetan, ohikoa den bezala. Gaztelerazko liburu batean hala argudiatzen zuen itzultzaileak hain zuzen ere, ez jartzeko ondoan jatorrizko poema. Esaten du, azken batean, Carverren poesian ez dela hain inportantea nola kontatzen duen, baizik eta zer kontatzen duen. Ni ez nago erabat ados, nire zalantzak ditut. Gainera suertatu zitzaidan poema bat, hain zuzen, Kirmen Uribek euskarara itzulitakoa bere garaian etab. irakurri nuela eta euskarazko itzulpena askoz ere hobea zen, orduan orijinalarekin konparatu beharko genuke desberdintasun handia ote dagoen ikusteko eta nork egiten duen itzulpenik zehatzena edo orijinaletik gertuen dagoena. Hala ere, horrek pixka bat erakutsi zidan badaukala garrantzia nola eta zein hitz eta bertso-lerroaren zein puntutan jartzen den aukeratzeak.

Pertsonaiei dagokienez, adierazi nahi duzunaren arabera pertsonaia konkretu bat aukeratzeko al duzu?

Normalean lehenengo ideiarekin batera pertsonaia badatorkizu. Nire ipuingintzan, dena dela, pertsonaiak nahiko zehaztugabeak dira. Azken batean nahiko "ni" dira, nolabait esateko; orduan, ni adosago egon naiteke nire buruarekin edo ez, baina ezin dut saihestu ni izatea. Hor dagoen pertsonaia onartu egin behar dut, baina tira, gertatu izan zait sexua aldatzea adibidez. Ipuinean gizonezko batek jokorik ematen ez zuela ikusi eta "Lumumba" ipuinean, esaterako, protagonista emakume bat da, baina hasiera batean gizonezkoa zen. Edonola ere, iruditzen zait hori irakurleari ez zaiola inportantea iruditzen, behin jakinda hor atzean dagoena, baina hori idatzen ari nintzela erabaki nuen, ez nuen bukatu arte itxaron, baizik eta itzuli nintzen hasierara eta orduan pertsonaiari beste izen bat eta beste biografia bat erantsi nizkion. Iruditzen zitzaidan emakume izanda hobeto funtzionatzen zuela, baina gutxitan gertatzen zait. Gehiago gertatzen zait narratzailearen pertsonarekin edo aditz-denborarekin (iraganean edo orainaldian kontatzen duzun) arazoa izatea. Eta horrekin bai izaten ditudala borroka handiak, nahiz eta jendeari tontakeria irudituko zaion, baina ni horrekin nahiko obsesionatuta nabil. Azken batean interesatzen zaidana ipuinaren eraginkortasuna da eta hor bai detaile bat aldatzeak agian ez du ipuina deuseztatzen, baina agian halako detaile batek maila bat igo dezake, nire estimazioan maila bat igo. Detaile horrengatik ezberdina den zerbait izatea, alegia.

Iruditzen zaizu badela gairen bat idazleok kontuan izan beharko zenuketena edo arreta bereziren bat eskaini beharko zenuketena?

Hor niri inbidia ematen didate gai bat daukatenean, proiektu literario bat daukatenean. Batzuek ideia oso argia dute zeri buruz idatzi behar duten eta abar, baina ez da nire kasua. Atzera begira ikusten duzu beti ari direla gai berberak bueltak eta bueltak ematen, baina nik ez daukat kontzienteki barneratuta, hau da, ez daukat literatur programa bat alde horretatik. Hau da, atzera begira nahiko argi ikusten dut zer egiten dudana eta hortik atertzatzen ditut kontatzen dizkizudan hainbat ondorio edo zein gai mota erabiltzen ditudan, edo

zer errepikatzen dudan behin eta berriro... baina ez da kontzienteki aurrera eramaten dudan lan bat. Ez da burgesiaren, artegatasunaren idazlea izango naizela. Beste batzuegan gehiago ikus dezakezu kontu hori, alde horretatik niri ipuinak lotzen dituzten hariak aurkitzea posible zait, are gehiago, batzuetan hari horiek asmatzen ditut, baina ez da aurretik doan zerbaite. Nik, benetan, inbidia diet gauzak hain argi dituzten idazleei, nik ez baitauzkat.

Gustatuko litzaidake izatea, iruditzen zaidalako horrelako gauzek idazleari sublime sentitzen laguntzen diotela eta sublime sentitzeari inbidia diot, ez naizelako batere sublime sentitzen. Baina hau pixka bat lotuta dago hasieran esaten nuenarekin: idaztea ikas daitekeen zerbaite da, beste edozein ofizio bezala. Bestalde, ikusten dut, eta literaturaren historia asko irakurri dituzunez, proiektu bat izatea da pertsonaia erreala ez izateko baldintzetako bat. Normalean horrek esan nahi du oso ziur zaudela egiten duzun lanaz eta nik ere ikusten dut. Zure buruarengan sinestea ona izateaz aparte, idazten eta egiten dituzun gauzak onak izateaz aparte, badago beste osagai bat eta da horretan sinetsi behar duzula, zugarri sinetsi behar duzula idazle bezala. Bueno, ni oraindik ez naiz heldu eta orduan halako ezaugarriak, hain zuzen idazle bat osatzen dutenak, edo nik idazle bati buruz daukadan ideia osatzen dutenak, nahiko nuke horrela sentitu, baina ez naiz horrela sentitzen. Kontua da hain zuzen ere beharbada nire pertsonaia hau dela, alegia, esaten duena ez duela sentitzen hori guztia, baina ez dakit... Niri hori Harkaitz Canorekin gertatzen zait. Niri Cano pertsonaia literario bat iruditzen zait. Berak eraiki du pertsonaia hori eta oso ziurra da eta izugarri gustatzen zait nola kudeatzen duen bere pertsonaia literarioa, eta berak bai daukala proiektu literario bat, edo behintzat hori ematen du aditzera. Ez da harrokeria kontua, da beste zerbaite desberdina eta da harrotasun kontua. Uste dut komeni dela desberdintasuna egitea, eta uste dut nik ez daukadala harrotasun hori, hain zuzen ere.

Zein helbururekin idazten duzu?

Uste dut hor bakarrik erantzun probisionalak eman daitezkeela. Hau da, denborarekin aldatzen doazenak. Garai batean idazten nuen, hasi nintzenean, behintzat, ligatzeko edo ligatzen ez nuelako. Atzera begira nahiko argi daukat horretarako idazten nuela. Beste garai batean, nolabait, izan zitekeen inguruko admirazioa sentitzeko, famagatik, nahi baduzu. Beste garai batean –eta hori zirkunstantzia pertsonalekin lotuta dago– izan zitekeen barruak askatzeko edo hain zuzen, nolabait, tristeziatik edo depresiotik irteteko bide bat. Uste dut motibazioak, alde horretatik, asko izan daitezkeela eta aldakorrak dira denboran zehar. Hor nik aipatzen dut “Obabatiko tranbian”, behintzat narratzaileen kasuan (poeten kasua desberdina da) nahiko argia dela, are gehiago, segur asko, nobelisten kasuan, baina nik uste dut alde horretatik ipuinak bai konpartitzen duela zerbaite nobelarekin eta da funtsean dagoena beti gauza bera dela: historiak kontatzea; hau da, aktoa bera da helburua. Paulesek esaten du, azken batean, munduak eraikitzea dela; mundu erreala ez direnak baina mundu erreala bezain erreala izango liratekeenak. Uste dut hori dela gaur egun sinesten dudana eta gero beste motibazio batzuk egon daitezkeela inguruan, eta batzuetan bat baino gehiago direla eta askotan aldakorrak direla denboran zehar eta norberaren biografiaren araberakoak. Funtsean munduak eraikitzeko grina, istorioak kontatzeko grina dela uste dut.

Hori zerk eragiten duen auskalo...

Ez dakit. Nik hori egozten diot betidanik asko irakurri izanari. Txikitan gertatzen zitzaidan, hau da, azkenean bukaeran dagoena arazo ekonomikoa da. Hau da, produkzio faktoreak esleitu egin behar dira eta mugatuak dira, orduan faktore mugatuaren aurrean

aukeraketa batzuk egin behar dira. Txikitatik nik beti istorioak kontatu ditut, amak ere ipuinak kontatzen zizkidan eta nik ere oso txikitatik gogoratzen dut nire burua liburu batekin edota, batez ere hasiera batean, komikiekin. Komikiak bi asterik behin edo hilean behin erosten zizkizuten eta presupuestoa ez zen mugagabea. Orduan, komikiak zortzi aldiz irakurri ondoren ni nire komikiak egiten hasi nintzen. Komiki horiek ere ez ziren beste inorentzat, niretzako ziren, beste zazpi aldiz irakurtzeko, hurrengo komiki-txanda iritsi arte. Azken batean, iruditzen zait nire buruari esplikazio bat eman nahi diodanean hori esaten diodala. Gero badago beste kontu bat, eta da, oso memoria txarra dudalako idazten dudala. Oroitzeko oroitu ezin dudana. Hori ez da nire motibazioa bakarrik, adibidez Ramon Saizarbitoritari ere entzun diot, eta nahiko definizio erabilgarria iruditzen zait nire kasuan.

Zuretzat edo irakurlearentzat idazten duzu?

Ez dut nire burua oso ondo aguantatzen eta niretzako idaztea erredundantzia bat da. Zalantzarik gabe besteentzat idazten dut. Hau da, lehenago beti da zuretzako, baina normalean, saiatzeko naiz ez irakurtzen gero, argitaratu denean, nirekiko lotsa ematen dit. Bai, kanporako idazten duzu. Nik, behintzat, besteentzako idazten dut. Esaten dizut, hasiera batean zuretzat da, zeren zuretzat esanguratsu izan behar du mugitzen zaituen horrek, baina idazten jartzen zarenean pertzepzioan, harreraren pentsatzen zaude.

Zure lana argitaratzen duzunean izango duen harreraren beldur izaten zara?

Bai, bai. Jakina, nola ez!

Lana bukatu ondoren zein sentsazio izaten duzu?

Nola atera zaidanaren arabera izaten da. Askotan da, alde batetik, satisfazioa, batez ere, iruditzen bazaizu hor badagoela zerbait aprobetxagarria (agian ez dena), baina zerbait desberdina, zerbait polita. Beste batzuetan kontrako sentsazioa geratzen zait, baina gutxiagotan: honek ez du balio eta zakarrontzira doa zuzenean. Zakarrontzia ere ordenagailua edo boligrafoa bezain tresna inportantea da idazle batentzat. Askotan duda da eta horregatik esaten dut nik lan bat ez dudala bukatutzat ematen beste norbaitek irakurtzen duen arte. Horregatik esaten dut ez dudala niretzat idazten, zeren bestela horrela utziko nuke, baina beste baten edo batzuen galbahea pasatu behar du. Orduan, ez zarenean ados geratzen zakarrontzira. Pozik geratzen zarenean batzuetan bigarren irakurle horrek esaten dizu ezetz, lan horrek ez duela balio. Batzuetan ez duzu onartzen eta beste batengana jotzen duzu etab. Niri gehienetan geratzen zaidana da zalantza idazten dudaren aurrean, ez naiz batere ziurra. Eta askotan gertatzen da baita ere, zuk zalantzan duzun ipuina jendeak asko gustatzen zaiola esatea. Ipuinak ere garai batean beste batean baino gehiago gustatzen zaizkizu eta gero ranking horiek aldatzen joaten dira. Zeren arabera? Ez dakit. Irakurtzen duzunaren arabera, ondarea gehitzen duzulako beharbada eta baita zure biografiaren zirkunstantzien arabera edo bizipenen arabera.

Batzuk umezurtz, beste batzuk libre sentitzen dira...

Prozesu guztia bukatzen denean bai, libre, askatasun sentsazioa nabaritzen dut. Azkenean liburu bat idaztea jasangaitza da! Mila aldiz zuzendu behar duzu, bueltatu, kontra-portada gure industria editoriala ez da, alde horretatik, batere autonomia. Orduan

normala iruditzen zait (eta nik ere sentitu izan dut) askatasuna, baina nik hau lotuta daukat ipuinekin. Nik hori ipuinez ipuin sentitzen dut, liburuak bildu egiten du. Orain arte bost ipuin-liburu argitaratu ditut eta bost ipuin-liburuak dira bildumak. Gero modu batera edo bestera antolatuta egongo dira, denbora batean zehar metatzen joan den lana da eta gero antolatu egiten duzuna. Orduan, niretzat ipuin bakoitza independentea da ikuspuntu horretatik. Nik sentsazio hori izatekotan ipuin bakoitzarekin izan dezaket eta noski, ez da 300-400 folioko nobela bat bukatzen duzunean bezala, pentsatzen dut kasu horretan sentsazioak desberdinak izango direla. Poemekin ere desberdina da, oso zaila da, ez baduzu poema oso luze bat egiten bilketa lan bat dago nire ustez eta hor uste dut nolabait egon daitezkeen sentsazio horiek, obra bukatuarenak, diluitu egiten direla kreazioaren prozesu osoan zehar. Liburuarena azken urratsa da, eta gehiago lotua dagoena antolaketa, orden, frogan zuzenketa lanekin, hustutasun sentsazio batekin baino. Nik ez dut sentitu.

5. Kirmen Uriberi elkarrizketa (2003-3-4)

Inspirazioa hitza eta kontzeptua egokiak iruditzen al zaizkizu?

Nik zalantza asko ditut inspirazio hitzarekin, batez ere, nola sartu izan den topiko moduan literaturaren munduan. Nik uste “klitxe” bat dela inspirazioa, ez da besterik. Alde horretatik ez dut uste irudi horretan, poeta “Jainko txiki” baten modukoa denik edo poeta, nolabait esan, Jainkoarekin lotura daukan pertsona bat denik. Halaxe esaten zuten, behintzat, garai batean korrespondentzien teoria horrekin. Swidemborg-ek eta esaten zuten poesiak benetako munduaren halako isla bat eraiki behar zuela eta ez dut uste gauza handiago baten korrespondentziarik dagoenik. Nik gehiago sinisten dut formazioan, alde batetik, tradizioan beste alde batetik, eta, azkenik, norbere ikuspegian. Pertsona bakoitzak ikuspegi bat dauka eta egiten duena da, besterik gabe, aurreko tradizioa kontuan hartu, aurreko idazleek egin duten ona kontuan hartu eta hortik abiatuz berea eraiki. Nik uste dut hori dela idazle batek egiten duena.

Badago oso metafora polit bat: erleak hartzen du polena eta polen hori ezti bihurtzen da. Polena hartzen da, batez ere, literaturatik eta gero bizitzatik. Polen hori ezti bihurtzen da pertsona bakoitza bakarra garelako.

Auden-ek esaten zuen –uste dut poesian maisuetako bat dela– gizakiak bizitzan bi jokaera dituela: alde batetik, *bidaztiaren irudia* erabiltzen zuen, etengabe aurrera bidaiatzen ari den pertsonaren irudi hori, eta, bestetik, *hiriaren irudia*. Gizakiok bizitzan bi jokaera horiek genituela esaten zuen, eta baita poesian ere. Batzuek beti etorkizunean pentsatzen dute: oinez egin, aurrera joan... norabide konkreturik gabe. Eta beste jokaera hiriarena da. Hiri batean eraikin ezberdinak daude: Erdi Aroko eraikin bat, Garai Modernoko beste batzuk, neoklasikokoak, XX. mende hasierakoak... eta, azkenik, oraingo garaikideak. Hiri batean bizi den pertsona batek, guk adibidez, herentzia kultural guzti hori jaso dugu, garai guzti horietako herentzia hori. Norabiderik ez duen bidaztiaren irudi hori ere kondena bat da orduan, norabiderik gabe ibiltzea azkenean kondena bat da, ez dauka zentzurik... Badakizu lehen gaztigatu egiten zela. Badago balada bat, “Judu erratuarena”. Judu erratuaren gaztigu hori zen hil gabe biziko zela milaka urtetan, munduan zehar bueltaka eta bueltaka. Edo Mateo Txisturen ipuin hori, nola beti bueltaka eta bueltaka dabilen ehizan eskopetarekin. Hori, orduan, kondena bat da. Eta, beste alde batetik, hirian bertan beti handik atera gabe bizitzea ere, beste kondena bat da. Beraz, hori poesiara ekarrita, poesiak bi gogo horiek jasotzen ditu. Alde batetik, herentzia guzti hori, iragana bera –nire ustez poesian oso inportantea da bai iragan kolektiboa eta bai iragan propioa, memoria propioa ere–, baina beste alde batetik, badago aurrera egiteko gogo bat, hiritik ateratzeko eta norabaitera (agian beste hiri batera) joateko gogo bat. Bi indar horiek dira:

iraganarena eta aurrera egitearen gogo hori, mugak haustearen gogo hori... Literaturan bai jaso duzu tradizio bat, baina berritu nahi da etengabe; literaturaren ibilbidea progresiboa da, beti egiten du aurrera. Ezin dugu nahi dugunean mugimendu batzuetara itzuli, kezka batzuetara egiten duzu buelta, baina, hala ere, historiak aurrera egiten du. Hori gauza erreala da. Gai honekin lotuta, bi indar horiek daude: alde batetik, tradizioarena, eta, bestetik, esperientzia propioarena eta aurrera egitearen nahi propio horrena, bakarrik, bidean, aurrera egitearen gogo horrena. Beste egile bat esango dizut: Nino Yugitz, portugesa bera. Berak esaten du poesiak bi alde dituela: bat esperientzia eta bestea hizkuntzan berean oinarritzen den poesia. Bi indar horiek ere nahiko antzekoak direla uste dut. Bai, esperientzia badago, baina ez edonola. Bizitza bai –ez bizitza bakarrik– baina heriotza ere badago; hots, hil direnak eta hilko zaren zu ere hor zaudete. Egja da hori.

Literaturan oso inportantea da formazioa eta lana egitea. Ez dago inspirazioa (zentzu klasikoan hartuta), baina badago begirada konkretu bat. Auden oso ona zen, Carabagio pinturan... esan nahi dut, lana bakarrik ere ez da. Pertsona bakoitza pertsona bera da eta horregatik gara aberasgarriak, horregatik gara erakargarriak beste jendearentzat... Zu zeu zarenean zara erakargarria, ez mimetikoa zarenean, edo ez dakit zeinen modukoa zarenean, edo ez dakit noren kopia izan nahi duzunean... Norbera beti da norbera eta norberak bizitzen dituen gauzak norberak bakarrik bizitzen ditu, batez ere, bizipen horien pertzepzioa. Horregatik, idazle batzuk onak dira eta beste batzuk txarrak dira. Esan nahi dut, lanarekin bakarrik ez da zerbait ona idazten, edo inspirazioa edo errealitatea pertzibitzeko modu jakin bakar batekin ere ez. Izan ere, errealitatea pertzibitzeko gaitasuna baldin badaukazu gaitasun hori landu egin behar da, eta paperean jarri behar da, eta paperean jartzeko aurretik egin den lan guztia ezagutu behar duzu. Bi aldeak dira, baina ni ez nago ados soilik lana dela dioten horiekin ere. Ez da soilik lana.

Zergatik iruditzen zaigu duela 1.000-2.500 urte idatzitako epigrama bat oraindik zoragarria dela? Ba tipo horrek asmatu egin zuelako! Gero bere garaiko beste milaka pertsonak ez dute asmatu.

Nola sortzen zaizu ideia hori? Zerk inspiratzen zaitu?

Idazteko ideiak momentu batean sortzen dira, baina idazteko gogoeta egon behar da. Uste dut hori dela gauzarik inportanteena: irakurketa bai munduarena eta bai tradizioarena eta gero gogoeta bat. Gogoeta bat egiteko ikaragarritzko denbora behar da; ez da momentuko gauza bat. Gogoeta egiteak denbora eskatzen du, hausnartze hitzak dituen 2 esanahi horiek kontuan hartuta.

Gero poema bat sor daiteke irudi batetik, edo liburu batetik, edo egoera konkretu batetik... hori jada gogoeta horren islatze formala edo egiterakoan izango da. Esan nahi dut, poema baten atzean irudiak daude, baina irudi horien atzean gogoeta bat dago. Eta irudiak sortzeko orduan bai sortzen direla “izpi” batzuk askotan, baina jatorria toki askotan eduki dezakete.

Lehen egon naiz “Hodeiak” poema irakurtzen, adibidez, eta irudi bat da.

Ihesi doaz hodeiak. Neguko
eguzkiaren usaina maindireek.
Goiz da oraindik.

Irudi hau da gure amonaren etxeko irudi bat. Bera ibai ertzean bizi zen, Ondarrun, eta kostaldeko herrietan balkoietan izarak jartzen dira eguzkitan lehortzen, eskegita... egu-

rrizko etxe horiek, balkoiak kolorez pintatuta dituztenak... eta hori da jatorria. Gero hor atzean gogoeta bat dago: "goiz da oraindik".

Nola gauzatzen duzu ideia hori?

Adibidez, "Bisita" poema. "Bisita" poema da guk aita gaisorik genuenean UVIra egindako bisitatik sortutako irudia. Behin joan ginen anaia, ama eta arreba eta han ikusi genuenaren irudia. Ez da egun bakarreko kontua, 2 hilabeteko egunerokotasun hori kontatzen da. Hala ere, gero nola azaltzen den poema hau, nola gauzatzen den... pertsonak aldatuta daude eta egiteko modua beste era batekoa da, ez da nik bizi izandakoa, baina badago nik bizi izandakotik halako alderatze bat. Adibidez, hau azkar idatzitako poema bat izan zen; egun batean idatzi nuen, momentuan... Baneukan barruan min bat eta hortik atera zen. Hasiera da Ondarruko toxikomano batek beti esaten zuena: nola askotan heroinagatik –eurek esaten zuten– sexua baztertzen zutela, heroina hartzea zela hobea... Larrua jotzea da gorputzaren indarrak handiena edo momentu alai bat... "Heroina larrua jotzea bezain gozoa zen": bera heroinarekin pozik zegoen eta gorputza ere indar betean dago. Gero hortik gaur egungo egoerara pasatzen da, bigarren egoera horretara: nola gaisorik dagoen eta nola hiltzorian dagoen. Nola idazten den hori? Ba badituzu irudi batzuk eta literatura beti da irudi horiekin jokatzeko, eta zer esaten duzun eta zer ez duzun esaten ongi lantzea. Poema hau elipsien bidez egina dago, gehien bat eta soilik beharrezkoak ziren irudiak aukeratu nituen.

Noiz aukeratzen da ideia horrekin aurrera jarraitu ala ez?

Nire kezka bati, kezka estetiko bati, irtenbidea ematen dionean aukeratzen dut aurrera jarraitzea. Estetika bizitzari buruz artistikoki gogoeta egitea da; eta orduan, definizio hori hartuta, nik kezka bat daukadanean eta ideia batek edo irudi batek kezka hori irtenbide estetikoan emateko balio didanean egiten dut. Irudi bat, edo gertaera bat, edo anekdota bat... egon daiteke urtetan zure barruan, baina anekdotak eta irudiak irudi huts dira, edo anekdota huts. Gero, gauzatzean, hori landu egin behar da eta bat etorri behar da zuk daukazun kezka batekin. Adibidez, duela gutxi, idatzi dudaz azken testua nire osabari gertatutako benetako historia bat da: nola bera bizitza osoan Altos Hornos-en egon zen lanean eta gero ezin zuen. Berak ahotsaren bitartez egiten zuen lan, langile gutxi batzuen enkargatua baitzen. Berak ahotsarekin –oso ahots fuertea zeukan– agindu egiten zuen eta etxean ere agindu egiten zuen ahots horrekin. Ez zeukan seme-alabekin horrelako harreman hori, bera zen etxeko ahotsa edo eta horrek markatzen zuen boterea, botere-harremana. Gero altzairu hautsarekin gaixotu egin zen; fabrikako hauts horrek ahots-kordak erre zizkion eta ahotsik gabe geratu zen, eta, orduan, bere botere guztia galdu egin zuen. Eta behin, ahots hori, inoiz maite zaitut esateko gai izan ez zen ahots hori desagertu eta gero, alaba ezkondu zen eta ezkondu baino lehen ohe bat oparitu zion, bere eskuekin eta sopletearekin egindako burdinazko ohe bat. Orduan ere ez zion "maite zaitut" esan, baina hori zen bere proba. Hori da: nik bizitza badut, baina ez da ezer atzean kezka bat ez badago. Eta nire kezka hori da: alde batetik, nola askotan ez garen gai sentitzen duguna azaltzeko, eta, gero, botere-harremanak nolakoak diren familiaren barruan, nola aldatzen diren eta nola alda daitezkeen hobera ere... Eta beste alde batetik, eskuekin egiten duela bere keinua. Nik uste dut galtzen ari dela eskuekin gauzak egiteko ahalmen hori.

Momentu luzean dudaz kezka izan daiteke, ez du zertan momentu horretako kezka izan behar. Nik ikusten badut, nolabait, bitartekoak sortzen ari garela gizartean gu eta lurraren artean, dagoeneko ez dago harreman zuzen bat. Lurrarekin lotutako lanak gero

eta txikiagoak dira, ez dugu lurra bera ere ezagutzen, ez dugu mendia ezagutzen... naturaren legeak gero eta ahantziagoak ditugu bai lurrian eta bai itsasoan ere; orduan, gogoeta bat dago: nola gizakia naturatik aldentzen ari den. Nolabait, klasiko erromatarretan ikusten den gogoeta da. Gogoeta hori ez badago, gogoeta hori gauzatzeko nik historia hori erabiltzen dut eta gero, baita historia hori nola idatzi dudana ere. Hiru maila dira, eta hirugarren hori da azkenean inportanteena: nola idazten duzun.

Prozesuak zenbat irauten du? Zergatik da batzuetan beste batzuetan baino luze/laburragoa?

Ez dizut esango zergatik. Nik, egia esan, poemak buruan edukitzen ditut denbora askoan: esaldi batekin hasten naiz eta gero poemak egiten, beste esaldi batzuekin loturak sortzen bukatzen dira. Gehien bat buruan edukitzen dut poema eta gero pasatzen dut paperera. Hitzak hor barruan aritzen dira mugitzen eta gero atera egiten dira. Baina noski, esaldi bat urte askoan egon daiteke. "Maiatza" poemako esaldia, "zabaldu du bere betazal urdina portuan" Maiatzak. Esaldi hori eduki nuen agian bi urtez poema osoa idatzi aurretik. Irudia hori zen: nola maiatzeko zero urdin-urdin horiek, nola portutik begiratu eta zerua osorik ikusten den, borobil-borobila, eta itsasoa... Alde batetik, itsasoa dago, eta, bestetik, zero borobil bat, eta, zero borobil hori da, hain zuzen ere, "betazal urdina". Irudi hori neukan, baina ez nekien zerekin lotu eta, azkenean, hasi nintzen. Aspaldian ikusi ez nuen lagun baten inguruan poema bat egiteko ideia izan nuen eta irudi horrekin hasi nintzen; izan ere, nolabait, berarekin askotan portuan egoten nintzen paseatzen... Hortik sortzen da beste poema osoa.

Prozesuak gehiago iraun dezake ez delako ontzen, norberak ikusten du... Arrazoa da, nik uste, literatur gaiek bere momentua daukatela. Gauza bakoitzak bere momentua dauka, naturako denbora haiek bezala... Nire lagun batek esaten zuen loreak eta umeak bere sasoiaren egun behar direla; orduan, nik uste literaturan ere sasoiak daudela, bai liburuarekin eta bai poemekin.

Baina zerk eragiten du sasoi hori?

Hori ikusi egiten da, ikusten duzu poema bat itxita dagoela, eginda dagoela, bai zure buruan eta bai koadernoan gero. Poema hau itxita dago; sentitu egiten duzu, ikusi egiten duzu... orduan "hau bukatu da" esaten duzu. Bestela, egoten zara poema bat erdi hasita, baina ez duzu ikusten onduta dagoela. Nola ikusten den onduta dagoela? Nire ustez, poema itxi egiten da berak mundu txiki bat sortzen duenean, bere baitan bere mundu txiki hori sortzen duenean.

Zein neurritan sinisten duzu inspirazioan? Batzuentzat sakrifizioa, disziplina eta orekaren ondorio da lana, ez inspirazioarena...

Inspirazio hitzaren esanahia niretzat (klitxeak albo batera utzita) "izpiak" izango lirateke. Pertsona bakoitzak izpi batzuk ditu... ikusten edo irakurtzen duzuetatik sortzen dira, baina atzean irakurketa bat, formazio bat eta gogoeta bat egon behar dira gero izpi horiek zerbait izan daitezen; bestela, polena bezala, ez da ezti bihurtzen. Lan bat egon behar da ezti bihurtzeko; erleak lan egiten du, ez da polena bakarrik. Polena nondik sortzen den? Adibidez, "Bisita" poema.

Noizbait honi buruz pentsatu al duzu? (ea nola eta zergatik bururatzen zaizkizun ideiak, alegia)

Bai, askotan. Gainera, poema batek ez du zertan jatorri bera eduki behar, jatorri asko ere eduki ditzake. “Bisita” poema esan dizut lehen, baina honen barruan “ez dut lehen bezala bizitza osoa aurretik ikusten... esaten zigun arrebak” esaldia dago. Esaldi hau P.P. Passolini-ren poema batekoa da. Beraz, “Bisita” poemak lehendabiziko jatorria egoera batean dauka eta gero, idazteko orduan, bestelako gauzak sartzen dira. Azkenean, norbera bere esperientziatik bizi da, baina baita beste idazleen esperientziatik ere, beste idazleek munduari buruz egiten duten gogoetetatik eta idatzietatik. Ni neu naiz, baina nik neuk ere nire esperientzia propioetik aparte, badut beste idazleen esperientziatik jasotako herentzia bat. Beraz, bietatik sortzen da...

Lan bakoitzak antolamendu zehatz bat izan behar duela iruditzen zaizu?

Bai, dudarik gabe. Poema guztiek daukate egitura jakin bat; guztiek ez, bakoitzak. Bakoitzak bere egitura dauka eta egitura oso oso ondo landu behar da. Hasierako esaldiak, nolabait, poema zabaldu behar du, eta, bukaerakoak, itxi edo, behintzat, erdi itxi edo zabalik utzi. Nik uste dut egitura ikaragarri inportantea dela, nola garatzen duzun poema osoa. Nik uste dut poesian gauzarik inportanteenak eritimoa eta egitura direla. Begira “Saguzaharra”: “Saguzahar bat dut sabelean”. Irudi horrekin ezinegon bat azaltzen duzu: Saguzahar bat dut sabelaren barruan... baina, hori zer da? Irudi horrek egoera bat azaltzen du, ahots horren egoera bat. Ondoren, horren arabera beste guztia antolatzen da: pixkanaka-pixkanaka irudi guztiak harilkatzen joaten zara bukaerara iritsi arte. Poemak beti nahiko egitura paralelistikoa edukitzen du; esan nahi dut, poema bat irudi bakarra da edo, nire kasuan bezala, fraktala, frakzioen bidez egina. Fraktalak egiteko ez diren zenbaki batzuk daude: ez 1, ez 2, ez 3... 1' eta tartekoak dira. Fraktal horien bitartez azaldu ahal izan dira olatuen eta arbolen forma geometriko horiek; bestela, geometria klasikoarekin ezin da, oso lineala baita. Orduan, olatu batek nola funtzionatzen du? Hasierako inpultso bat du eta inpultso horren atzetik beste bat dator, eta beste bat, eta beste bat... uhinak bata bestearen atzetik. Eta uhin guztiak ez dira berdinak. Edo esaten da arbola batek bere informazio genetikoak beti berdina duela... beraz, enborretik 3 adar ateratzen badira, hurrengo adarretik beste hiru adar ateratzeko agindua dago, baina batzuetan ez dira ateratzen... Horrela sortzen dira egitura horiek.

Poema bat ere bariazioekin egiten da normalean. Hasierako esaldi bat dago eta hasierako esaldi horren bariazio ezberdinekin osatzen da poema. Nik horrela egiten dut, behintzat. Baghen “Canciones golberg”-en hari bat dago, hasierakoa, eta hari horren “errepikapenez” osatzen du obra osoa. Poemak ere askotan hori egiten du: badago hasiera bat, hari bat, gero bariazio batzuk daude, eta, azkenik, hasierako hari horretara itzultzen da berriro, baina ez forma berdinean, agian aldaketa batzuekin.

Iruditzen zaizu badela gairen bat idazleok kontuan hartu beharko zenuketena edo arre-ta bereziren bat eskaini beharko zenuketena?

Ez, ez dago gai bakar bat. Gai asko daude... Nire ustez, inportanteena ikuspegia da eta ikuspegi horren barruan, ez nuke esango bizitza denik poesiaren lehengai. Lehen hori pentsatzen nuen, baina orain ez. Ez dut uste bizitza denik, zeren bizitza lehengai gisa hartuta, poema oso on bat edo oso txar bat egin dezakegu. Hori da, ez dut uste bizitza denik gaia edo lehengai; inportanteagoa iruditzen zait *begirada*. Idazteko ez gara beti bizitzan oinarritzen; nik uste aurreko tradizio osoan oinarritu behar dela. Azkenean, bai bizitzatik, baina baita

literaturatik ere abiatzen gara, edo bai hizkuntzatik beretik abiatzen gara sortzeko; hizkuntzak berak badauka ahalmena esaldiak sortzeko, berez, hitzen arteko loturengatik. Orduan, nik hiru alde horiek ikusiko nituzke: tradizioa, hizkuntza eta gero bizitza bera, baina ez bakarrik bizitza.

Helbururen batekin idazten duzu? Zein?

Helburuak ezberdinak dira. Noski, kezka hori egon behar da, baina ez dut uste poesia soilik gogoeta bide edo espresio bide denik... ez dakit. Helburua? Helburuak asko dira: komunikazioa ere helburua da. Nik uste, poemak izan dezakeen gauza handiena zentzua dela. Askotan esaten dugu “honek ez du zentzurik”. Ez du zentzurik gerra honek, ez du zentzurik Egunkaria ixteak... Poema batek zentzua izan behar du, bestela ez du balio, bestela gauza huts bat da. Eta noski, zentzua izan behar du bai idazlearentzat eta bai irakurlearentzat, irakurle bakoitzarentzat eta bizitza hartu irakurlearen baitan.

Pelikula bat ikustera joaten garenean bezala, identifikatzen dut hangoa nire aitarekin edo nire amarekin, edo ez dakit norekin... eta zuk, zure kabuz, zure familiako norbaitekin... Hori da poema baten azken helburua: irakurleak berea egitea, bestela ez dauka zentzurik. Irakurlerik gabe poesiak ez dauka zentzurik.

Lana bukatu ondoren zein sentsazio izaten duzu?

Antsietatea sortzen da; momentu batean, antsietatea. Hustuta bezala sentitzen zara, baina gero, denbora pixka bat pasatzen denean, beste gauza batean sartzen hasten zara eta egin duzun horrek bizitza hartzen du bere kabuz. Liburua bere kabuz bizi da eta hori da politena. Ume bat edukitzen duzunean bezala; azkenean, umeak bere bizitza dauka. Hasieran depresioa edukitzen duzu, edukitzen duzunean –emakumeek, behintzat– eta gero umea hazten da eta bere bizitza dauka, beste pertsona bat da... eta liburuek ere haien bizitza hartzen dute. Nik uste dut liburuei garrantzi handia eman behar zaiela; alde batetik, duzun onena jarri behar da liburu bakoitzean. Nik uste dut hor zorrotza izan behar dela norbere buruarekin eta beti zerbait aportatzen saiatu, ez besterik gabe egitea, alegia. Liburuari bizitza ematen saiatu behar da; liburu hori definitu bizitza bat izan dezan, eta ez dadila hiru hilkabeteko gauza bat izan... Beste alde batetik, ahalik eta zorrotza izan behar da, baina hor ez da bizitza bukatzen. Dylan-ek esaten zuen diskoak soilik diskoak direla, ez direla ezer gehiago... orduan, disko bat bukatzen zuenean, beste batean pentsatzen hasten zela. Horrek ere askatasun sentsazio bat ematen dit. Bai, garrantzitsua da oso zorrotza izatea, baina beste alde batetik, arte lan bat ere ez da. Esan nahi dut, izan daiteke arte lan bat, baina ez diozu gehiegizko garrantzia ere eman behar, bestela ez baitzenuke hurrengo liburua idatziko. Liburua liburu soilik kontsideratzea, soilik beste liburu bat dela pentsatzea, beste alde hori ere kontuan izanda... Ahalegin handi hori ere kontuan izanda, askatasun sentsazio bat da niretzako.

Zuretzat edo irakurlearentzat idazten duzu?

Oso oso kontuan hartzen dut irakurlea; izan ere, azken batean, literatura komunikazioa da. Niri norberarentzat idaztea, norbere obsesioak idaztea... Oso hotza iruditzen zait gauza bat soilik besteentzat idaztea, eta, gainera, ez da benetakoa. Ni ahalegintzen naiz nire ustez ahalik eta gauza onena egiten, baina ez da nire obsesio pertsonalen islatze bat,

edo sendatzeko egiten dudan gauza bat. Nik ez dut uste hori denik literatura. Literatura komunikazioa da.

Izango duen harrerari beldur diozu?

Bai, hasieran kezka hori dago, eta gaztea zarenean askotan nahi duzu –nik uste jende guztiak nahi duela– pertsona moduan ere mundu guztiak maita zaitzala. Liburua guztiak irakurtzea, guztiak gustatzea... baina hori ezinezkoa da! Batzuei gustatzen zaie, beste batzuei ez... eta horrela da literatura, eta horrela da bizitza. Bizitzan ere, lagun denak ez dira lagunak; baditugu lagun batzuk eta beste batzuk ez, orduan ez da horrekin gehiegi agobiatu behar. Irakurle bakar bat ere ez egotea grabea izango litzateke, baina guztiak goratzea ere... hori ez da bilatu behar.

6. Harkaitz Canori elkarrizketa (2003-3-19)

Inspirazioa hitza eta kontzeptuak egokiak iruditzen al zaizkizu?

Ez, baina bakoitzak badaki zer den inspirazioa. Beharbada oso hitz topikoa da. Ematen du XVIII. mendeko zerbeit edo... Zer da inspirazioa? Azkenean kanpoko estimuluei erantzuna edo ematea. Ematen du inspirazioa berezko zerbeit dela. Geysler bat bezala, zure barruan dagoena eta irtetzen dena. Hori da jendeak daukan ikuspuntua. Orain, hori zenbateraino den egia? Bada oso gutxi.

Eta orduan zer da zuretzako inspirazioa?

Bai, uler dezakegu hori dela inspirazioa, baina horrek balio du sorkuntzan? Inspirazioa baino gehiago momentu bateko motibazioa dela iruditzen zait. Esaten da Hendel-ek *Ei Mesias* idatzi zuela hiru astetan lo egin gabe, jan gabe... eta hori izango litzateke inspirazioaren edo aparteko ukitu horren adibide bat, baina hori ez dakit horrela den. Badaude boladak, baina bolada horri, egun bateko boladari, 3 asteko boladari, hamar eguneko boladari inspirazioa deitzea ez dakit... ikuspuntu erromantiko baten oinordeko iruditzen zait. Zerbait badagoela iruditzen zait. Motibazioa edo bolada hori ez dakit zenbateraino den hain erromantikoa, edo kasualitatearen fruitu edo zu zauden momentuaren fruitu. Nik inspirazioa dei dezakegun hori aktibatzeke mekanismoak erabiltzen ditut. Nik idatzi aurretik irakurri egin behar dut. Hasten naiz nobela bat irakurtzen eta buruan zentrifugagailua jartzen dut eta behin zentrifugagailua martxan dagoenean liburua uzten dut eta orduan idatz dezaket. Muskulu mentalak martxan jartzeko modu bat da eta orduan forman zaude eta orduan inspiratu egiten zara. Nik horrela ikusten dut. Ni irakurtzeak edo beste estimulu artistikoek inspiratu egiten naute. Adibidez, pelikula bat ikusteak. Pelikula hori nola bukatuko nuke? Eta gero iristen zara pelikularen bukaerara eta esaten duzu, bada, nik beste bukaera bat emango nioke. Eta orduan beste bukaera idazten duzu. Orduan pelikula horretako istorioa hartu eta zure istorio bihurtzen duzu. Niri kanpotik jasotako gauza horiek jartzen didate martxan inspirazioa dei daitekeen hori.

Beste adibide bat aipatzearren, bada nik baditut orrialde pila bat idatzita miopiari buruz, miopiaren gorazarre. Miopia estimulu sortzaile gisa. Zu oinez bazoaz zubitik eta beste espaloitik norbaitek kasu egiten badizu zuk ez duzu ezagutzen; hau da, lehenago ikusten duzu keinua pertsona baino. Zuk mugimendu bat ikusten duzu eta zuk ezagutu dezakezu pertsona bat mugimendu horri esker, badakizulako pertsona horrek zein beso-

mugimendu egiten duen. Orduan, zure gabezia horrek sorkuntza edo intuizioa estimulatu du. Orain atera dudun gaztelaniako liburuan, itzulpenean badago epilogo bat eta hori kontatzen dut ipuinaren nire poetika, ipuinari buruzko nire ikuspegia eta hori kontatzen dut, adibidez, nola sortu nuen ipuin bat miopiari esker. Hori da Kontxan oinez nindoala, ikusi nituen alga multzoak eta burura etorri zitzaizkidan irudia basurdearena izan zen. Hildako basurde bat hondartzan. Gero ondo begiratu eta enborrak direla ikusten duzu, baina hasten zara buruari bueltak ematen eta orduan... Basurde bat balitz zer? Eta nondik sortuko zen? Eta zergatik hondartzan? eta hortik bueltak ematen hasten zara.

Ondoren sorkuntzan kasualitatearen faktorea ere badago. Ni egun hartan kalera atera izan ez banintz eta hondartzara joan izan ez banintz ideia hori ez zen sortuko.

Nola egiten duzu ideia izaten duzuetik gauzatera?

Bada gero eta gehiago itxoin egiten dut. Hau da, itxoiten dut ideia buruan nahiko garatua egon arte. Hau da, hori segur aski ipuin batekin edo historia batekin asmatzeko gauzarik garrantzitsuen hasteko momentua aukeratzea da. Zuk momentu egokia aukeratu duzu, hau da, zuk buruan ideia nahiko garatuta daukazu baina ez gehiegi. Gehiegi edukitzea ere ez da ona, niretzako behintzat, hori ere badagoelako motibazioaren kontua. Hasten zarenean istorioaren hasiera, korapiloa eta bukaera baldin badakizkizu ez daukazu tentsio edo motibaziorik istorioa idazten hasteko. Aldiz, oso berde baldin badaukazu buruan ibiltzen zara nora jo ez dakizula, orduan hori tartekoa da momentua: gauza batzuk argi dituzu, baina beste alde batetik zer gertatuko denaren irrika duzu. Momentu hori aukeratu baduzu idazteko, segur aski, istorio horrek edo poema horrek funtzionatuko du.

Zeren arabera aukeratu duzu ideia horrekin jarraitu edo ez?

Hori berehala ikusten duzu, konturatu egiten zara. Sukar batean idazten ari baldin bazara, edo istorioa berez erortzen dela ikusten baduzu edo laua geratzen dela, edo... Hori nik uste ofizio kontua dela. Konturatzen zara, ez dakit zeren arabera den zehazki. Hori Zumetak esaten zuen, berak koadro bat egiten zuela 2 ordu segidan. Hasi eta bukatu. Gustatzen bazaio galeriara saltzera eta bestela txikitu eta beste bat egiten zuela. Ez zara salbatzeko ahaleginetan ibiltzen. Huts egindako artxiboak gordetzen dituzu, baina niri oso gutxitan gertatu zait hasiera batean funtzionatu ez duen zerbaitek gero beste ideia batekin hobetu eta zerbait ahaltsua lortzea horrekin. Horregatik Zumetarekin bat nator. Sortzen den momentuan indarririk ez baldin badauka, hobe da utzi eta beste bat egitea.

Horrez gain aipatzekoa da baita ere tiraderarena. Idazleak beti esaten dut tiraderan hainbat gauza dituela. Niri grazia handia egiten zidan zerbait zen, ze "este escritor tiene tantos poemarios en los cajones"... Zertan daude tiraderetan? Hemingway esaten zuen "publicar o destruir, cajones no!". Baina gero konturatzen zara denbora ere beste faktore bat dela ekuazio horretan eta idazten duzun hori salbatu edo deuseztatzen du. Orduan tiraderak hori dira, azken gainerrea. Zuk nobela bukatuta daukazu baina atseden hartu behar du bizkotxoak bezala, orduan tiraderan uzten duzu denboraldi batez eta ahaztu. Orduan gero ateratzen duzu eta denbora bat pasa da eta beste era objektiboago batean irakur dezakezu eta azken gainerrearen ondoren balio du istorio honek? Denborak ere ematen dio hori, baina azkenean gauza objektibo bat da... oso zaila da esaten zerk bultzatzen duen idazlea batzuekin aurrera jarraitzera eta besteak baztertzeko erabakira. Oso gauza intuitiboa dela uste dut. Badago oso zorrotza den jendea horretan. Pako Aristik, adibidez, garai batean hori egiten zuen. Orain ez dakit gauza bera egiten jarraituko duen. "Autostopeko ipuinak" liburuarekin hori egin zuen, 50 ipuin zituen eta horiek adin eta

ideologikoki erabat desberdinak ziren pertsoneri bidali zizkien haiek gehien gustatzen zitzaizkien aukera zitzaten eta ondoren estatistika bat egiten zuen. Hau guztiek aukeratu dutenez, bai... Baina ez dakit, nik uste dut idazle erabakia dela. Nik uste dut idazle batek badakiela istorio bat noiz den ona. Beste gauza bat da bere burua engainatzea, baina gauza batzuk "de cajón" esaten den bezala. Benetan poema borobila ateratzen zaizunean konturatzen zara, idazleak badaki. Hau bai. Baina hori oso gutxitan gertatzen da... (barrez)

Prozesuak zenbat irauten du? Zergatik da batzuetan beste batzuetan baino luzeagoa/laburragoa?

Denbora neurtzea oso zaila da literaturan. Batzuetan utzitakoetatik ezagutzen da literatura bat edo idazle baten preferentziak. Bazterten dituen gazetatik.

Baskiat pintoreak esaten zuen bere inspirazio iturriak Picasso eta bost urteko umeen pinturak zirela. Orduan, bere agentearekin beti eztabaidak izaten zituen beharbada koadro batzuk oso elaboratuak dituelako eta beste batzuk hamabost segundotan pintatutakoak, eta biek prezio bera zutelako. Eta orduan galeristak esaten zion: "ia, koadro hori 6 orduan pintatu duzu eta hori 11 segundotan, ezin dute prezio bera izan". Orduan Baskiaten erantzuna izaten zen: "bai baina koadro hau egiteko beste horretatik pasa naiz; hau da, nire eskuko imintzioak beste koadroa ikasi behar izan du hau egiteko. Hau sinpleagoa da eta azkarrago egin dut, baina beste koadroaren jakinduria hemen dago sinplifikatuta". Orduan hori da, lehengo gazetatik edo deskartatu dituzunetatik hor inbertitutako denbora hori gero ikusten da, eta beharbada geroko testua askoz ere gutxiago "kosta" zaizu egitea. Horregatik, denboraren kuantifikazioa konplikatu da.

Lehengoan, adibidez, Egunkaria zela eta testu bat idatzi behar nuen eta jendaurrean irakurtzekoa zenez, jendeak aurrenekoan hartzen zuena behar nuen izan. Asteburua idazten pasa nuen, gaia zaila zen... poema oso dentsua egin nuen eta ez zitzaidan gustatu, baina denbora pila bat pasa nuen egiten. Eta egunkariko ekitaldira joan baino hamar minutu lehenago horrek balio ez zuela pentsatu nuen. Zerbait sinpleagoa izan behar zuen, eta bururatu zitzaidan Bertol Brechen poema hartzea (Negu Gorriak eta Mikel Laboak abesten dutena) "Kontatu didate Nueva Yorke..." eta orduan letra aldatu eta "Kontatu didate Andoainen, gizon emakume batzuek egunkari bat egiten zutela, horrekin ez zen mundua aldatzen, gizon-emakumeen harremanak ez ziren hobekitzen, baina irakurle batzuek goiz batez, egunkari bat zuten, eta egunkaripean haize hotzik ez eta haiei zihokien elurra karrikan uzten zen." Sinplea e! Hau da behar nuena! Baina, noski, hona iristeko bestea egin, txikitu eta zakarrontzira bota behar izan dut. Horregatik, idazlearen egin beharretako bat nire ustez esan behar duena era konplexu batean esan beharrean era sinplean esatea da, baina sinpletasunaren ehiza horrek bazterte asko dakar eta gero ikusten ez diren gauzak. Pako Aristiri esaten diote: oso ondo eta oso garbi adierazten duk esaten dukana. Oso idazkera erraza daukazu. Erraza dela? Askok kostatzen zait horrela idaztea, e! Hori da gako bat eta hori da baita ere tranpa. Gaur egun asko egiten delako. Askok saltzen da liburu irakurteraza. Baina niri liburu irakurteraza izateak ez dit ezertaroko balio. Irakurteraza da eta zerbait gehiago, ez? Ematen du zerbait? Beldurra, nazka, barrea... eragiten dizu? Gaur egun erraztasuna bertute bihurtu da, besterik gabe, baina nire ustez ez da bertutea erraztasun horren atzean ez baldin badago ezer. Nire ustez zaila da erraztasun garden hori lortzea, baina horren atzean *corpus espresibo* bat egotea.

Esan duzu ez duzula inspirazioan bere horretan sinesten...

Ez

Orduan iruditzen zaizu idazle askorentzat bezala, lana, sakrifizio, diziplina eta oreka- ren ondorio dela eta ez inspirazioarena?

Bai. Topiko bat da inspirazioak ez zaituela sofan harrapatu behar, baizik eta lan-mahaian. Inspirazio hori egotekotan, azkenean ofizio bat ikastearen zorrotze hori baino ez da. Idazlea denborarekin fundamentalista bihurtzen da: hitz batzuei mania hartzen diezu, fanatiko zehaztasunaren bilaketa horretan... Niretzako hori da idazteko ofizioak noizbait izatekotan hobeto idaztera eramaten zaituena. Idazlearen eginkizuna da burutik eskura gero eta distantzia txikiagoa egotea. Askotan oso ideia brillantea daukazula iruditzen zaizu, baina gero idazten duzunean zuk oraindik pentsatzen duzu buruan zenuena idatziz jarri duzula, baina ez, burutik eskura gauzak galdu dira eta horretaz testua berrirakurtzen duzunean konturatzen zara: esan nahi nuena ez nuen ondo idatzi. Askotan sentsazioa hori da. Idazle batek pentsa dezake kristorena idatzi duela baina agian kristorena bere buruan zegoena zen, baina gero ez zuen ondo kristalizatu. Horregatik, denborarekin, oso sentsazio polita da idazten dugunontzat eskuak eta burua gertuago daudela sentitzea, hau da, ibilbidea txikiagoa dela ikustea. Artisautzaren ofizioa menperatzearen sintoma da, ez da besterik.

Noizbait pentsatu duzu ea zergatik eta nola bururatzen zaizkizun ideia horiek?

Ba bai, eta asko interesatzen zaidan gaia da gainera. Konturatzen naiz askotan izan daitezkeela kanpotiko estimulu horiek edo baita ere kantu bat izan daiteke askotan. Nik askotan idazteko tranpak egiten ditut, adibidez, musika erabiltzea. Lehen esan dudana bezala, zentrifugagailua martxan jartzeko irakurri, bada gauza bera. Badakit entzuten dudana musika motaren arabera nire animo egoera eta nire idazteko grina era batera edo bestera sentsibilizatuta dagoela. Adibidez, jazz musika entzuten ari banaiz, esaldi luzeagoak ateratzen zaizkit, jazz musika ere horrelakoa delako, kadentzia luzeagoa dauka eta jazzaren konposizioan errepikapenak daukate baita ere. Bat-batean saxofonistak soloa egiten dut, gero pianoak eta baxuak eta gero gitaristak solo bera egiten du baina bere erara. Orduan ateratzen zaidan idazkera musikaren parekoa da: errepikapenekin (baina errepikapenak ez dira berdinak, bata saxoa da eta bestea gitarra...) eta musika oso *hardcorea* entzuten badut kontrakoa gertatzen zait: esaldiak laburrak dira. Musikak eramaten zaitu. Hori da Pavloven txakurrekin egiten zutena. Ni ere beharbada pixka bat puzten ari naiz, beharbada ez da gauza bat hain automatikoa, baina atmosfera hori sortzeak bai laguntzen du. Eta niri gauak ere laguntzen dit. Normalean idazten jarriko naiz gaueko 11etatik aurrera, iluntasuna, lasaitasuna dagoelako eta gorputza beste era batera dagoelako, eta baita ere badakizulako telefonoak ez duela joko. Gero, azkenaldian interesatzen zaidan beste kontu bat da hizkuntzena. Sortzeko mekanismo polita da menperatzen ez duzun hizkuntza batean irakurtzea. Adibidez ingelesa edo frantsesa. Hartzen duzu liburu bat ingelesez eta nahiz eta gutxi gorabehera ulertu, beti dago eskapatzen zaizun zerbait eta orduan hor ipuin paralelo bat sortzen ari zara zure buruan. Hizkuntzaren zure domeinua ona ez denez, gauza bat da zuk imajinatzen duzuna eta beste bat hor jartzen duena, orduan hizkuntzaren ezagupena eta ipuinaren zailtasuna elkarrengandik zenbat aldentzen direnaren arabera, zure buruan sortzen duzun istorioa ere benetakotik aldentzen doa. Hitz honen esanahia zein ote da? Ez dakit. Demagun hau dela. Beraz, zuk erabaki duzu *lege-dekretuagatik* hitz hori halako dela, orduan iristen zara ipuinaren bukaerara eta esaten duzu, bada, ez da. Baina nik bigarren ipuin bat sortu dut, A', baina kontxo, hau ere gustatu egin zait. Beraz, nik idatziko dut A'. Ezagutza eza horrek sortzeko mekanismoa aktibatu du; horregatik, ezagutzen ez duzun horrek leiho bat irekitzen du. Zerbait estankoa malgu bihurtzen du, mugri daitekeena, zuk nahi duzun eran alda daitekeena. Orduan konturatzen naiz gustatzen zaidala horrelako gauzak irakurtzea hain zuzen ere sormena aktibatzeke. Euskaldun berriak asko obsesionatzen dira guztia ulertzearekin, eta nik esaten diet ez ulertu, ez da beharrezkoa guztia ulertzea, edo are

gehiago, guztia ez ulertzea ona izan daiteke. Hori ere Juan Carlos Perezek esaten zuen “Lau teilatu gainean, ilargia erdian eta zu goruntz begira...” Kantu hori hartu eta berak esaten zuen oso kantu pertsonala dela, baina nahiko anbigua da eta horregatik bakoitzak bere interpretazioa egiten du eta istorio batzuk zeharo aldentzen dira, baina berak bakarrik daki zein den benetako istorioa. Horregatik, berari beste istorio bat kontatzen diotenean harritu egiten da, zenbat ematen duen ez ulertze horrek... Horregatik, kantuetan ulertzen ez diren gauzak edota hitz asmatuak sartzeari komeni dela esaten zuen, jendea deskontzertatzeko. Adibidez, *cauchemar*, katxemira... bada frantsesez amesgaiztoa esan nahi du. Eta pentsatzen duzu: nola izan daiteke horren hitz polita hain gauza beldurgarria? Bada, hori da polita eta hori ez ezagutza horretatik abiatuta sortzen da askotan, testu bakoitzak noski, makina bat interpretazio dituela kontuan hartuta. Hori limitera eramatea da.

Lan bakoitzak antolamendu zehatz bat izan behar duela iruditzen al zaizu?

Ni horretan nahiko askea naiz. Ez naiz oso antolamendu zalea. Antolamendu gehiegiak askotan gauza artifizialak edo oso metodoko gauzak egitera eramaten zaitu. Nik uste dut gutxieneko antolamendu bat behar dela baina baita ere behar dela margen handi bat zure kasa ibiltzeko. Ni normalean idazten hasten naiz bukaeratik, ez beti, baina askotan bai. Bukaera egiten dut eta gero hasieratik hasten naiz eta bukaerara iristen naizenean bukaera aldatzen dut. Orduan, bukaera horrek bakarrik balio dit ibilbidea egiteko, baina gero ibilbide horrek bukaera desberdin bat ematen dit. Askotan gertatu izan zaidan zerbait da: zuk bukaera bat idazten duzu eta hasten zarenean historiak berak hasieran zeneukana baino bukaera hobea bat ematen dizu, baina hasierako hori tranpolin bat da. Gehienetan bukaera edukitzeak ematen dizu segurtasun bat, horra noa... eta gero bidea duzu eta beharbada beste leku batean bukatuko dut, baina hori bistan daukat.

Eta nola dakizue noiz komeni den ipuina egitea eta ez poema? Edota alderantziz?

Hori nik ere ez dakit beti garbi. Nik neuk ere ez dakit neroni konturatzen naizen. Baina bueno, idazteak hori du berekin, zure burua ikustea. Hau da, 1. eta 2. pertsonan idaztera ohituta baldin bazaude polita da gero zure bizitza 3. pertsona bihurtzea. Gure bizitza 1. pertsonan egiten dugu eta orduan zaila da gure buruarekiko distantzia hartzea, baina goiko begi batekin ikusten saiatzen bazara, gure jokabideak aztertzea dakar eta literaturak ere horretarako balio du bizitzan, azkenean liburu bakoitza laborategi txiki bat da eta laborategi txiki horretara munduaren puska bat ekarri behar duzu. Munduaren, minaren eta egiaren puska bat laborategi horretan jarri behar duzu bizitzako faktore batzuekin eta saiatu horrek liburuan funtziona dezan. Eta gero transposizioa alderantziz egin dezakezu. Hau da, laborategi horretakoa zure buruari edo inguruko jendeari aplikatu.

Narratzailearekin zer da lortu nahi izaten duzuna?

Nik askoz errazago idazten dut 1. pertsonan 3.ean baino, beraz, horregatik, askotan, propio nire burua 3. pertsonan idaztera behartu dut. Juxtu horregatik. Hori ezkerrekin idazten duzunean bezala da. Momentu batean esaten duzu, eskuinarekin idatzi behar dut ea gai naizen... Gehiago kostatzen zaizu baina ikasten duzu. Niretzako narratzailea ere hori da. Nire ustez bilatu behar da esfortzua suposatuko dizun narratzailea, hau da, ez da ona ezta ere arinegi idaztea. Askotan barrera bat jarri behar diozu nire ustez. Entrenamendu kontua da. Nik joera dut esku bat lotuta idaztekoa. Ondoren itzuliko naiz 1. pertsonan idaztera, baina distantzia hartzeko edo egiten dut eta baita ere gero baloratzeko zure

erratasun hori. Azkenean 1. pertsonak abantaila batzuk dauzka eta 3.ak beste batzuk. Zure buruari oztopoak jarri behar dizkiozu, ez da dena laua izan behar.

Pertsonaiak zeren arabera aukeratzeko dituzu?

Beti desberdina da. Askotan istorioa baino lehenago pertsonaia daukazu. Lehengoan oso *tik* berezia zuen pertsona bat ezagutu nuen. Miresten zuen halako pertsonaia bati buruz hitz egiten zuen eta gero keinu hau egiten zuen (txapela kenduz bezala): “Nik horrelako pertsona baten aurrean txapela kentzen dut”. Gero berarekin egoten zara eta konturatzeko zara keinu hori etengabe egiten duela. Hau literarioki manipulagarria den pertsonaia da; hau da, fikziozko materiala. Orduan, nik inspirazioan, jaiotzean eta... gehiegi sinesten ez dudana bezala, bai sinesten dudala idazle bezalako ofizio batek obsesibo puntu bat izan behar duela. Idazleak puntu “gaixobera edo” behar du, puntu bat fikziozko materiala berarengana erakartzeko. Fikziozko materiala batzuetan pertsonaia bat da, beste batzuetan esaldi bat... Hartzen duzu eta esaten duzu, kontxo! Aste honetako zutabea. Esaldi batekin. Eta gainera beharbada testuingurutik kanpo entzun duzun zerbait da, ez dauka zerikusirik zuegan eragin duten estimuluekin, baina... edo beste askotan istorio bat bururatzea, edo irudi bat... Askotan zinean irudietatik etortzen zaizkit ideiak eta pentsatzen hasten zarenean halako ipuin nondik sortu zen konturatzeko zara. Nik hori aztertu izan dut. Adibidez jatetxe mexikar batean bazkaltzen ari ginen eta hormaren beheko aldea erdiraino urdinez eta handik gorakoa zuriz margotuta zegoen eta bertan ume bat jolasean. Umea igeri egiten ari zen eta burua altxatu zuen marra urdina pintatuta zegoenetik gora, arnasa hartzen zuen eta murgildu egiten zen. Hori, momentu polit hori, nik idatziz jarri behar dut. Benetan niri istorioak egiteko ideiak kanpotik etortzen zaizkit. Halako momentu hunkigarri bat ala istorio, pertsonaia, esaldi... eta hori dena fikziozko materiala da eta gero segur aski idazten hasten zarenean zure fikziozko biltegi horretatik osagaiak aukeratzeko. Badago niretzat puntu obsesibo hori, etengabe pilotu automatikoarekin materiala biltzen joatea eta gero hori nola birkokatu. Badago jendea oso obsesiboa, behatzailea eta oso zorrotza dena gauzak jasotzen baina gero hori iraultzen duenean era desordenatu batean egiten duena. Poema bat izan zitekeena ipuin bihurtzen eta horregatik ez du horren ondo funtzionatzen. Orduan gauza bat da hori, jasotzea, eta beste bat da jasotako hori guztia antolatzea.

Iruditzen zaizu badela gairen bat idazleak kontuan hartu beharko zenuketena edo arreta berezia eskaini beharko zenuketena?

Nik estimatzen dudana idazlea da bakoitzak berea, baina bakoitzak bere minaren berri ematen didana. Nahi baduzu era umoretsu batean. Hau da, denok dauzkagu grina batzuk, eta kezka batzuk, eta obsesio pertsonal batzuk eta nik ikusten badut idazlea ezagutu ondoren idazten duena bere kezkegandik asko urruntzen dela, bada horrek hotz uzten nau. Orduan nik uste dut bakoitzaren testigantza dela, baina ez bere garaiaren edo ogibidearen testigantza, baizik eta bere minarena. Hau da, nik hitz egin dezaket Cansas Cityko nekazari bati buruz baina azkenean nire minari buruz hitz egiten aritu. Eta kontrakoa. Idatz dezaket Donostiako gazte baten istorioa, baina erabat gauza anodinoa. Orduan nik gaia baino gehiago estimatzen dut idazleak bere kezkei eta minei buruz hitz egitea.

Zein dira zure kezka edota minak?

Ez dakit. Beharbada orain asko interesatzen zaidan gaia da harremanena eta nola jendea ez den iragazgaitza, baizik eta jendea jendearekin aldatu egiten da eta elkar

kutsatzen dugu nahiz eta ez onartu. Adibidez, banuen istorio bat idazteko ideia bat: koadrila bat eta koadrilako batek beti absente zegoenaren jarrera defendatzen zuen. Hau da, zu hemen zaudenean kontra egiten dizut, baina zu ez zaudenean zure jarrera defendatzen dut. Hori da Pasaia Bluesen nire asmoetako bat, ez dakit gero lortzen den. Ikustea nola bi pertsonaia elkarrekin bizi diren, batek esaten du gauza bat besteak beste bat, ematen du bakoitza berera dioala, paraleloki, baina konturatzen zara pixkanaka baten ideiek eta ikuspuntuek bestearengan eragiten dutela eta alderantziz. Orduan, nobela bukatzen denean kontrako lekuan bukatzen dute, lehenago bestea zegoen lekuan. Hori interesatzen zait eta interesatzen zait baita ere gero eta gehiago sistematizatzea sorkuntza bizitzan eta bizitza sorkuntzan. Gustatuko litzaidake jendeak, egiten dituen gauzetan, sorkuntza presente izatea. Ez sorkuntza literarioa, hau da, gustatuko litzaidake jendeak gauetan hortzak garbitzen dituen kantu bateko perkusioa jotzea. Hau da, hortzak garbitzea bokazio artistiko batekin, halako kantu baten erritmoa jarraituz. Nire gaia hori da: bizitzako gauza txiki horiek, eta bizitzako gauza txiki horiek nola zorrotz eta nola horiei poetika bat atera. Azkenean hemen gaude, bizitzen gara 30, 40, 50 urte, hiltzen gara eta zer egin dugu? Istant hori gastatu. Hori da nire gaia. Nola urteak eta denbora aurrera doazen eta nola markatu denbora hori, nola istanteei, gertaerei zapora bat eman, musika bat eman, ondoren ezer egin ez dugunaren sentsazioa ez edukitzeko. Zein izan zen 1994. urtea? Bada 1994. urtea izan zen Broklingo zubi batera igo eta poema bat irakurri nuen urtea. Edo hortzeskubilarekin *sinfonia N^o7 para orquesta* idatzi nuen urtea. Eguneroko bizitza horretan sortzeko zerbait aurkitzea, ez beti mekanikoa eta berdina izatea.

Nik miresten dudan jendea da bere lanarekin kontziente izatea zuk egiten duzun horretan erabilgarritasun bat dagoela. Adibidez, Baskiatek egiten zuen: bere koadroen gainean lo egiten zuen, bere *loftean* eta han daude bere argazkiak oihalaren gainean pintatzen, eta bitartean kafea hartzen ari zen, eta kafea erortzen zitzaion eta esaten zuen: “bada ondo datorkit, marka bat behar zuen hemen” eta orduan, pixka bat luzatzen zuen eta halako irudi bat egiten zuen. Ez dakit zeinek deitzen zion eta bere telefono-zenbakia oihalean idazten zuen; gero, berarekin haserretzen zenean borratu egiten zuen, baina hala ere ikusi egiten zen zenbakia. Orduan ikusten dut literatura nire zahartzeko era bezala. Baskiatek ikusten zituen bere koadroak eta bere egunerokoak ziren eta hor bazegoen bizitza eta egiten zituen gauzen artean oreka bat, lotura bat: gauza bera ziren. Eta esango dizute hori jarrera bat dela, gero saltzeko egiten den zerbait artifiziale... bai, batzuetan hori da. Batzuetan gezurra da. Ez dakit zein musikarik ere, ez dakit zenbat aste bakarrik pasa omen zituen hori konposatzen eta... mitoa. Baina batzuetan hori sinesten duzu eta beste batzuetan ez, orduan, sinesten duzunean bidea hortik doala ikusten duzu.

Zein helbururekin idazten duzu?

Bada hor gauza bat oraindik hitz egin ez duguna eta hori da kontzeptu ludikoa. Nik idazten dut, alde batetik, oso ondo pasatzen dudalako idatziz, hau da, ez ditut gauza asko ezagutzen idazteak adina plazer ematen didatenak. Orduan, nik ere ez dut ulertzen idazlearen sufrimendu hori. Niretzako idaztea gozamina da eta gainera betidanik, 9-10 urte nituenetik, eta, oraindik ere bada.

Bestetik sortzeko zerbait egiteagatik. Nik oso belarri txarra daukat, beraz, musika utzi egin nuen; oso txarra naiz pintatzen, pulsu txarra daukat, beraz, pintura ezin egin... Beraz, gauza gutxi geratzen zait eta errazena idaztea da. Ni dedikatzen naiz historiak sortzera eta nire despentsan fikzioa pilatzera; hori da nire lana. Baina baita plazerra ere. Biak dira eta, azkenean, zure burua ulertzera iristea. Lehen esaten genuena: batzuetan 1. pertsona izateari utzi eta 3. pertsona izatearena. Idazle izanda hori gehiago

sistematizatzen duzu eta hori da zure lana, orduan... Hor badago nolabait gauzak ulertzen saiatzea edo bestearen postura ulertzen saiatzea. Niri asko gustatzen zaizkit ofizioei buruzko nobelak. Lehengoan ikusi nuen baten izenburua, ez nuen irakurri baina: “el afinador de pianos”. Bada ziur nobela ona dela izenburu horrekin. Niri gustatzen zaizkit lan bat azaltzen duten liburu eta filmak, eta nola lan horren atzean badagoen zerbait gehiago. Arotza da mahaiak egiten dituen, bai, baina horren atzean bada zerbait gehiago. “En Construcción” pelikulan bezala, bertan agertzen da nola Bartzelonako Raval auzoan etxe bat botatzen duten eta beste bat egiten duten. Orduan, etxea botatzearekin batera auzo bateko giroa desagertzen doa, espekulatuzaileak sartzen doaz... Hor bizi zirenek alde egin behar dute eta jende berria dator bizitzera. Badago momentu bat aita-emeak eskailera bat egiten ari direna, eta aitak eskailera bat nola egiten den azaltzen dio. Arkatzarekin, angelua... eta konturatzen zara hori eskailera bat egiten ari zarela, baina eskailera bat baino gehiago da benetan hor egiten ari direna. Hor dago bere ofizioak eman dion bizitzeko era bat, bere ofizioak eman dion ironia eta umorea, eta beharbada hori da lehen aipatzen nuena. Egunero bulegora joan-etorria eta gauza bera egin, baina sortzeko jarrera hori dauka. Lagunartean zabiltzanean hitz joko baten bidez asmamena adierazteko era hori... hori da nik bilatzen dudana eta inguruko jendearengan sumatu nahiko nukeena. Hau da, arropak zintzilik jartzea ere ikuspuntu umoristiko estetiko batekin. Eguneroko gauza txikiei zerbait atereaz.

Idazten duzunean zuretzat idazten duzu ala irakurleak kontuan izaten dituzu?

Idazten dut alegiazko irakurle batentzat. Batzuetan pentsatzen dut “zer izenburu jarriko lioke liburu honi Enrique Vila-Matasek?”, eman dezagun. Bai pentsatzen duzu irakurlearengan, baina irakurle beti ez da berdina. Ondo etortzen da buruan irakurle zorrotz bat izatea, esaterako, Xabier Gantzarainek hau irakurriko balu gustatuko litzaioke? Ez, bada orduan zakarretara.

Bai, idazten duzu zuretzako, aktibitatea gustukoa duzulako eta ondo pasatzen duzulako, baina ez da egia zure buruarentzat bakarrik idazten duzunik. Hau da, zure egoismo eta bakardade horretan, kontziente zara – nik uste idazlea kontziente dela beti-hirugarren irakurle bat dagoela ez dituen zure koadrilako txistek ulertzen (beraz, ez jarri gehiegi ez zaituztenez zu ezagutzen), zure mundutik kanpoko norbait da eta horrek ere atera behar du zerbait zure liburutik. Nik idazten dut hirugarren irakurle batentzat, baina irakurle mutante bat da, hau da, komeni zaidanean aurpegi bat dauka, komeni zaidanean ez... Adibidez, gaztelerazko bilduma hori atera nuenean, izenburua jarri behar zitzaion; ez nion jarri nahi nire liburu baten izenburua, baizik eta beste bat. Orduan esan nuen: *Enseres de ortopedia inútil*. Ez da ale bat bera ere salduko, baina zeinen gustora geratuko naizen. Orduan, izenburu hori jartzean, nire asmoa zen erakusleho batean Enrique Vila-Matasek (niri asko gustatzen zaidan idazlea da) liburu hori ikusiko balu, liburu horri begira geratu eta ea erosiko lukeen. Horregatik jarri nion. Orduan hori, irakurlea oso presente eduki behar dela. Ez hainbeste aktibitatean baizik eta ekintzan. Hor ere prozesua hasieran egoista da akaso, baina prozesuak aurrera egin ahala eta liburuan pentsatzen hasten zaren momentuan gauza bat da idaztea eta beste bat da publikazioa. Idazketa garaian, adibidez poema bat edo ipuin bat idazten duzunean, ez daukazu liburua objektu bezala edo bilduma bezala, daukazu historia bat kontatu beharra eta hori idazten duzu. Gero ipuin batzuk, poema batzuk baldin badauzkazu esaten duzu, bueno, orain goazen irakurlearengan gehiago pentsatzera. Hauek nola bil ditzaket, badute elkarrekin zerikusirik? Sei ipuin daukat, beharbada gai bereko beste hiru idatziz gero liburua egin daiteke... Eta bai, nik oso presente daukat ezin dudala idatzi gogoak ematen didana eta irakurlea kontuan hartu behar dela. Nik buruan badut irakurle bat, baina irakurle mutantea da, mila aurpegi dituen.

Zure lana argitaratzen duzunean izango duen harreraren beldur izaten zara?

Ez. Hasieran horrek gehiago kezkatzen zaitu, baina gero konturatzen zara liburu batzuk batzuei gehiago gustatzen zaizkiela eta beste batzuei gutxiago, zu zara atalasea jarri behar duena. Gero, noski, kritika batzuk aintzakotzat hartzen dituzu – lehen esan bezala, ez gara iragazgaitzak-; nahiz eta, “txolin horrek ez dauka ideiarik ere zer idatzi duen, ez daki ezer ere literaturaz...” esan, kritika hori irakurri duzu, ez zaizu batere gustatu baina halere nota hartzen duzu. Hor badago notario birtual bat eta izartxoaa... Baina egia esan, normalean gutxi balio dizute kritikek eta iritziek; ez dakit zenbateraino ematen duten asko. Bai dela idazlearen erantzukizuna gero eta gehiago exijitzea zure buruari eta nik uste dut idazleak badakiela, zuk badakizula, noiz asmatu duzun eta noiz ez. Orduan, zure erantzukizuna da asmatu ez duzunean ez argitaratzea, besterik gabe.

Lana bukatu ondoren zein sentsazio izaten duzu?

Beti desberdina. Izan daiteke liberazio bat, izan daiteke pena ere... Pako Aristiri entzuten nion behin “Urregilearen orduak” idazten ez dakit zenbat urte egon zela (nik ez dut inoiz horrenbeste denbora pasa nobela bat idazten) eta bera bizi izan zela nolabait etxe horren barruan eta orduan azkeneko puntua jartzea atzeratu egiten zuela pena ematen ziolako etxe horretatik atera eta alde egitea. Baina bestalde, niretzako da itsasora botila botatzea bezala, zuk zure mezua hor idatzi duzu, itsasora bota duzu irakurle hori presente edukiz, baina, bestalde, inolako itxaropenik gabe eta zerarik gabe mezu hori bueltan etortzeko. Hau da, nik bota dut eta jada liburua ez da nirea. Liburuarekiko desatxikimendu bat bezala da, jada zuena da, jada ez da nirea. Gero, noiz edo noiz bueltan etortzen bada mezu bat edo zerbait, bada oso ondo, baina bestela, niretzako nik liburuarekiko daukadan erantzukizuna argitaratzen denean bukatzen da. Hortik aurrera irakurlearena da, baldin badago. Gero egia da, liburuak bere burua idazten jarraitzen duela askotan. Hau da, liburua idatzi ondoren gauzak gertatzen dira. Adibidez, New Yorkeko liburuan. Hori dorreen kontua baino lehenago atera zen eta orain irakurtzen duzu, eta ez dut esango profetikoa denik, baina badago kapitulu bat suteei buruz, eta beste bat hegazkin istripuei buruz, eta badago pasarte bat dorre bikiei buruz elkarrekin haserre zeudela eta gaizki bukatuko zutela esaten zuena... hori idatzi nuenean dorre bikiek hor jarraitzen zuten eta gauzak gertatuz doaz eta gauza horiek liburua idazten jarraitzen datoz. Beraz, liburu bat ez da bukatzen zuk azken puntua jartzen duzunean baizik eta gero zure parte hartzerik gabe bere burua idazten doa. Eta gero oso desberdina da poema liburua eta eleberria. Normalean poesia gutxiago saltzen da, baina poesia-irakurlea fidelagoa da. Fidelagoa da eta berrirakurleagoa da. Eleberri bat nekez irakurtzen duzu bi aldiz, baina poema bat bai... Beraz, demagun mila poema-liburu saltzen dituzula eta eleberri egileak sei mila saltzen dituela. Bai, baina sei mila horietatik lau milak asko jota irakurriko dute, eta bestalde, mila horietatik, segur aski bederatzehunek irakurriko dute eta zazpiehunek gustuko dituzten lau edo bost poemak, bost, sei, zortzi, hamar edo hogeit hamar aldiz. Hori ere, irakurlearen ikuspuntuan jarrita, baloratu egin behar da eta ez da horri buruz hitz egiten. Irakurlearen kopuruaz hitz egiten da, baina ez haren fideltasunaz edo berrirakurtzen duen horretaz edo irakurlearen kalitateaz.